

2015eko oroitidazkia

Sindikoa. Herritarren defendatzailea



Argitaratzailea

Sindikoaren - Herritarren Defendatzailearen Bulegoa
Florida ibilbidea z/g • Uraren lorategi sekretua
01005 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: 945 162 690 • Faxe: 945 162 693
sindikoa@vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz.org/sindico

AURKIBIDEA

01 MARTIN GARTZIANDIA GASTEIZKO SINDIKOAREN HITZ BATZUK	9
02 TXOSTEN BEREZIAK	13
ERREG. ZK.: 70/15 EKARPENAK, ORDENANTZA FISKALAK ZIRELA ETA	14
03 JASO DIREN KEXAK ETA HORIEN EBAZPENA	23
03.1 Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila	25
A) BITARTEKARITZA	25
ERREG. ZK.: 2121/14, 2122/14, 2127/14 Y 2134/15. HOBARIA KIROL INSTALAZIOETAN.	25
ERREG. ZK.: 2132/15 GATAZKA KIROL SAILAREKIN. BETERANOEN SAILA.	27
B) ORIENTAZIOA	29
ERREG. ZK.: 2276/15 GIZARTE ETXEKO IKASTAROAREN ZENBATEKOA ITZULTZEA.	29
C) EZESPENA	29
ERREG. ZK.: 2188/15 KIROL INSTALAZIOETAN BAJA EMATEA. ALDAKETAK, KUOTEN HELBIDERATZEAN.	29
D) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)	30
ERREG. ZK.: 2217/15 ITXITA ERABILTZAILEAK ESKATUTA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA. KOLPEA AUTOAN.	30
03.2 Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila	30
A) GOMENDIOA	30
ERREG. ZK.: 2195/15 "GASTRONOMIAREN ESPAINIAR HIRIBURUTZARI" DAGOZKION ORDAINAGIRIAK ORDAINDU EZ IZANA.	30
03.3 Ogasun Saila	34
A) OFIZIOZKO GOMENDIOA	34
ERREG. ZK.: 65/14 BALIO-GEHIKUNTZA (HLBGZ): FORU ARAUDIA UZTAILAREN 4KO 8/2014 ERREGE LEGE DEKRETUAN XEDATUTAKORA EGOKITZEA.	34

B) GOMENDIOA	36
ERREG. ZK.: 1966/13. GOMENDIOA. GOMENDIO ERREKERIMENDUA. ALDABEKO ETA RENFEKO PARKINEN KUDEAKETA.	36
ERREG. ZK.: 2128/14 "GAINBALIOAREKIN ETA ORDAINEAN EMATEAREKIN BUELTAKA"	38
ERREG. ZK.: 2189/15 TRAFIKO-ISUNA. ENPRESA BATEK LANGILE BAT IDENTIFIKATU ZUEN GIDARI GISA, BAINA HARK UKATU EGITEN DU.	41
ERREG. ZK.: 2191/15 BAHITURA. TRAFIKO-ISUNA.	43
C) BITARTEKARITZA	44
ERREG. ZK.: 2012/14 KALTEAK MONUMENTUAN. ORDAINKETA-ERREKERIMENDUA.	44
ERREG. ZK.: 2123/14 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA	45
ERREG. ZK.: 2173/15 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA	47
ERREG. ZK.: 2202/15 GAINBALIOA.JARAUNTSIA. JAKINARAZPEN AKASTUNA	48
ERREG. ZK.: 2207/15 ISUNA. ARAU-HAUSTEA, UDALTZAINGOAK ESKATUTA.	49
D) ORIENTAZIOA	49
ERREG. ZK.: 2187/15 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA.	49
ERREG. ZK.: 2200/15 APARKATZEKO TXARTELA DESGAITASUNEN BAT DUTENENTZAT. INDARRALDIA.	50
ERREG. ZK.: 2201/15 GAINBALIOA. KATASTRO-BALIOAK	51
ERREG. ZK.: 2206/15 GAINBALIOA.JARAUNTSIA	51
ERREG. ZK.: 2231/15 GAINBALIOA. KATASTRO-BALIOAK.	52
ERREG. ZK.: 2234/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA.	52
ERREG. ZK.: 2245/15 ISUNAK. KAUDIMENGABEZIA.	53
ERREG. ZK.: 2271/15 GAINBALIOA. JARAUNTSIA ETA SALMENTA.	53
E) IDAZKI LAGUNDUA	53
ERREG. ZK.: 2041/14 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN LIKIDAZIOA BERRIKUSTEA.	53
ERREG. ZK.: 2149/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. ERORKETA, LAUZEN EGOERA TXARRAGATIK. BIDEOZAINZTA-KAMEREK GRABATUA.	54
ERREG. ZK.: 2175/15 ZABOR-TASA. ERREKLAMAZIOA, EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA DELA ETA.	54
ERREG. ZK.: 2179/15 ORDAINKETA ZATIKATZEA. ISUNAK ETA ZERGAK.	55
ERREG. ZK.: 2198/15 BAHITURA TRAFIKO-ISUNAREN ZORRAGATIK.	55
ERREG. ZK.: 2239/15 ISUNA MUGIKORRETIK HITZ EGITEAGATIK ETA GIDARIA EZ IDENTIFIKATZEAGATIK.	56
ERREG. ZK.: 2267/15 ISUNA. BIGARREN ILARAKO APARKAMENDUA.	56
F) EZESPENA	56
ERREG. ZK.: 2089/14 TAO ISUNA, EGOILIARRENTZAKO EREMUAN.	56
ERREG. ZK.: 2104/14 GAINBALIOA. JARAUNTSIA	57
ERREG. ZK.: 2108/14 GAINBALIOA. JARAUNTSIA	58
ERREG. ZK.: 2135/15 TRAFIKO-ISUNA. JAKINARAZPENA.	58
ERREG. ZK.: 2137/15 BAHIKETA, ZIGORRA EZ ORDAINTZEAGATIK.	59
ERREG. ZK.: 2138/15 TRAFIKO-ISUNA. JAKINARAZPENA.	60
ERREG. ZK.: 2140/15 ISUNA, BAHIKETAREKIN, ZAMALANETARAKO EREMUAN.	61
ERREG. ZK.: 2159/15 ISUNA. EZINDUENTZAKO EREMUAN APARKATZEA.	62
ERREG. ZK.: 2170/15 ISUNA KARGA ETA DESKARGARAKO EREMUAN APARKATZEAGATIK.	63
ERREG. ZK.: 2174/15 ISUNA. PASABIDE IRAUNGIAN APARKATZEA.	64
ERREG. ZK.: 2186/15 ISUNA KARGA ETA DESKARGARAKO EREMUAN APARKATZEAGATIK.	64
ERREG. ZK.: 2264/15 GAINBALIOA. LIKIDAZIOA BOE SALDU DEN KASUAN.	65
G) BIDERATZEA	66
ERREG. ZK.: 2126/14 DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA. BAHIKETA	66

H) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)	67
ERREG. ZK.: 2060/14 ERABILTZAILEAK ITXIA. ZABOR-TASA, ELIZA ETA PARROKIA-LOKALETAN.	67
ERREG. ZK.: 2151/15 IRAUNGIPENA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA.	67
ERREG. ZK.: 2277/15 ERABILTZAILEAK ITXITA. GAINBALIOA. ERREKARGUEN ETA BERANDUTZE-INTERESEN ITZULKETA.	67
03.4 Ingurumenaren eta Osasun Plublikoaren Saila	68
A) GOMENDIOA	68
ERREG. ZK.: 1981/13 ZARATAK ETA ERAGOZPENAK ZUMAIA PLAZAN.	68
B) BITARTEKARITZA	70
ERREG. ZK.: 2080/14 ZABOR-BILKETARAKO KAMIOIEK ERAGINDAKO ZARATA.	70
ERREG. ZK.: 2096/14 UDAL ERRAZTATZE-MAKINEN ZARATAK.	72
ERREG. ZK.: 2112/14 BIZILAGUNEN ARTEKO GATAZKA. FUTBOLEAN JOLASTEAK ERAGINDAKO ARAZOAK.	73
ERREG. ZK.: 2155/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. HILERRIKO UDAL ZERBITZUEK NITXOKO PLAKA ETA IDULKIA HAUTSI IZANA.	74
ERREG. ZK.: 2161/15 ZARATAK. PUB BATERAKO LIZENTZIA.	74
ERREG. ZK.: 2169/15 INGURUMEN SAILAREN ERANTZUNIK EZA, PRODUKTU USAIN-EMAILEAK ERABILTZEAGATIK JARRITAKO ERREKLAMAZIOA DELA ETA.	75
ERREG. ZK.: 2183/15 PASABIDEA. BEHIN BETIKO BAJA ESKAERA.	76
ERREG. ZK.: 2223/15 ARBOLADIA. ADARRAK ERORTZEKO ARRISKUA.	76
ERREG. ZK.: 2235/15 UDALEKO ERRAZTATZAILEEN ZARATAK.	77
C) ORIENTAZIOA	78
ERREG. ZK.: 2066/14 FATXADA GARBITZEKO ERREKERIMENDUAK BETETZEA.	78
ERREG. ZK.: 2129/14 ERRAZTATZEKO MAKINEN ZARATA	78
ERREG. ZK.: 2131/15 ZAPATARI KALEKO GARBIKETA.	79
ERREG. ZK.: 2143/15 GAZTEEN LONJAK. BETEBEHARRAK.	80
ERREG. ZK.: 2146/15 GAZTEEN LOKALAK. JABEA.	81
ERREG. ZK.: 2176/15 ARKUPEETAKO GARBIKETA.	81
ERREG. ZK.: 2180/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. OBRAK KOLEKTOREAN.	82
ERREG. ZK.: 2265/15 LOKALA ZARATENGATIK IXTEA. BIZILAGUN BATEN SALAKETA.	83
ERREG. ZK.: 2272/15 GAZTE-LOKALAK. LOKALEKO JABEA.	83
D) IDAZKI LAGUNDUA	84
ERREG. ZK.: 2139/15 ISUNA OSTALARITZAKO ORDUTEGIA EZ BETETZEAGATIK.	84
ERREG. ZK.: 2154/15 GAZTEEN LONJAK. DOSIER ZIGORTZAILEA, LONJA LEGEZTATU GABE EDUKITZEAGATIK.	84
ERREG. ZK.: 2205/15 GAZTE-LOKALAK. ZIGORTZEKO ESPEDIENTEA, LEGEZTATU GABEKO ETXABEAGATIK.	84
E) EZESPENA	85
ERREG. ZK.: 2141/15 IRISGARRITASUNA JABEEN ERKIDEGO BATEAN.	85
ERREG. ZK.: 2232/15 GARBIKETA GABEZIA FLORIDA KALEAN.	86
ERREG. ZK.: 2258/15 UDALEKO ERRAZTATZAILEEN ZARATAK.	86
F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)	87
ERREG. ZK.: 2164/15 KUTXATILA HAUTSIAREN GAINETIK AUTOBUSA PASATZEAK ERAGINDAKO ZARATA.	87
ERREG. ZK.: 2178/15 ANTENAK SIMON BOLIVAR PLAZAKO ERAIKINEAN.	88
ERREG. ZK.: 2090/14 ZARATENGATIK BIZILAGUNEN ARTEAN BITARTEKARITZALANAK EGITEN SAIATZEA.	88
ERREG. ZK.: 2219/15 ARAZOAK AUZOKIDEEN ARTEAN.	89
03.5 Gizarte Politiken Saila	89
A) BITARTEKARITZA	89
ERREG. ZK.: 2167/15 ERROLDA. GATAZKA ERROLDAN ALTA EMATEAN.	89

ERREG. ZK.: 2230/15 GIZARTE BEHAR LARRIETARAKO LAGUNTZAK.	90
B) ORIENTAZIOA	91
ERREG. ZK.: 2240/15 GIZARTE LAGUNTZA. EGOITZA ESKAERA.	91
C) IDAZKI LAGUNDUA	91
ERREG. ZK.: 2063/14 HORTZAK KONPONTZEKO GLL UKATZEA.	91
ERREG. ZK.: 2199/15 GIZARTE LAGUNTZAK JASOTZEA GALARAZTEN DUEN ERROLDAKO BAJA.	91
03.6 Herritarren Segurtasunaren Saila	92
A) OFIZIOZKO GOMENDIOA	92
ERREG. ZK.: 68/14 ESPAZIO PUBLIKOAN IBILGAILU MOTORDUNAK ETA ZIKLOMOTORRAK ERAKUSGAI JARRI ETA SALTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA DELA ETA.	92
ERREG. ZK.: 69/14 UDAL GARABIAK IBILGAILUA KALETIK KENDU AURREKO ABISUA.	94
B) GOMENDIOA	97
ERREG. ZK.: 2099/14 ISUNA ZEBRA-BIDEA EZ ERRESPETATZEAGATIK.	97
C) BITARTEKARITZA	100
ERREG. ZK.: 2136/15 MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKUTXARTELA.	100
ERREG. ZK.: 2215/15 ARRAZOIBIDEAK UDALTZAINGOAREN ATESTATUARI, HARRAPATZE BATI BURUZKOA HORI.	100
ERREG. ZK.: 2237/15 ETA 2249/15 APARKAMENDUA. SEGURTASUN JURIDIKORIK EZA FRANCISCO TOMAS Y VALIENTE KALEAN (EHUKO KANPUSA).	101
D) ORIENTAZIOA	102
ERREG. ZK.: 2043/14 ZERGA-POLIGONOA ATXIKITZEA ETA ZERBITZUEN KEXA.	102
ERREG. ZK.: 2144/15 SALAKETA, GIDABAIMENIK GABE GIDATZEAGATIK. ALKOHOLEMIA-PROBA.	103
ERREG. ZK.: 2147/15 ISUNA, GAIZKI APARKATZEAGATIK.	103
ERREG. ZK.: 2156/15 ADIN TXIKIKOEN ARTEKO GATAZKA.	104
ERREG. ZK.: 2222/15 ISUNA. APARKAMENDUA.	104
ERREG. ZK.: 2251/15 ISUNAK. APARKAMENDUA.	105
ERREG. ZK.: 2278/15 APARKAMENDU ISUNA. ARAU-HAUSTEAREN KALIFIKAZIOA	106
E) IDAZKI LAGUNDUA	107
ERREG. ZK.: 2218/15 UDALTZAINGOAREN TRATU EZEGOKIA.	107
F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)	107
ERREG. ZK.: 2109/14 ARAZOAK ETXEBIZITZA BATEAN PROSTITUZIOAGATIK.	107
03.7 Hirigintza Saila	108
A) GOMENDIOA	108
ERREG. ZK.: 2078/14 BERE DENDAN ERAGINDAKO KALTEAK, HORMA BAT ERAIKITZEAGATIK.	108
B) BITARTEKARITZA	110
ERREG. ZK.: 2035/14 EGITURAZKO ARAZOA ERAIKIN BATEAN.	110
ERREG. ZK.: 2113/14 GATAZKA LOKAL BATEN KALIFIKAZIOAREKIN.	111
ERREG. ZK.: 2162/15 PLAN PARTZIALAREN PROIEKTUAREN IZAPIDEAK ETETEA.	112
ERREG. ZK.: 2216/15 ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA.	113
C) ARTEKARITZA	113
ERREG. ZK.: 2097/14 OBRAGATIK LOKALA DESJABETZEA.	114
D) ORIENTAZIOA	114
ERREG. ZK.: 2152/15 LOKALA DESJABETZEA IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBRENGATIK.	115
ERREG. ZK.: 2210/15 IGOGAILUA ZERO KOTAN. ERAGINDAKO LOKALA.	115
ERREG. ZK.: 2220/15 ATARIAN IRISGARRITASUN OBRAK EGITEKO LIZENTZIA.	116
ERREG. ZK.: 2227/15 IGOGAILUA ZERO KOTARA, ERAGINDAKO ETXABEAN.	117

E) EZESPENA	117
ERREG. ZK.: 2084/14 HIRIGINTZA-ARAUDIARI BURUZKO DOSIERRAREN ISUNAGATIK KONTUA BAHITZEA.	117
ERREG. ZK.: 2194/15 BAHITURA. LIZENTZIARIK GABEKO OBRAK.	118
F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)	119
ERREG. ZK.: 1939/13 EGOERA TXARREAN DAGOEN HIGIEZIN BATEN MANTENTZE-LANAK.	119
03.8 Erakunde Autonomoak	120
03.8.1 AMVISA	120
A) BITARTEKARITZA	120
ERREG. ZK.: 2110/14 AMVISA. EGON LITEZKEEN IHESALDIK.	120
03.8.2 ENSANCHE 21	122
A) BITARTEKARITZA	122
ERREG. ZK.: 1991/14 HIGIEZINAK HONDATUTA, BARNEKALE BERRIAN.	122
ERREG. ZK.: 2120/14 OBRA HIGIEZINEAN.	122
ERREG. ZK.: 2214/15 OLARIZU BERRITZEKO PLANAREN ONDORIOZ ORDEZKO ETXEBIZITZA EMATEA. ATZERAPENA KONTRATUA SINATZEKO UNEAN.	123
03.8.3 TUVISA	124
A) GOMENDIOA	124
ERREG. ZK.: 2003/14 BAT TXARTELA. HOBARI GABEZIA TRANBIAREKIN EGINDAKO GARRAIO ALDAKETETAN.	124
ERREG. ZK.: 2172/15 KALTEAK IBILGAILU BATEAN, MOLINUEVO PARKINEKO ITOGINEK ERAGINDA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA.	126
B) ORIENTAZIOA	130
ERREG. ZK.: 2172/15. TUVISA. ZERBITZUAK OKERRERA EGIN IZANA LINEA BERRIEKIN.	130
C) EZESPENA	131
ERREG. ZK.: 2185/15 TUVISA. HOBARIAK.	131
ERREG. ZK.: 2224/15 ARBOLADIA. ADARRAK ERORTZEKO ARRISKUA.	131
03.9 BESTELAKO ENPRESAK ETA ERAKUNDEAK	132
A) IDAZKI LAGUNDUA	132
ERREG. ZK.: 2244/15 DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA. PRESTAZIOA ESKATZEKO BETEKIZUNAK.	132
04 KONTSULTAK	133
05 IZAPIDETZEN ARI GAREN DOSIERRAK	138
06 JARDUERA NABARMENAK	142
TUVISAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA	142
ERDI AROKO HIRIGUNEKO PLATAFORMA, AISIALDIA ETA BIZILAGUNEN ATSEDENA BATERAGARRI EGITEKO	143
07 GASTEIZKO UDALAREKIKO HARREMANAK	146
07.1 UDALBATZAREN BILKURETARA JOATEA	146
07.2 BATZORDEETARA JOATEA	147
07.3 PARTE-HARTZE ORGANOETARA JOATEA	147
LURRALDE-KONTSEILUAK	147
SEKTORE-KONTSEILUAK	148
07.4 BESTELAKO BILKURAK: ZINEGOTZIEKIN, SAILEKIN...	148
08 BESTE JARDUERA BATZUK	150
08.1 HIZLARI	150

08.2	GONBIDATUTA	151
08.3	BESTE SINDIKOEKIN EGINDAKO BILERAK	152
08.4	BISITALDI ETA IKUSKAPEN JARDUERAK	153
08.5	TALDE ETA ELKARTEEKIN EGINDAKO BILERAK	153
08.6	GASTEIZTXO PROGRAMA	154
09	ZERBITZUAREN EBALUAZIOA, HERRITARREN ALDETIK	155
10	2015EKO EKITALDIKO KEXA ETA KONTSULTEN ANALISI ESTATISTIKOA	157
10.1	KEXA KOPURUA, HILEKO	159
10.2	JASOTAKO KEXA-KOPURUA, GASTEIZKO AUZOEN ARABERA	160
10.3	JASOTAKO KEXA KOPURUA, ERABILTZAILEEN SEXUAREN ARABERA	161
10.4	JASOTAKO KEXEI IRTENBIDEA EMATEKO GASTEIZKO UDALEKO SAILEI BIDALITAKO EBAZPENAK	162
10.5	GASTEIZKO UDALAK ONARTU DITUEN GOMENDIOAK ETA ONARTU EZ DITUENAK	165
10.6	DOSIERREN EGOERA OROKORRA	165
11	AGERPENAK, HEDABIDEETAN ETA SARE SOZIALETAN	167
11.1	IRRATIA	167
11.2	TELEBISTA	168
11.3	PRENTSA IDATZIA	168

01

MARTIN GARTZIANDIA GASTEIZKO SINDIKOAREN HITZ BATZUK

Hona hemen Sindiko-Herritarren Defendatzailearen bulegoak 2015ean zehar izan duen jardueraren oroitidazkia. Kargu honen jabe egin nintzen egunetik, zenbait helburu markatu nituen, argi eta garbi. Lehenik eta behin, zerbitzu honen bulegoa kale ertzean egotea nahi nuen, herritarrengandik ahalik eta hurbilen, noiznahi eta batere oztoporik gabe iristeko moduko toki batean. Bestetik, herritarren artean erreferentzia garrantzitsua izatea nahi nuen, gure langintza ezagun izan zedila eta hartu-emanak ahalik eta zuzenenak izatea, alferrikako bitartekaritarik gabe. Gure zerbitzua besteengandik bereiziko bazen, hurbiltasunak egingo zuen berezi, arreta pertsonalizatuak, entzute aktiboak eta inplikazioak.

Ordutik hona hiru urte baino gehiago pasa dira, eta uste dut gure zerbitzuak denbora honetan zehar izan duen bilakaeraz balantze bat egiteko moduan garela. Alde horretatik, kontent egoteko arrazoiak ez ditugu falta, gure helburuak betetzen ari direla uste baitugu. 2015eko urtean zehar 2659 gertakariri erantzun diogu. Halakotzat hartzen dira bai bulegoan egiten ditugun zuzeneko arretak, bai telefonoz, emailez, faxez, posta arruntaz edo sare sozialetatik egiten ditugunak. 2014koekin alderatuta, gertakariok %9,3 hazi dira eta, nolabait esateko, herritarrekin nahiz udal zerbitzuekin edo kanpoko bestelako eragileekin ditugun hartu-emanen maila adierazten dute.

Baina, datu zehatzagoetara jotzen badugu, urte honetan zehar landu ditugun gaietara, alegia, oso adierazgarria da gure langintzak izan duen igoera, alde guztietatik ikusita ere. Hala, 2015ean irekitako espedienteen kopurua %23,85 handitu zen 2014ko kexa-espedienteekin konparatuta, eta hazkundera %34,17koa izan da 2013ko kopuruekin alderatuta. Hau da, planteatzen zaizkigun kasuen kopurua nabarmen igo bakarrik ez, baizik eta hazkunde hori areagotu egin da azken urtean.

Jakina, posible da ere bestelako interpretazio bat egitea, hau da, kasuen hazkunde honen arrazoia dela Vitoria-Gasteizko Udalaren okerreko praktikak ugaritu egin direla, baina guk lehenengo arrazoiaren alde egiten dugu, hau da, gure zerbitzuak herritarrengan duen ezarpen handiago dagoela hazkunde honen oinarrian.

Urte honetan zehar bereziki pozgarri izan zaigun gai bat nabarmendu behar bagenu, aipatuko genuke konpondu dela behingoz, eta atzerako eraginez gainera, *ordainketan emateen* eta haiei ezartzen zitzaien *plusbalio* zergaren arazoa, aspaldi salatzen ari ginena. Kontua zen pertsona edo familia batek hipoteka ordaindu ezin eta etxea banketxeari ematen zionean (“ordainketan eman”), Udalak, arauak behin eta birritan aldatu ziren arren, azkenean kaleratutako pertsona edo familiari kobratzen ziola *Hiri Lurren Balioaren Hazkundeagatiko Zerga*. 2012az geroztik, zerga hau ez da ordaintzen utzarazpen judiziala egiten denean, baina bai ordea etxea ordainketan ematen zenean. Estatuko gainerako erkidegoetan 8/2014 Errege Dekretu Legea, uztailaren 4koa dago indarrean. Arau honek plusbalioa ordaintzetik salbuetsi egiten ditu *ordainketan emate* kasuak, baina estatuaren araudi horrek ez du indarririk hiru lurralde historikoetan.

Arazo hau behin eta berriro mahai gainean jarri genuen Sindikoaren Bulegotik, gomendioen bitartez, eta eskura genituen baliabide guztiekin. Lehenik, lortu genuen Udalak zerga honen likidazioak etetea, harik eta argitu arte ea foru araudian gureru ekarriko ote zen estatuko salbuespen hori bera. 2015eko abenduaren 30ean, azkenik, 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa, onartu zuten Batzar Nagusiek, eta haren bitartez, Arabara ekarri zen estatuko araudian indarrean zegoen salbuespena. Kasualitatea izan ala ez, kontua da Bizkaian eta Gipuzkoan, gure Sindikotzaren antzeko erakunderik ez dutelarik, indarrean jarraitzen duela aurreko araudiak, hau da, ez dago indarrean hain zentzuzkoa den zerga-salbuespen hori.

Baina horrez gainera, urte honetan zehar *plusbalioak* zerga polemikoa izaten jarraitu du, eta espediente zein kontsulta gehien eragin dituena. Izan ere, ez datoz bat, urrik ere, zerga kalkulatzeko erabiltzen diren balio katastralak eta etxebizitzaren merkatuko prezioak. Balio katastralak askotan merkatuko prezioak baino handiagoak izaten dira, legeak halakorik galarazten duen arren. Berriki, Vitoria-Gasteizko epaitegi batek inkonstituzionalitate-arazo bat planteatu dio Konstituzio Auzitegiari, plusbalio zerga arautzen duen Foru Arauaren zenbait artikuluren aurka. Errekurtso horren argudioa da foru arau horrek zergapetzen

duen balio-hazkundera ez dela egiazkoa, ez dagoela horrelakorik eta, gainera, subjektu pasiboak ez duela kontrakoa frogatzeko aukerarik. Ikusiko dugu zer ematen duen errekurso honek.

Baina zergekin eta ogasunarekin zer ikusia duten kontuez gainera, isunak ere kexa eta erreklamazioen iturri izan ohi dira herritarren artean. Urtean zehar zenbait gomendio eman ditugu trafikoko isun batzuk indargabetu daitezzen, dela tramitazio okerragatik, unean jakinarazi ez diren salaketengatik, etab. Gomendio horietako gehienak onartuak izan ziren, eta isunak deusezturik. Halaber, salatu genuen "Espazio Publikoan Ibilgailuak Erakutsi eta Saltzeari buruzko Ordenantza"k jasotzen dituen isunak desproporzionalak direla (751 €), udalari baimena eskatu gabe beren kotxea salgai jartzen duten koitaduentzat. Benetan ibilgailuen salmentako negozio klandestinoak dutenentzat, ordenantzak isun oso *larria* aurreikusten du (1.500 €), baina, paradoxikoki, orain arte ez da horrelako isun bat ere jarri. Ondorioa da despistatuek ordaintzen dutela, araua ezagutzen ez dutenek, seguruenik beren jarduera klandestinoarekin segitzeko modurik topatu duten horien ordeez.

Gainera, 2015ean proposamen bat egin genion Udalari, gaizki aparkaturik dagoen ibilgailu bat garabiak eraman baino lehen, isuna jarrita ere, ibilgailuaren jabeari abisu eman dakiola, garabia heldu baino lehen ibilgailua kentzeko aukera emanaz. Izan ere, Gasteizko garabiaren tasa Espainiako altuenetakoa da (140,89 euro). Neurri hau ez da berria, eta administrazioaren zein herritarren artean sortu behar diren harreman mota berrien isla izango litzateke. Hirian egon daitezkeen inefizientzien edo kalteen berri ematerakoan Administrazioak herritarron laguntza eskatzen duen modu berean, arrazoizkoa dirudi Administrazioak ere lankidetzara hori bera eskaintzea guri, ekidin daitezkeen kalte bat eragin baino lehenago.

2015 honetan zaraten inguruko kexa gehiago jaso genituen, batez ere Udalaren erraztatzeako makina zaharkituek eta zabor bilketako kamioiek egiten duten (edo zuten) zarata zela eta, askotan ordu txikietan, herritarrei enbarazuak sortaraziz. Espero dezagun kontrata berriak ezartzen duen ibilgailuen flota berriarekin egoera hobera egingo duela nabarmen.

Horrez gainera, urte honetan Ordenantza Fiskalak hobetzeko ekarpen-dokumentu bat egin genuen, gure ustez badira araudian zuzendu beharreko zenbait gauza. Kontu teknikoak dira, zenbait kasutan gaizki planteaturikoak, eta bestetan zuzenean legearen kontrakoak direnak, hala nola informazioa eskuratzeko eskubidea dohainik izan behar dela, herritarrak atzera botako dituen tasarik ezarri gabe.

Beste urte batez onartzeke dago gazte lonjen araudia. Zenbait pertsona gugana hurbildu ziren gazte lonjak legera ekartzeko zein baldintza bete behar diren jakin nahirik, eta udalak ematen dien erantzuna, benetan etsipengarria da. Araudia hain da zabala eta zorrotza, ezen zinez zaila baita lokal hauek legalizatzea.

Azkenik, erreklamazio eta kontsulta gehien eragin dituen gaietako bat izan da igogailua 0 kotara ekartzeko obren kostua ordaindu behar duten lokalen jabeena. Zenbaitetan beren lokalen zati baten desjabetzea ere tartean dela. Jabe hauen azalpenetako batzuk benetan dramatikoak izan dira. Eraikinak irisgarri izatea interes sozialeko helburu bat da, eta horregatik da arrazoizkoa botere publikoek esku sartzea irisgarritasuna lortzeko bitartekoak ezartzeko bide horretan, baina ez da bidezkoa legeak lokalen jabeen bizkar uztea obra horien zati handi bat ordaintzeko obligazioa, jabe-komunitateen kide izanda ere, inoiz ez baitute igogailua erabiliko, gehienetan portaleko giltza ere ez baitute. Jabetza Horizontaleko Legeak ezerezean uzten du lokal jabeen negoziazio-ahalmena. Horregatik, uste dugu instalazio hauei ematen zaizkien dirulaguntzek bizilagun eta lokalen arteko akordioak saritu beharko lituzketela, dirulaguntza gehiago emanez alde guztiek izenpeturiko akordioa dagoenean.

Baina, hauez gainera, 2015an beste hainbat kontu iritsi ziren Sindikoaren bulegora. Horiek denak ezagutzeko gonbitea egiten dizuegu, orain aurkezten dizuedan oroit-idazki honetan.

Martin Gartzandia
Vitoria-Gasteizko Sindikoa-Herritarren Defendatzailea

02

TXOSTEN BEREZIAK

Garrantzi berezia duten gaiak jorratzen dira txosten berezi horietan, gasteiztarren artean interes handia piztu duten zenbait kontu, eta hainbat proposamen egiten zaizkio bertan Udalari, beraren zerbitzuak hobetzen laguntzera bideratutako proposamenak, esan bezala. Oroitidazkiak hartzen duen denbora tartean, 2015eko urtarriletik abendura bitartean, txosten bat egin genuen, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 1.etik indarrean egongo ziren ordenantza fiskal eta prezio publikoen proiektua onetsi ondoren. Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak udal talde politiko guztien aurrean azaldu zuelarik onetsitako testua Ogasun Batzordean, zuzenketak aurkezteko epea zabaldu zen, urriaren 28ra arte. Aldi berean, ordenantza fiskalen proiektuak publiko egitea erabaki zuen udal-gobernuak, baita horiek izapidetzeko egutegia ere, eta herritarrek egokitzat jotzen zituzten ekarpen eta iradokizunak egiteko epea zabaldu zuen, hori ere urriaren 28ra artekoa, behin-behineko onespena eman ondoren herritarrei alegazioak aurkezteko ematen zaien epea gorabehera.

Hori zela eta, agiri bat landu genuen, azken urteotan hainbat kexa eta erreklamazio aurkeztea ekarri duten ordenantza fiskalen zenbait alderdi nabarmentzeko, gure ustez emaitza bidegabeak, ezberdinak edo goragoko mailako araudiaren kontrakoak ekar baitzitzaketen horiek.

ERREG. ZK.: 70/15 EKARPENAK, ORDENANTZA FISKALAK ZIRELA ETA

Puntu hauetan zertu ziren gure ekarpenak:

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Hainbat kontsulta eta erreklamazio jaso izan ditugu herritarrengandik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren inguruan, beste titular batzuekin batera ondasun higiezin baten jabe izanik zerga horren ordainagiri osoa jaulki zitzaiela eta —bakoitzaren titulartasunaren ehunekoa aintzat hartu gabe—.

2014ra arte, zerga-egitatean bi titular edo gehiago batera egokitzen zirelarik, titular bakoitzak zegokion titulartasun-ehunekoa araberako zor osoaren zenbatekoa kontura ematea onartzen zen. Zehazki, 28. artikuluko 1. paragrafoan honela zegoen jasota:

"Zerga-egitatean bi titular edo gehiago batera egokitzen direneko ondasun higiezinaren kasuan, titular bakoitzak higiezin horren gainean dagokion titulartasun-ehunekoa araberako zor osoaren zenbatekoa kontura ematea onartuko da".

Nolanahi ere, urte horretan aldaketa bat sartu zen artikuluko horretan, zeinaren arabera, jabe bakoitzaren titulartasunaren arabera zatika ordaintzerik izatekotan, hainbat betebeharrak bete behar diren:

- Ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbideak ematea.
- Zerga-egitatearen titular guztien arteko adostasuna.
- Titular guztien banku-kontuak ematea.
- Kuota-zati bakoitzak gutxienez 9 eurokoa izan behar.
- Ondasun higiezinaren zerga-oinarriak 60.000 eurotik gorakoa izan behar du.

Horrek zenbaitetan berekin dakar Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiria modu aleatorioan aukeratutako titular bakar bati jaulkitzea, eta hark erreklamatu behar izatea gainerako titularrei, baita bide judizialek ere, ordaintzea dagokien parte. Hartara, administrazioaren diru-biltzaile bihurtzen da, baina hari dagozkion eskumen eta ahalmenik gabe —premiamendua, bahitura eta abar—.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35.6 artikuluan bakarrik aipatzen du betebeharrak hainbat zergapekori dagokienerako kasua: *"Betebeharrak batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiote, foru arau batek berariaz besterik xedatu ezean. Foru arau bidez aurreko paragrafoan aurreikusitakoez gainerako beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira".* Nolanahi ere, ez da besterik arautzen, eta, horrenbestez, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 35.7 artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutako aplikatu beharra dago: *"(...) Cuando la Administración sólo conozca la identidad de un titular practicará y notificará las liquidaciones tributarias a nombre del mismo, quien vendrá*

obligado a satisfacerlas si no solicita su división. A tal efecto, para que proceda la división será indispensable que el solicitante facilite los datos personales y el domicilio de los restantes obligados al pago, así como la proporción en que cada uno de ellos participe en el dominio o derecho transmitido”.

Horretatik ondorioztatzen da ezen, titular bakarrari likidatzea bidezko dela soil-soilik gainerako subjektu pasiboen identitatea jakiterik ez dagoenean, eta, beraz, ez dela komenigarria Administrazioa ordaintzera behartuta dauden guztien eta bakoitzaren identitatearen jakinaren gainean dagoenean, baita bakoitzari dagokion proportzioaren jakinaren gainean ere, halakoetan banatu egin beharko baita likidazioa, eta bakoitzari dagokion parte eskatu, eta ez besterik.

Zerga Lokalen Zuzendariorde Nagusiaren 2013ko maiatzaren 10eko V1577-13 kontsulta lotesleak Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1996ko otsailaren 7ko epaia aipatzen du, zeinek, dagoeneko indargabetuta dagoen Zergei buruzko abenduaren 28ko 230/1963 Lege Orokorren 34. artikulua dela — zeinen edukia egungo ZLOren 35.7 artikulua erreproduzitzen baitu—, hau adierazten baitu:

“Por consiguiente es aplicable el artículo 34 de la LGT que dispone que la concurrencia de dos o más titulares en el hecho imponible determinará que queden solidariamente obligados frente a la Hacienda Pública, salvo que la Ley reguladora de cada tributo dispusiere lo contrario. Lo cual supone que la Administración de acuerdo con el art. 1144 CC, pueda exigir la totalidad de la deuda tributaria a cualquiera de los deudores solidarios o a todos ellos simultáneamente, o incluso exigir a cada uno su parte.

Sin embargo, la elección discrecional de cualquiera de dichas posibilidades debe obedecer a razones justificadas y no a mera arbitrariedad. Con lo que es evidente que no basta la mera comodidad de la Administración si de ella se deriva un resultado injusto para uno de dichos propietarios”.

Are gehiago, jabeak erantzule solidarioak dira (Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren 19.2 artikulua): "Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren erakundeetako jabeak edo titularkideek modu solidarioan erantzuten diete Zergaren kuotari, beren partaidetzen proportzioan; horretarako, higiezinaren katastroan hala azaldu behar dute. Katastro horretan azaltzen ez badira, erantzukizuna zati berdinetan eskatuko da".

Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorren arabera, berriazko prozedura bat dago zerga izaera solidarioarekin ordaintzera behartuaren kontra zuzentzeko, zerga ordaintzera behartuakoren batek bere betebeharrei aurre egiten ez dienerako:

"60. artikulua.- Erantzule solidarioak

1.- *Legeek aurreikusita dauzkaten erantzukizun solidarioko kasuetan, borondatezko aldia igaro bada eta zordun nagusiak ez badu zorra ordaindu, bere erantzukizunari kalterik egin gabe, erantzule solidarioei zor hori ordain dezatela eskatu ahal izango zaie.*

2.- *Erantzukizun solidarioak zerga-zorraren osagai guztiak hartzen ditu, diru-zehapenak izan ezik.*

61. artikulua.- Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura

1.- *Ordaintzeko borondatezko aldia igaro eta gero, Diru Bilketarako Zerbitzuaren Buruak espediente bat prestatuko du eta horretan oinarrituta, Diruzainak Zinegotzi-ordezkaritari proposatu egingo dio erantzukizun solidarioa dakarren egintza burutu dezala.*

2.- *Diru Bilketarako Zerbitzutik erantzukizuna eratorri baino lehen, hamabost egun iraungo duen entzunaldiaren hasieraren berri emango zaio erantzuleari eta aldi horretan doakienek arrazoibideak azaltzeko eta egoki deritzen agiriak aurkezteko modua izango dute.*

Erantzukizuna eratortzeko administrazio-egintzen jakinarazpenean agertu egin beharko dira likidazioaren funtsezko elementuak, aurka egiteko bideak eta zor den kantitatea, ordaindu beharreko lekua, epea eta modua.

Dirua sartzeko emandako borondatezko aldia igaro eta gero, ez badu ordainketarik egiten, Ordenantza honetako 71. artikuluan aipatzen den gainordainera zabalduko da erantzukizuna automatikoki eta zorra premiamendu bidez eskatuko zaio orduan.

3.- *Zordun nagusi baten edo erantzule solidario baten aurka zuzendutako ekintzek ez dituzte galaraziko, ordaintzera behartuta dauden gainerakoek aurka burutu daitezkeen beste ekintzak, harik eta zorra erabat ordaintzen ez den arte."*

Hau da, OHZren urteko ordainagiriaren zenbateko osoa jabekideetako bati kobratzen zaiolarik, lege aurreikusitako prozedura saihesten da, beste jabekide batek ordaindu ez duen ordainagiriaren parte bakarrik erreklamatu ahal baitzaie jabekide edo erantzule solidarioei, borondatezko ordainketarako epea bukatu eta erantzukizun solidarioa besteri leporatzeko egintza eman ondoren.

Horrenbestez, hau PROPOSATZEN DUGU:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren 28. artikuluan testua alda dadila, hartara, higiezinak hainbat jabekide baditu, titular bakoitzari aukera eman dakion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiria bere titulartasunarekiko proportzioan ordaintzeko, eta, beraz, 2013ko abenduaren 31ra arte indarrean zegoen testua har dadila berriro:

"Zerga-egitatean bi titular edo gehiago batera egokitzen direneko ondasun higiezinaren kasuan, titular bakoitzak higiezin horren gainean dagokion titulartasun-ehunekoaren arabera zor osoaren zenbatekoa kontura ematea onartuko da".

2.- HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren urriaren 13ko 793/2004 Erabakiaren bitartez, Gasteizko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruen eta eraikinen balioztapen txostena onetsi zen.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 8.1. artikulua arabera, zortzi urtean behin berrikusi behar dira katastro-balioak, nahiz eta, foru-arau beraren 12. artikulua arabera,

"Katastro-balioak Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz, Udalak hala eskatuta, hirigintzarako planeamenduak edo beste zirkunstantziaren batek agerian jartzen duen alde nabarmenak daudela horien eta udal mugartean edo bertako zona batean edo batzuetan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko balioen artean".

Esan beharra dago, oker egoteko beldurrik gabe, bi baldintza horiek bete direla dagoeneko. Epe-kontu huts batengatik, katastro-balioak 2013an eguneratu behar ziren, baina higiezinaren merkatuko zirkunstantziak aintzat hartuz gero, segur aski balio horiek are lehenago berriro beharrekoak ziren, batez ere kontuan izanik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 6.2 artikuluan jasotzen den araua, zeinen arabera katastro-balioek inolaz ere ezin dituzten gainditu merkatuko balioak. Azken urteotan hainbat lekukotasun jaso ditugu Sindikoaren Bulegoan, muga hori urratu egin dela erakusten dutenak.

Erakunde honen esperientziari dagokionez, Gasteizko herritarren kexa eta erreklamazio ugari ekarri ditu katastro-balioak ez eguneratu izanak, bereziki Hiri lurren Balio-gehikuntzaren Zergari dagokionez — hainbat bider izan dugu aztergai zerga hori, eta hainbat gomendio eman izan ditugu horren inguruan azken urteotan—.

Halakoetan horrek duen eragin berezia, nagusiki, honen ondorio da: kasu askotan, higiezin bat eskualdatzen delarik, ez dago esaterik eskuz aldatzen diren lurzoruen balioak inongo igoera edo plusbaliorik izan duenik, baizik eta alderantziz, eta, hala ere, zergaren zenbatekoak benetan handiak izan ohi dira, hainbat mila eurokoak.

Hainbat aldiz galdu izan diogu udal-gobernuari Arabako Foru Aldundiri eska diezaiola izaera orokorarekin berrikusi ditzala katastro-balioak. Foru-administrazioetik iristen diren berriek diote Balioen Txosten berri bat lantzen ari direla, baina ez dakitela zein izango diren horiek indarrean jartzeko aurreikus daitezkeen epeak.

Beraz, uste dugu Udalak neurri fiskalen bat hartu beharko lukeela, bere eskumenen barruan, aukera emango liokeena zenbait herritarri katastro-balioen eta merkatuko prezioen arteko distorsio hori eragiten ari zaizkien ondorio larriak arintzeko, harik eta egoera konpontzen ez den bitartean.

Erreferentziatzen katastro-balio berri batzuk har daitezela, **onetsita egon beharko lukete, eta interesdunei jakinarazita, 2016ko urtarrilaren 1.a baino lehen**. Izan ere:

- Zerga hau likidatzeko zerga-oinarritzat hartzen den balioa *"zerga sortzen den unean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako duten bera izango da"* (ordenantza fiskalaren 8. artikulua).
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga urtarrilaren 1.ean sortzen da, eta, beraz, orduan geratzen da finkatuta zerga-oinarria, zein bat baitator une horretan indarrean dagoen katastro-balioarekin. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren 18. artikulua:

"1. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1.ean sortzen da zerga, eta urte naturalarekin bat egiten du zerga-aldiak".

- Zentzu horretan, bai Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalaren 13. artikuluan, bai Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 11.7. artikuluan, hau esaten da OHZ likidatzeko erreferentziatzen hartu beharreko balioaz:

"Ezarketak argitara ematen diren unetik, horietatik sortzen diren balio katastralen berri banan-banan eman beharko zaie subjektu pasiboari —edo subjektu pasiboa nahiz baimendutako pertsona zehazten diren bulego publikoetara agertzen delarik—, balio horiek ondorioak izan behar dituztenekoaren aurreko urtea amaitu aurretik".

Ondorioz, katastro-balio berriak 2016ko urtarrilaren 1.a baino lehen jakinarazi ezean, hiri-lurreko higiezinaren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga kalkulatzeko erreferentziatzen hartu beharko liratekeen katastro-balioak 2004. urtetik indarrean daudenak lirateke, eta, horrenbestez, merkatuko balioetara egokitu gabe egongo lirateke.

Katastro-balioen neurriaren gaineko balorazioaren ondorioak leuntzeko modu bat zerga kalkulatzeko formula osatzen duten faktoreetako bat moldatzea litzateke:

Zerga-oinarria: (katastro balioa) x (urteak, azken eskualdaketatik; gehienez 20) x (igarotako urteen arabera aplikatu daitezkeen portzentajea)

Zerga-oinarri horri % 22,89ko zerga-tasa aplikatzen zaio gaur egun.

Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauaren 5.1. artikulua arabera, zerga-tasa udal bakoitzak finkatzen duena izango da, eta ezingo du izan ehuneko 30etik gorakoa.

Hau da, foru-arauak ez du gutxienerako tasarik ezartzen.

Beraz, bai aplikatzekoak diren portzentajeak aldatuko balira, beherantz, aurreko eskualdaketa egin zenetik igarotako urteen arabera, bai zerga-tasa jaitsiko balitz, leundu ahal izango lirateke zergari aplikatu beharreko katastro-balioak ez eguneratzearen ondorioak.

Horrenbestez, hau PROPOSATZEN DUGU:

Baldin eta ez bada aurreikusten katastro-balioak 2016ko urtarrilaren 1.a baino lehenago indarrean jartzea, ordenantza fiskalean alda daitezela gainbalioaren zerga kalkulatzeko aplikatzen diren faktoreak, gaur egun indarren dauden katastro-balioen neurritz gaineko balioespenaren ondorioak leuntzeko.

3.- 6.14. EPIGRAFEA. TXOSTENAK, ATESTATU-KOPIAK, ARGAZKI-ERREPRODUKZIOAK, FOTOKOPIAK, KARTOGRAFIA-PLANOAK, TOPOGRAFIA-DATUAK ETA ANTZEKOAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.

Irakozkun eta Erreklamazio Batzordeak 2014ko abenduaren 2an egindako bilkuran, Gardentasunari eta Gobernu Onari Buruzko Txosten Berezia aurkeztu genuen Sindikoaren Bulegotik, eta hainbat neurri planteatu genituen bertan, bi helburu horien mesede izan beharko luketenak, hots, udal-administrazioaren gardentasuanren eta gobernu onaren mesede.

Txosten horretan planteatzen ziren neurrien artean, bazen bat ordenantza fiskalei zegokiena, hain zuzen ere 6.14 ordenantzari —Txostenak, atestatu-kopiak, argazki-erreprodukzioak, fotokopiak, kartografia-planoak, topografia-datuak eta antzekoak emateagatik ordaindu beharreko tasak—.

Epigrafe hori zela eta, planteatzen genuen informazio publikoa eskuratzeko eskubideak barru hartzen duela eskatutako informazioa doan eskuratzeko eskubidea, kopiak egiteak edo jatorrizkoaz bestelako formatuetara eramateak berekin dakartzan gastuak gorabehera, baina, nolana ere, asmoa bertan behera uztea ekarriko lukeen kosturik ezarri gabe.

2016rako aurreikusten den ordenantzaren zirriborroa aurreko urtekoaren berdina da, salbu eta kopuruak pixka bat eguneratu direla, gorantz, eta eduki hau du (letra lodia eta azpimarrak gureak dira):

"TARIFAK

Lehen tarifa:

- a) Udaltzaingoaren eta suhiltzaileen interbentzio-parteen **kopiak** ematea, ale bakoitzeko: 25,55 euro.
- b) Atestatu sinplifikatuen **kopiak** ematea, ale bakoitzeko: 45,26 euro.
- c) Sute, istripu, adituen balioespen eta antzekoei buruzko txosten teknikoan **kopiak** ematea, ale bakoitzeko: 102,20 euro.
- d) Garraio berezietarako baimenak ematea, ale bakoitzeko 41,77 euro.
- e) Kirol probak, txirrindularitza saioak eta antzekoak baimentzeko txostenak egitea, ale bakoitzeko 102,20 euro.
- f) Arlo zibileko gaiekin lotuta egiaztapenak egitea eta polizia txostena ematea, partikularrek hala eskatuta 45,27 euro.
- g) Zerbitzua ematea eskatzen duten antzeko jarduerak 45,27 euro.

Beste txosten sinplifikatu, fitxa edo antzeko batzuetan jasotakoak zabalago azaldu edo argitzeko eskatzen badira txosten teknikoak, eta hasierako dokumentu-kopiei zegozkien tasak lehendik ordaindu badira, ordaindutakotik 102,20 eurora arteko aldea bakarrik ordaindu beharko dute eskatzaileek."

Uste dugu a), b) eta c) ataletako tarifak ez direla legezkoak, eta honako arrazoiak hauek ditugu hala dela uste izateko:

Ordenantzak ez du ezartzen dokumentu horien kopiak eskuratzeko norberak prozeduran interesdun izan behar duen, hau da, eskubide edo interes legitimo baten titular kasu horretan, edo edozein herritarrek eska ditzakeen kopiak.

Baldin eta kopia horiek eskatzen dituen interesduna bada, hauek izango dira Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 53.1.a) artikulua araberaz izango dituen eskubideak:

"a) A conocer, en cualquier momento, el estado de la tramitación de los procedimientos en los que tengan la condición de interesados; el sentido del silencio administrativo que corresponda, en caso de que la Administración no dicte ni notifique resolución expresa en plazo; el órgano competente para su instrucción, en su caso, y resolución; y los actos de trámite dictados. Asimismo, también tendrán derecho a acceder y a obtener copia de los documentos contenidos en los citados procedimientos."

Aldiz ez bada beharrezkoa interesduna izatea kopiak eskuratu ahal izateko, ondorioa berbera litzateke. Alde batetik, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikuluan honela dago xedatuta:

"Artículo 13. Derechos de las personas en sus relaciones con las Administraciones Públicas.

d) Al acceso a la información pública, archivos y registros, de acuerdo con lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y el resto del Ordenamiento Jurídico."

Eta, bestetik, uztailaren 9ko 18/2015 Legea aplikatu beharko litzateke, Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatu zuena, zeinek Espainiako zuzenbidera aldatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/37/UE zuzentaraua:

«Artículo 7. Tarifas.

1. Podrá aplicarse una tarifa por el suministro de documentos para su reutilización en las condiciones previstas en la normativa estatal vigente o, en su caso, en la normativa que resulte de aplicación en el ámbito autonómico o local, **limitándose la misma a los costes marginales en que se incurra para su reproducción, puesta a disposición y difusión.** En el caso de las publicaciones oficiales electrónicas con precio de venta al público, se aplicará, al menos, el mismo precio privado de la Administración establecido como precio de venta.

Bai interesdunak badira, bai herritarrak oro har, hau xedatzen da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 22. artikuluan artxibo eta erregistroetara sarbidea edukitzeko eskubidea dela eta:

"22. artikulua. Eskuratzea formalizatzea.

4. Informazioa eskuratzea doanekoa izango da. Hala ere, kopiak emateak edo informazioa jatorrizkotik beste formatu batera eramateak zerbait ordaintzea eskatu beharra ekar dezake, Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legean ezarritako eran edo, hala badagokio, aplikatzekoa den tokiko araudian edo autonomikoan ezarritako eran.

Beraz, bai kopia horiek eskuratzeko interesduna izan beharra badago, bai beharrezkoa ez bada ere, ondorioa berbera da, gure ustez: ezin dira tasa bereziak galdatu Administrazioaren esku dagoen agiri baten kopia eskuratzegatik, besterik gabe, ezpada kopia egiteak berekin dakartzan kostuei aurre egiteko, baina prezio horiek asmoa bertan behera utzarazteko modukoak izan gabe, nolana ere.

Horrelakoetan, laugarren tarifako prezioak aplikatzea bakarrik egongo litzateke justifikatuta, fotokopiei dagozkienak:

"Laugarren tarifa: fotokopiak eta udal intraneteko inprimakiak.

<u>Neurria</u>	<u>Normala</u>	<u>Txikia</u>	<u>Handitua</u>
Din A4	0,18 euro	0,22 euro	0,22 euro
Folia	0,18 euro	0,22 euro	0,22 euro
Din A3	0,28 euro		0,28 euro
Din A3tik gora		1,39 euro/m ²	

Aitzitik, ordenantza fiskaletako 6.14 epigrafeko lehen tarifako h), i) j) eta k) ataletan ageri diren tarifak — ez gara zenbatekoa baloratzen hasiko— bai leudeke justifikatuta, hor administrazioa ez baita mugatzen lehendik dagoen dokumentuaren kopia bat ematera, baizik eta, halakoetan, berariazko zerbitzu bat ematen baita, eta *ex profeso* jaulkitzen baita txosten bat: garraio berezietarako baimenak ematea; kirol-probak baimentzeko txostenak egitea; egiaztatu eta polizia-txostena egitea, eta antzekoak.

Horrenbestez, hau PROPOSATZEN DUGU:

Ordenantza fiskalen 6.14 epigrafean, lehen tarifan, honako hauek ken daitezela: a) Udaltzaingoaren eta suhiltzaileen interbentzio-parteen kopiak ematea; b) Argiketa-agiri sinplifikatuen kopiak ematea, eta c) Sute, istripu, adituen balioespen eta antzekoei buruzko txosten teknikoen kopiak ematea.

[Txostenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

03

JASO DIREN KEXAK ETA HORIEN EBAZPENA

Sindikoaren Bulegoan erreklamazio bat aurkezten delarik, dossier bat abiarazten da, eta, horren baitan, behar den informazioa eskatzen eragindako sailari, txosten idatzien bitartez, aurrez aurreko bileren bitartez, telefonoz deituta nahiz posta elektronikoz idatzita. Hark emandako informazioa, interesdunak azaldutako gertakariak eta aplikatzekoa den araudia aintzat harturik, ebatzi egiten da hasierako kexa hori.

Espediente berri horiez gain, lantzen ditugu beste urteetako zenbait: zabalik dirautenak edo berriro irekiak izan direnak, eta bigarrengoz ebazten direnak.

Hainbat modu daude dosierrak bukatutzat jotzeko, hasierako erreklamazioari erantzun ondoren. Horietako bakoitzaren definizio laburra ematen dugu ondoren, argigarri izango delakoan:

- Gomendioa: neurriren bat hartzea edo administrazio-egintzaren bat aldatzea iradokitzen zaie udal zerbitzuei horren bitartez, haien funtzionamendua hobetze aldera. Dagokion sailari helarazten zaio, eta hark erabakitzen du onartzen duen ala ez. Sindikoaren Bulegoan udalaren erantzunaren berri jasotzen denean ixten da dosierra.

- Gogorazpena: Organo eskudunei, funtzionarioei edo haien gainean daudenei eginbeharrak gogoratzen zaienean udal administrazioaren zerbitzuak hobetu ahal izateko.
- Ezespena: erreklamataileak azaldutako gertakariak aztertuta, bai eta eskumena duen sailak emandako informazioa eta aplikatzekoa den legeria, herritarraren eskabidea ez dagoela onartzerik ondorioztatzen denean.
- Bitartekaritza: Sindikoaren Bulegoaren esku-hartzearen eta jarraipenaren ondorioz kexa aurkeztu duen pertsonak lortu nahi zuen emaitza lortzen denean esaten zaio.
- Orientazioa: herritar baten kexaren aurrean, udal jardueraren arazoak eta bere nahia lortzeko dituen bideak azaltzen zaizkio hari.
- Artekaritza: bi partikular edo gehiagoren arteko liskarra konpontzeko modua —alde guztiek horretara biltzeko adostasuna erakusten dutelarik—, zeinen bitartez Sindikoak parte-hartzaile guztiek onartzeko moduko konponbidea lortzen duen.
- Bideratzea: Sindikoaren Bulegok uste badu egin den kexa Gasteizko Udaleko organoen jardueratik kanpo geratzen dela, eta, ondorioz, bere eskumenen barruan ez dagoela, Herri Defendatzaileari edo Arartekoari —dagokionari— jakinarazten zaio. Kexa aurkeztu duenari horren berri ematen zaio.
- Ez onartzea: Sindikoaren araudiaren arabera kexa jakin bat izapidetzerik ez badago, ez da onartzen. Halakoak dira, besteak beste, beste erakunderen baten eskumenei dagozkienak eta justizia epaitegietan auzipetuta daudenak.
- Iraungitzea: erreklamazioa egin duen aldeak dosierra izapidetzen jarraitzera bideratutako jarduerarik gauzatzen ez duelarik, iraungitza jotzen da hura, eta artxibatu egiten da.
- Erabiltzaileak ixtea: hala gertatzen da herritarrak atzera egiten duelarik, arazoa beste bideren batetik konpondu duelako.
- Txostena: ofizioz abiarazitako dosierretan egin ohi da, gai jakin bat sakon aztertzen delarik, txosten berezi horretan jasota uzteko ateratako ondorioak. Iradokizun eta Erreklamazio Batzordeak eskatzen duelarik ere egin daitezke.

Ondoren, sailez sail eta aurkeztu ziren hurrenkeran azalduko ditugu 2015. urtean zehar jaso eta 2016ko urtarrilaren 31a baino lehen ebatzi genituen kexak.

03.1 Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saila

A) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2121/14, 2122/14, 2127/14 Y 2134/15. HOBARIA KIROL INSTALAZIOETAN.

2014. urtearen amaieran, kirol instalazioetako harpidedunen kuotako hobariei buruzko lau erreklamazio aurkeztu zizkiguten; ikasleen kolektiboari buruzkoak zehazki. Erreklamazioetako bakoitzak arazo bana agertu zuen:

Erreg. zk.: 2121/14: Kasu horretan, unibertsitate ikasketak Eibarren egiten ari zen gazte bat zen, eta, arrazoi horrengatik, herri horretan bizi zen. Hobaria ukatu zioten, bere bizilekua Gasteiztik 100 kilometrora baino gehiagora ez egoteagatik. Ondorioz, zegokion ordenantza fiskalean kirol instalazioetako harpidedunen kuotan udal-mugartetik kanpo ikasten duten unibertsitateko ikasleentzako murrizketa jaso zedila eskatu zuen.

Erreg. zk.: 2122/14: Unibertsitateko bi ikasleren aitak aurkeztutako kexaren harira ireki zen dosierra. UPV-EHUko ikaslea da bat, eta hobariaz gozatzen du kirol instalazioetako kuotan, eta besteak Arrasateko Unibertsitatean ikasten du, eta ez dauka inolako hobaririk. Kexagilearen ustez, bereizkeriazko tratua da hori, eta hainbat alderdiren ondoriozkoa da unibertsitate batean ala bestean onartzea; hala nola, notak, eskaintzen diren graduak... Horrengatik, ordenantza indargabetzeko edo ez aplikatzeko eskatu zuen, diskriminatzailea baita.

Erreg. zk.: 2127/14: EHUko Bilboko Kanpuseko ikasle batek aurkeztu zuen kexa, izan ere, kirol instalazioetako abonuan hobaria eskatzera joan zenean, aipatu murrizketaz Arabako Kanpuseko ikasleek eta 100 kilometrora edo gehiagora ikasten dutenek bakarrik goza zezaketela jakinarazi zioten. Ordenantza fiskala aldatzeko eskatu zuen, eta unibertsitateko ikasle guztiei aplika ziezaietela prezio murriztua.

Erreg. zk.: 2134/15: Bilboko unibertsitatean ikasten duen pertsona batek aurkeztutako erreklamazioa. Bere ustez, ez da onargarria Arabako Kanpusean matrikulatuta dagoen kanpoko ikasle batek murrizketarako eskubidea izatea, eta alderantziz hala ez izatea. Hobari hori ez aitortzeko arrazoiei buruzko azalpena eskatu zuen.

Indarrean zegoen araudia aztertuta ondorioztatu genuen hobariaren eraketa nahasgarria zela, eta ez zuela arrazoizko justifikaziorik, izan ere, zera ezarri zuen 8.4. Ordenantzak, hau da, "Udaleko Kirol Instalazioak Erabiltzeko Prezio Publikoari" buruzko ordenantzak, ikasle gazteen hobariei buruz:

"18 eta 24 urte artean dituzten ikasleek, biak ala biak beteta, eta ikasketak Gasteiztik kanpo egiten dituztela egiaztatzen badute, 100 kilometrora edo gehiagora dagoen herri batean, edo, bestela, EAetik kanpo, barnetegi, pentsio edo egoitza erregimenean, dagokion kuotaren % 50eko murrizketa edukiko dute.

EHUko Arabako Kanpusean ikasten duten eta 18 eta 24 urte bitartean dituzten (biak ala biak beteta) ikasleek matrikularen hurrengo urterako eskatu ahal izango dute % 50eko hobaria".

Aurreko gomendio batean, Gasteizko Udalarari gomendatu genion beste unibertsitate batzuetako ikasleei ere heda ziezaiela UPV/EHUko ikasleen abonu-kuotan dagoen % 50eko hobaria.

Kexak aurkeztu ziren unean, irekita zegoen 2015erako ordenantza fiskalei arrazoibideak aurkezteko epea, eta, beraz, aukera horren berri eman genien.

Era berean, Kirol Zerbitzuko arduradunekin elkartu ginen gero, gai honen gainean ditugun oharrak azaltzeko. Zerbitzuko arduradunek, funtsean, bat egiten zuten diagnostikoarekin. Bilera hartan, kontuan hartu ziren araudia zuzentzeko aukera batzuk.

Azkenean, ordenantza fiskalak onartzeko izapidean, aholku eman genien pertsonak aurkeztutako arrazoibideak onestea erabaki zuen Ogasunaren informazio batzordeak, eta behin betiko onartu zuen 2015erako ordenantzaren testua, honela idatzi zena:

"EHUn edo Lanbide Heziketan ikasten duten eta 18 eta 24 urte bitartean dituzten (biak ala biak beteta) ikasleek matrikularen hurrengo urterako eskatu ahal izango dute % 50eko hobaria".

Hala ere, hurrengo izapidean, osoko bilkurak behin betiko onarpena ematekoan, alegia, ez zen aldaketa horiek onartzeko behar besteko gehiengoa lortu. Beraz, aurreko testuaren indarraldia luzatu zen.

2015ean, bulego honek etengabeko harremana eduki zuen Kirol Zerbitzuarekin, ikasle gazteentzako hobarien sistema bat hitzartzeko xedez, ahalik eta zabalena hori, eta edozein bereizkeria mota saihestuko duena, horrelaxe jaso zedin 2016rako ordenantza fiskaletan.

Halaxe izan zen. Ordenantza fiskalak aldatzeko proiektuan, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak Ogasun Batzordeari igortzeko onartu zuen horrexetan, alegia, Ogasun Batzordeak izapidetzen baitu proiektua,

aldaketa handia sartu zen 8.4. Ordenantzan. Horren bidez, oso egoki erantzun zitzairen Sindikoaren bulegoak egindako gomendioei:

Alde batetik, harpidedunen klase berria hartu zen kontuan, 18-24 adin tartearantzat (B KLASEA), eta 18,20 euroan finkatu zen urteko kuota.

Beste alde batetik, honako hobariak jaso ziren:

"18 eta 24 urte artean dituzten ikasleek, biak ala biak beteta, eta Gasteizen erroldatuta egonik ikasketak Gasteiztik kanpo egiten dituztela egiaztatzen badute, barnetegi, pentsio edo egoitza erregimenean, dagokien kuotaren % 50eko murrizketa edukiko dute".

Proposamenari ez dagozkion arrazoiengatik, alderdi politikoen arteko desadostasunen ondorioz, osoko bilkurak, azkenean, ez zuen udaleko gobernuak onartutako 8.4. Ordenantza Fiskalaren proiektua onartu. Beraz, izapidetzea geratu egin zen, eta aurreko testua dago indarrean.

Bulego honen kontrol jarduerak eta gomendioak udaleko gobernuari zuzenduta egoten dira, baina osoko bilkurari dagokio behin betiko erabakia hartzea, eta, oraingoz, ez da gertatu. Hala ere, lanean jarraituko dugu, datorren urtean eskaera hau jaso dezaten, eta gai honekin tematuko gara, behar adina forotan.

ERREG. ZK.: 2132/15 GATAZKA KIROL SAILAREKIN. BETERANOEN SAILA.

Igeriketa klub bateko lehendakaria etorri zen Sindikoaren bulegora, lehian aritzeko garaia igaro ondoren entrenatzen eta beren kategoriako lehiaketaren batean lehiatzen jarraitu nahi zuten elkartekideentzat "master" sail bat sortu zuelako; kontua da, entrenamenduetarako kirol-instalazioen erabilera kudeatu ondoren, Udaleko Kirol Zerbitzuak jakinarazi ziola zenbait irregulartasun atzeman zituztela eta dossier bat irekitzea eragin zezaketela, itxura guztien arabera neurritz gaineko kuotak kobratzen ari zirelako, estalitako triatloi-talde bat zutelako... eta antzeko informazioak iritsi zitzaizkielako.

Geroago, Udalak dokumentazio jakin bat eskatu zion klubari eta klubak bere esku zuen informazio guztia helarazi zion. Gero, beste bilera bat eduki zuten entrenamenduen egitura eta klubaren aurrekontua eskatzeko, Kiroletako Zerbitzuaren arabera udal instalazioetan ikastaroak eskaintzen zituztelako eta triatloi talde bat osatu zutelako. Informazio hori eman ondoren, Kiroletako Zerbitzuak bertan behera utzi zuen klubaren entrenamenduetarako erreserba, eta horrexegatik sail horretara jo zuten gai hori Kiroletako buruzagiarekin zuzenean aztertzeko eta eskatutako informazio hori eskaini zutela gogoratzeko.

Hala eta guztiz ere, Kiroletako Zerbitzuan lehenago eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen berriro, eta han erantzun zioten entrenamenduen erreserba bertan behera uztearena behin-behinekoz etenda utziko ziotela baldin eta klubak informazio zehatz bat eskaintzen bazion Udalari, baina lehendakariaren iritziz gehiegizkoa zen informazio hori, baita konparaziozko bidegabekeria bat ere, erreklamazioak ziurtatzen zuen moduan beste klub batzuetan bazeudelako master sailak eta haiei ez zietelako horrenbeste informazio eskatzen.

Kexa hori jaso ondoren, Udaleko Kiroletako Zerbitzuarekin elkartu ginen eta kasu horren inguruan genituen zalantzak aurkeztu genizkion. Sail horrek zenbait alderdiren inguruan zituen zalantzen berri eman zigun, esate baterako igeriketa-klubak eskaintzen duen master ikastaroa lehiaketari begira zuzendua ez egotea, edo kategoria zehatz honi zuzendua ez egotea, baizik eta Triatloira; klubeko kideak federatuta ez egotea, monitoreek ikastaro partikularrak eskaintzea edo beste entitate edo enpresa batzuekin lehia desleialean aritu ahal izatea. Kirol-instalazioen erabilera klubei eta federazioei lagatzeko Udaleko Kirol Instalazioen Arautegi Orokorrean jasotzen diren baldintzak aztertu genituen Sindikoaren bulegoan, eta ez dugu ikusi baldintza horietako bakar bat ere urratzen denik.

Kiroletako Zerbitzuak adierazi zuen mesfidantza sortu zela Klubak oso informazio gutxi eskaini zuelako eskatu zitzaionean, baina berez herritarrek ez dute zertan emanik legeak eskatzen ez duen inolako informaziorik, eta gainera, Udalak ezin dezake eskatu klubaren barne-informazio jakin bat, horretarako justifikazio egokirik izan ezean. Gure ustez, klubari eskatutako informazioak ez zeuden behar hainbat justifikatuta, eta gogorarazi genien klub baten jarduerak edo entrenamenduak eteteko beharrezkoa dela alde zuzeneko administrazio-prozedura bat eta hori justifikatuko duen oinarri juridiko bat.

Azkenik, Kiroletako Zerbitzuak adierazi zigun klubaren aldeko emakida horrek master sailean aurrera jarraitu ahal izan zezan beharrezkoa zela jarduerak klubeko kideei zuzenduak egotea eta kide horiek urtean "master" saileko lehiaketa ofizial batean gutxienez esku hartzea.

Kiroletako Zerbitzuarekin izandako bileraren ondoren, ez da inon ageri beste inolako gorabeherarik izan denik. Horregatik, uste dugu egindako kudeaketa horien bidez erantzun egokia eman zaiola aurkeztutako erreklamazioari.

B) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2276/15 GIZARTE ETXEKO IKASTAROAREN ZENBATEKOA ITZULTZEA.

Kirol instalazioetako erabiltzaile batek jakinarazi digu, laneko arrazoiak zirela-eta, baja eman behar izan zuela izena emanda zegoen udal jarduera batean, eta, hilabeteak igaro baziren ere itzulketa eskatu zuenetik, oraindik ez zuela erantzunik jaso.

Harremanetan jarri ginen Kirol Zerbitzuarekin. Zegokion zenbatekoa itzuli izanaren ziurtagiria bidali ziguten, eta kexagileak eskatu eta hilabetera itzuli zutela adierazi. Informazio horren berri eman genion kexagileari, eta amaitutzat jo genuen dosierra.

C) EZESPENA

ERREG. ZK.: 2188/15 KIROL INSTALAZIOETAN BAJA EMATEA. ALDAKETAK, KUOTEN HELBIDERATZEAN.

Pertsona batek baieztatu digu udal ordainagiriaren helbideratzea aldatzeko eskatu zuela 2013an, banku-erakundez aldatu zelarik. Familian lau izan arren, bere ordainagiriaren helbideratzea bakarrik aldatu zioten, eta ez seme-alabenak. Alaba, ekainean, igerilekuetara joan eta abonatua ez zelako sartzeari ukatu ziotenean jakin zuen. Sindikoak esku har dezala eskatzen du, Kirol Sailak ez diezaion kobratu zerbitzuan alta emateko matrikula. Dosierra aztertu dugularik, ikusi dugu banku-helbideratzeak aldatzeko eskabidean ez zirela inondik ere aipatzen seme-alaben kuotak. Gainera, banku-kontuen laburpen bat sinatu zuen, nortasun-agiria gainean idatzita, eta hor ere ez zen ageri berearekin lotutako inongo adingaberen konturik. Bere abonatu-kontua bakarrik ageri zen. Izatez, Kirol Zerbitzutik jakinarazi ziguten semearen eta alabaren abonatu-kontuak ez zeudela bere kontuari lotuak, baizik eta senarrarenari, eta antza hark ez zituela ordainagiriak helbideratuta. Hau da, pertsona horrek helbideratzea aldatu zuenean herritarrei laguntzeko bulegoan aldaketa izapidetu zuen pertsonak ezin zuela ikusi beste inor banku-kontu horri loturik zegoenik, eta ezin zuela datu hori jakin, salbu eta interesdunak berak eman izan balio, eta, itxura batean, ez zuen egin. Bestela izan balitz, artatu zuen pertsonak gomendatu ahal izango zion senarrak bankuko datuak alda zitzala edo adingabeak bere kontura lotu zitzala, nahiz eta, logikoki, ez zukeen izango kontu horiek aldatzerik, ezta helbideratzerik ere, senarraren baimenik gabe. Horrenbestez, Udalaren jarduera zuzentzat jotzen dugu.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

D) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)

ERREG. ZK.: 2217/15 ITXITA ERABILTZAILEAK ESKATUTA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA. KOLPEA AUTOAN.

Herritar batek gure bulegoetara jo du, ibilgailua Barazar Mendatearen kalean aparkatuta zuela, La Vitoriana futbol zelaitik hurbil, ezta hurrengo espaloian ere, aipatu instalazioko baloi batek autoa jo zuelako. Horren ondorioz, barruko atzerako ispiluari eta euri-sentsoreari eusteko plastikozko pieza askatu zen.

Aipatu kalteak erreklamatzeko bidearen inguruko aholkua eman genion, baina, azkenean, beste bide batean konpondu zuen kontua. Hortaz, erreklamazioarekin jarraitu nahi ez zuela adierazi zigun.

03.2 Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

A) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 2195/15 "GASTRONOMIAREN ESPAINIAR HIRIBURUTZARI" DAGOZKION ORDAINAGIRIAK ORDAINDU EZ IZANA.

ERREKLAMAZIOAREN XEDEA

Erreklamazioa "Gastronomiaren Espainiar Hiriburuko" (GEHko) presidentek aurkeztu du, Turismo Kazetari eta Idazleen Espainiako Federazioak (FEPET) eta Espainiako Ostalaritza Federazioak (FEHR) babesten duten ekitaldia izanik hori, eta zera azaldu du: *"Gasteizko Udalak ez die jaramonik egin, aipatu hiru erakundeen artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenean zehaztu den bezala, 50.000 euroko ordainketa egiteko gure erreklamazio erreplikatuak. Gasteiz 2014ko Gastronomiaren Espainiar Hiriburu izendatu ostean sinatu zen lankidetzaz hitzarmen hori. Argi dago Gasteizko Udaleko legezko ordezkariak sinatu eta izenpetutako konpromisoak bete ez direla. 25.000 euroko bi fakturaz ari gara; irailaren 1ean igorri zen lehenengoa, eta azaroaren 3an bigarrena."* Horregatik guztiagatik, Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen esku-hartzea eskatu zen, *"hitzarmenaren ondoriozko konpromisoak bete daitezzen, errespetatu ez diren kopuruak eta ordaintzeko epeak ezarri baitituzte horiek"*.

Erreklamazio hori jaso ondoren, eskaera bidali genion Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiari, Gasteizko Udalak jakinaraz ziezagun GEHk (FEHR eta FEPET) aipatu fakturak ordaindu ez dituela egia al den, eta,

hala izatekotan, aipatu fakturak ordaintzeari uko egiteko argudiorik jaso duen txostenik dagoen adieraz ziezagun.

Honakoa erantzun zioten gure eskaerari: "Aipatu fakturak ez dira Kontu-hartzailletza Nagusi honetatik igaro aldeztatik fiskalizatzeko; beraz, Gasteizko Udalak ez ditu faktura horiek abonatu". Era berean, Ekonomia Sustapen Sailak eta udaleko Aholkularitza Juridikoak egindako hainbat txosten erantsi zituzten.

GOGOETAK

1.- Lankidetzaz hitzarmenari aplikatzeko araudia

Bai lankidetzaz hitzarmena, bai beraz sinatzea baimendu zuen Gobernu Batzordearen Akordioa aztertu ondoren, badirudi argi eta garbi ondoriozta daitekeela tartean dauden 125.000 euroak, batez ere, "Gastronomiaren Espainiar Hiriburua" markaren erabilerarekin (baita horren logotipoaren, imago-tipoaren eta horren aplikazioen erabilerarekin ere) zeudela lotuta. GEHk eskainitako aholkularitza, laguntza teknikoa eta, batez ere, ekitaldiaren hedapena gaineratu behar zaizkio horri.

Kontratuaren izaera juridikoari dagokionez, gure ustean, **frankizia kontratuaren** berezko prestazioen aurrean gaude.

Aipatu kontratuaren araubide juridikoari dagokionez, **merkataritza kontratu baten aurrean egongo ginateke, eta zuzenbide pribatuak gidatzen du hori**: Txikizkako Merkataritzaren Antolamendurako urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 62. artikulua; otsailaren 26ko 201/2010 Errege Dekretua, horren bidez, frankizia araubideko merkataritza jarduera eta frankizia-emateari datuak nola komunikatu arautu da; eta, gure kasuan batez ere, **Kode Zibila**.

2.- **Balizko ez-betetzeak egoteari eta horien ondorioei buruz.**

Lehen aipatutako protokoloaren eranskineko **8. puntuan** aurkitu dugu kontu hau konpontzeko gako nagusia, horrek ezarri baitu gatazkan dagoen konpromisoa, hau da, argudiatu denez bete gabe dagoen konpromisoa eta gainerako 50.000 euroak ez abonatzea justifikatuko lukeena (azpimarra gurea da):

"8. Guinness errekorren ideia eta garapena

Hiriari ospea eta sustapena emango dizkion "Word Record Guinness" hausteko saiakerarako proposamenak eta beronen antolaketa eta garapenerako ideiak ematea Gasteizi. Ekitaldia hedatzeko kudeaketa"

Artikulu hori irakurtzean, agerikoa da erakunde frankizia-emailearen konpromisoen artean ez zegoela errekorra lortzea; hau da, ez artikulu horretan, ez protokoloan eta horren eranskinean, ez da ikusi 125.000 euro horien abonua Guinness errekorra lortzearen mende zegoenik.

Ez da harrizkoa, kontuan hartuta "frankizia-emaileek" frankizia kontratuetan beren gain hartu ohi dituzten konpromisoak (merkataritza markaren erabilera ematea, *know-how* transmititzea, laguntza tekniko eta komertziala...) bitartekoei dagozkien betebeharrak direla, eta ez emaitzei dagozkienak. Hots, betebeharra bitarteko horiek emanda betetzen dela, "frankizia-emaileak" eskuratutako emaitzak nahi ziren horiek izan ez arren.

Hala ere, udalak argudiatu du "*GWRk (Guinness World Records-ek) ez duela aitortu*" Gasteizko errekorra, "*11.036 kg-ko beste patata tortilla bat, 1994an Yokohaman egindakoa hori, jada homologatuta egoteagatik*" (tortilla gasteiztarrak 1.500 kg izan zituen). GEHk ez zuen datu horren berri eman, nahiz eta, udalak adierazi duenaren arabera, GEHko zuzendari nagusiak bere gain hartu zuen ekitaldiaren antolaketaren zuzendaritza.

Horrela, zera argudiatu du udalak:

"Kontu horretan, ez zen, inolaz ere, ekitaldia planifikatzeaz, garatzeaz eta exekutatzeaz eta GWRrekiko harremanez arduratu zen antolaketa-zuzendariak egin beharko lukeen eginbiderik egon; izan ere, gutxienez, kontsultatu egin beharko zukeen zein zen indarrean zegoen errekorra eta zeintzuk antolaketarako prozedurazko eskaerak, aurretiko bestelako errekorrik ez zegoelako eta garbitasun araudi sanitarioko betekizunez gain beste betekizunik ez zegoelako sinesmenean errekorra hausteari ekin aurretik."

Azken batean, udalak azaldutako argudioak zuzenak direla pentsatuz gero, erakunde "frankizia-emaileak" (Gastronomiaren Espainiar Hiriburuak) aholkularitza eskasa edo are arduragabea eman diola balioetsi daiteke; hau da, ez lioke emaitzari hainbeste eragingo, zeinetarako betebeharririk ez duen, baina bai aipatu erakundeak udalaren eskura jarri beharreko bitartekoei (aholkularitza, laguntza teknikoa eta abar).

Honakoa da jarraian egin beharreko galdera: Kasu horretan, justifikatuta egongo litzateke udalak hitzemandako zenbatekoen zati bat ez ordaintzea?

Kontua aztertuta ondorioztatu da, bi aldek elkarrekiko betebeharren gaineko konpromisoa hartzen dutenean eta horietako batek hitzartutakoa betetzen ez duenean, besteak auzitegien aurrean eska dezakeela bete dezala edo, bestela, kontratua deusezta dadila, horren ondoriozko kalte-ordainen ordainketarekin. Argi dago udalak, oraingoz, ez duela horrelako ezer egin.

3.- Kontratua indargabetzea eskatzeko aukerari buruz

Aldeetako batek egindako ez-betetze guztiek ez diote kontratua indargabetzeko eskubidea ematen besteari, baliogabetzeak errotikako ondorioak baitakartza, hala nola, emandako edo exekutututako gauzak edo prestazioak itzuli edo leheneratu behar izatea alde bakoitzak besteari, edo horien baliokide ekonomikoa eman behar izatea.

Bi aldeen konpromisoen edukia aztertu da, eta argi eta garbi adierazi da aldeetako batek kontratuko oinarriko betebeharrak modu larrian betetzen ez dituzenean bakarrik duela beste aldeak kontratua baliogabetzeko aukera, eta gure kasurako are interesgarriagoa dena: **kontratua baliogabetzea ekar dezakeen horrelako ez-betetze baten aurrean gaudenean bakarrik edukiko du beste aldeak bere betebeharrak ez betetzeko aukera, hots, esku artean dugun kasuan, zor diren fakturak ordaintzeari uzteko aukera.**

Kasu zehatz honetan, gure ustez, udalak ez dauzka beharrezko oinarriak hitzemandako fakturak ez ordaintzea justifikatzeko (eta are gutxiago hitzartutako zenbateko osoaren % 40ko ehunekoan). Horrela, bada, honakoa da orain arte argudiatu dugun guztiaren ondorioa: ez dugu pisuzko arrazoirik ikusi, zuzenbidean oinarritutakorik, Gasteizko Udala zordundutako fakturak (50.000 eurokoak) ez ordaintzera legitimatzen duenik, alde batera utzi gabe, gerora, udalak bide judizialera jotzeko aukera izatea, "Gastronomiaren Espainiar Hiriburuaren" jarduera ustez zabarrak, Guinness errekorra lortzeko saiakerari dagokionean, eragin ahal izan dizkion kalteak konpontzea eskatzeko.

Horregatik guztiagatik, Gasteizko Herritarren Defendatzailearen Araudiko 19.b) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, eta arazoari irtenbidea urkitzeko asmoz, honakoa da luzatuko dugun GOMENDIOA

1.- Gasteizko Udalak fakturak ordain diezazkiela "Espainiako Ostalaritza Federazioa" (FEHR) eta "Turismo Kazetari eta Idazleen Espainiar Federazioa" (FEPET) erakundeei. Faktura horiek "Gastronomiaren Espainiar Hiriburua Lankidetzaren Protokoloaren" eranskinen 10. puntuan (ordainketen egutegian) zehaztutako azken bi ordainketei dagozkie, eta horien gehiketa 50.000 eurokoa da. Hala ere, ez dugu bazter utzi nahi, gerora, neurri judizial egokiak hartu ahal izatea, GEHren jarduerak eragin ahal izan dizkion kalteak, Guinness errekorra lortzeko saiakerari dagokionean, ordainean hartzeko xedez.

- GOMENDIO ONARTUA -

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

03.3 Ogasun Saila

A) OFIZIOZKO GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 65/14 BALIO-GEHIKUNTZA (HLBGZ): FORU ARAUDIA UZTAILAREN 4KO 8/2014 ERREGE LEGE DEKRETUAN XEDATUTAKORA EGOKITZEA.

Krisialdia hasi zenetik gutxira, etxebizitzaren hipotekari aurre egin ezin zioten familiak kaleratzen hasi orduko, berehalakoan geratu zen agerian, gordinki, berez nahikoa tragikoa zen familia horien egoerari gehitzen zitzaion ondorio absurdu eta bidegabe bat: Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga ("gainbalioa") ordaindu beharra, eta euro milaka batzuk izatera irits zitekeen hori. Etxebizitza besteri eskualdatzen zionak ustez lortzen zuen irabazi ekonomikoa zergapetzen zuen zerga horrek. Baina, kasu horietan, hain zuzen ere baliabide ekonomikorik ez zuelako kaleratzen zuten familia etxetik, eta etxebizitza prezio oso debaluatuan enkantean jartzen; zenbaitetan, baita artean ordaintzeke zegoen hipotekari aurre egiteko ere aski ez zen prezioan ere. Gerora, presio sozialaren ondorioz, eta hainbat ebazpen judizial eta lege-aldakuntzaren ondoren, "ordainean ematea"ri atea ireki zitzaion. Baina, hala ere, gainbalioak hor jarraitzen zuen, eta etxebizitza bankuari ematen zionak zerga ordaintzera behartuta egoten segitzen zuen.

2012az geroztik, administrazio eskudunek eta, horien artean, Gasteizko Udalak hainbat neurri txertatu zituzten beren araudietan, etxetik botatakoek jasan beharreko zerga-ondorioak arindu edo murrizte aldera.

Horrela, periplo horren bukaeran, Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziako neurrien uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretua onetsi zen. Arau horren 123. artikulua Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateratua —2/2004 LED— aldatu zuen; zehazki, 105. artikulua, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duena. Salbuespen-suposizio bat gehitzen da:

“Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bai eta data horren aurrekoak diren baina preskribatu ez diren zergapeko egitateen kasuan ere, 105.

artikuluaren 1. paragrafoari c) idatz-zatia gehitu zaio, eta honela geratu da idatzita:

«c) Zordunaren edo horren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean emateagatik egindako transmisioei dagokienez, etxebizitza horren gaineko hipotekadun bermatutako zorrak kitatzeko, zor hori kreditu-erakundeekin edo, modu profesionalean, mailegu edo hipoteka-kredituak emateko jardueran jarduten duen beste edozein erakunderekin egina bada.

Halaber, aurreko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren transmisioak ere salbuetsita geratuko dira, betiere hipoteka-betearazpen judizial edo notarialetan gertatzen badira.”

Horrela bada, 2014ko urtarrilaren 1.az geroztiko hipoteka-betearazte edo ordainean emateak, baita preskribatu ez duten aurrekoak ere (bost urte atzera), zergatik salbuetsita geratzen dira, baldin eta higiezin ohiko etxebizitzat jotzen badaiteke eta ondareari dagokionez arauan finkatzen diren baldintzak betetzen badira.

Kontua da gure lurraldean ez dela zuzenean aplikatzekoa Estatuan onartutako Toki Ogasunen Legearen testu bateratuaren aldakuntza. Etxetik bota dituzten edo beren ohiko etxebizitza ordainean eman duten familia arabarrek salbuespen hori beren mesede atzerako eraginez baliatzerik izan dezaten, ezinbestekoa da aldakuntza hori Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauan jasotzea.

Horrenbestez, arauketa berri horrek justizia materialaren alorrean dakarren aurrerakuntza aintzat harturik, eta Gasteizko Udalak egoera horiek arintzeko egindako ahaleginen ildotik, gomendio hau egiten diogu GOMENDIOA:

1.- Udaleko Ogasun Sailak edo dagokion udal agintaritzak Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailari eskari bat helaraz diezaiola, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua alda dadin, eta, hartara, uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuan jasotzen dena foru-araudira aldatu dadin.

2.- Baldin eta gaur egun salbuespen-suposizio horrekin bat etor litekeen gainbalio-kasurik badago, artean ordaintzeke, aldi batez horren diru-bilketa eteteko aukera azter dadila, harik eta foru-araudia aldatzen ez den bitartean.

Oharra: Gomendio hau eman ondoren, eta orobat 2015eko otsailaren 27ko gomendioa ("Gainbalioarekin eta ordainean ematearekin bueltaka"), aldi batez gainbalioaren kobrantza bertan behera uztea erabaki zuen Udaleko Ogasun Sailak. Azkenik, 2015eko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu zen 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa, zerga jakin batzuen araudia aldatzen duena. Horrela, Estatuko araudian jasotako salbuespen-klausula bera gehitu zitzaion Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauari, EAeko gainerako lurraldeetan ez bezala, horietan lehengo testuari eutsi baitzitzaion.

- GOMENDIO ONARTUA -

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

B) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 1966/13. GOMENDIOA. GOMENDIO ERREKERIMENDUA. ALDABEKO ETA RENFEKO PARKINEN KUDEAKETA.

"Arazoak" Autismoaren Arabako Elkarteak udalaren titulartasunekoak diren Aldabeko eta Renfeko parkinetako egonaldia zaintzeko eta kobratzeko ardura dauka. Bada, bertako langile batek gure bulegora jo zuen kexa bat aurkeztera, zaintzaileek euren eginkizunak egiteko dituzten baldintzak direla-eta (azpiegitura gabezia, adibidez), eta euren lana burutzeko zailtasunak direla-eta (seinaleztapen gabezia, segurtasun neurririk ez egotea, erabiltzaileari informaziorik ez ematea, kobratzeko bitartekorik ez edukitzea eta abar), erabiltzaile jakin batzuekin gatazkak ekartzen baititu egoera horrek. Izan ere, langile horrek istilua eduki zuen erabiltzaile batekin. Horren ondorioz, elkarteak enplegua eta soldata eten zizkion. Lanpostura itzuli zenean, mediku-baja hartu behar izan zuen, arazo berriengatik.

Kexagileari hasieratik adierazi genion Sindikoak ezin dezakeela esku hartu enpresa edo elkarte baten eta horren langileen arteko lan harremanetan, ez baita udalaren eskumena. Hala ere, interesa piztu zigun elkarte udalarekin lotzen duen harreman motak. 1992an gauzatu zen harreman hori, bi aldeen artean sinatutako lankidetzaren hitzarmen batekin.

Hainbat ikerketa egin ondoren, Trafiko Zerbitzuak, parkin horien kudeaketaz arduratzen baita, aipatu hitzarmenaren kopia bidali zigun, eta aplikatzen diren tarifak 7.6. Ordenantza Fiskalean jaso direla jakinarazi zigun, hau da, Hiriko Trafikoa eta Ibilgailuen Aparkamendua Arautzeko eta Kontrolatzeko Tasari buruzkoan, "laugarren tarifa", honako izenburuaren pean: "Aparkamendu mugatua leku berezietan".

KASUAREN AZTERKETA

Aparkalekuko zaintzaileek kobratzen dituzten tasei buruz

Tarifa kobratzeko, zaintzaileek tiketak ematen zituzten, 0,50€/orduko zatiketari, eta horrek ez zuen bat egiten zegokion ordenantza fiskalean urterik urte onartzen joan ziren tarifekin.

Horren berri eman genion Trafiko Zerbitzuari, tarifen eraldaketa arautu zezan. Egoera hori amaiarazteko beharrezko neurriak hartu zituen horrek: besteren artean, elkarteari jakinarazi zion, seinaleztapen egokia jarri zuen aparkalekuetan, zaintzaileak prestatu zituen, prezio eguneratuak zituzten taloiak egin zituen.

Hobekuntzak egin ziren arren, bilketa eginkizuna esku pribatuetan eror zitekeelako kezka sortu zitzaigun, nahiz eta, hitzarmenaren arabera, Arazoak elkarteak, aparkalekuen zaintza zerbitzuaren esleipenduna izaki, erabiltzaileei kobratutako tarifen % 5eko kanona udaleko diruzaintzan sartu behar izan.

Ordenantza Fiskalaren analisitik argi eta garbi ondoriozta daiteke bilketa eginkizuna funtzio publikoa dela, eta administrazioak bakarrik gauza dezakeela.

Udalaren eta "Arazoak" elkartearen artean sinatutako hitzarmenari buruz

Gure asmoa ez da "Arazoak" elkarteak urte hauetan guztietan aparkalekuen zaintzan egin duen lana zalantzan jartzea; hots, jasotako kexaren harira, biztanle gasteiztarrei oro har, aparkaleku horien erabiltzaileak diren heinean, eta elkarteko langileei bereziki, zerbitzua ematen dutenak izanik, eragiten dieten inguruabar batzuen berri izan dugu.

Tokiko araubideari buruzko araudiaren arabera, aparkalekuak zaintzeko eta kontrolatzeko zerbitzua udalaren eskumeneko zerbitzu publikoa da, eta, beraz, udalak berak kudea dezake zuzenean, leku horietako parkinak aparkamendu mugatuko lekuekin (TAO) parekatuz, edo, bestela, zeharka kudea dezake, zerbitzu publikoko kudeaketa kontratu baten bidez. Kasu horretan, kontratazio publikoari buruzko araudiak ezarritako izapideak jarraitu beharko lirarteke, bai eta printzipioak errespetatu ere. Alabaina, araudi horren mende egoteak ez du galarazten bazkideak gizarteratzeko asmoz lan egiten duen elkarte bati esleitu ahal izatea zerbitzua, desgaitasuna duten pertsonekin arduratsua den kontratazio publiko baten markoan.

Hortaz, kontratuko baldintzetan, alde batetik, berau "enplegurako zentro bereziak" deiturikoei gordetzearen alde egiten dugu, eta, bestetik, kontuan har dadila hainbat urtez zerbitzu hori eman duten langileen egoera. Horretarako, komenigarria litzateke aipatu langileak subrogatzea, edo, bestela, horrekin pareka daitekeen bestelako aukera bat aintzat hartzea. Era berean, gomendagarria litzateke aipatu baldintzetan lanpostuak langileen ezaugarri bereziei egokitzeko neurriak jasotzea.

Horregatik guztiagatik, honako GOMENDIOA luzatuko dugu:

Aldabeko eta RENFEko leku berezietan kokatutako aparkalekuak kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzua arautu dadila.

OHARRA: Hilabeteak igaro direnez erantzunik jaso gabe, gomendioa onartu duten ala ez adieraziz, beste errekerimendu bat bidali genion sailari. Horrekin, amaitutzat jo genuen dosierra.

- GOMENDIO ERREKERIMENDUA –

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2128/14 "GAINBALIOAREKIN ETA ORDAINEAN EMATEAREKIN BUELTAKA"

Kexa agertu zigun herritar batek, non adierazten zuen ezen, bere egoera ekonomikoaren ondorioz, zorrak ordaindu eta ohiko bizilekua zuen etxebizitzaren hipoteka baliogabetzeko ordainetan emateko eskritura bat sinatu zuela finantza-erakunde batekin. Orain Udalak gainbalioaren zerga (HLBGZ) likidatu dio —6.135,34 euroko diru-kopurua—, eta uste du banku-erakundea dela zenbateko hori ordaindu behar duena. Hori zela eta, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen likidazioaren aurrean, baina Udalak ezetsi egin du. Era berean, zorra zatikatzeko ebazpena aurkeztu zigun, non zor osoa 525 euroko 12 kuotatan ordaintzeko aukera ematen baitiote.

ZENBAIT GOGOETA

Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga (HLBGZ), hau da, beren etxebizitza saldu edo eskualdatzen duten pertsonen —dohaintzan ematen dutelarik edo beste— Udalak kobratzen dien zerga, azken urteotan gehien errepikatu izan den gaietako bat da, baita zalantzan maizenik jarri izan den zergetako bat ere. Etxebizitza eskualdatzen duenak uste batean eskuratzen duen onura ekonomikoa zergapetzen du zerga horrek.

Aurreneko bidegabekeria-egoera, zerga honi dagokionez, lehenengo kaleratzeak gertatu zirenean jarri zen agerian, non eta kaleratutako familiak, bere bizilekua abandonatu ondoren, oraindik ere zerga hori ordaindu beharra izaten baitzuen. Gerora, etxea ordainetan ematen zen kasuetara ere zabaldu zen arazoa.

2012az geroztik, administrazio eskudunek eta, besteak beste, Gasteizko Udalak, hainbat neurri hartu zituzten, kaleratzeen zerga-ondorioak arintzen edo murrizten saiatzeko. Geroztik hartu izan diren neurrien laburpena egiteko, ofizios eman genuen 65/2014 gomendiora jo besterik ez dugu.

65/2014 gomendio hartan, eskatzen genuen Arabako Batzar Nagusiei helaraz zekiela foru-araudian aurreikuspen bat egiteko premia, hartara, kaleratze eta ordainetan emateen kasuan zerga hori ordaintzetik salbuets zitezzen zergadunak, atzeraeraginezko izaerarekin. Hasiera batean, ez Arabako Batzar Nagusiek, ez Bizkaikoek, ez Gipuzkoakoek, ez zuten halako erabakirik hartu; hau da, lehengoan eutsi zitzaion araudiari.

Horrela, bada, Estatuko gainerako lekuetan kaleratzeak eta ordainetan emateak salbuetsita geratzen ziren bitartean, EAEn finantza-erakunde hartzekoduna zen zerga horren ordainketari aurre egin behar ziona, bi kasuetan. Edo, hala ulertzen dugu guk behintzat.

Horregatik, kexa hori jaso genuenean, pentsatu genuen Ogasun Sailaren akats bat izango zela, eta erraz konponduko zela indarrean dagoen foru-araudiaren edukiaren berri ematen genielarik. Baina ez zen horrela izan. Aitzitik, adierazi ziguten antzeko 15 bat kasu badirela, eta tratu bera eman zaiela guztiei ere: zorraren ordainetan bankuari etxebizitza ematen diona bera da gainbalioa ordaindu behar duena.

Azken batean, 46/1989 Foru Arauan esaten den hau azpimarratzen da emandako erantzunean: 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua esparruan sartzen diren zordunek egiten dituzten eskualdatzeetan —eta, horrenbestez, ulertzen du ezen, Errege Lege Dekretu horretan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean— etxebizitza bankuari ematen dion zorduna dela zerga ordaindu behar duena.

Interpretazio horren arabera, pentsatzekoa da ordainetan emate ia guztiak foru-arautik kanpo geratuko liratekeela, erosketa-prezioari dagozkion mugengatik besterik ez bada ere, 6/2013 ELDan ezartzen direnak baino askoz gorakoak baitziren oro har oparoaldiko urteetan. Beraz, begi bistako bidegabekeria-egoera mantenduko litzateke.

Araua interpretatzeko eta aplikatzeko modu hori zalantzatan jartzeko modukoa dela iruditzen zaigu, arlo juridikoko hainbat arrazoiengatik.

Lehenengo arrazoia hau da: 46/1989 Foru Arauak 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua esparruan sartzen diren zordunek egiten dituzten eskualdatzeak aipatzen dituelarik, uste dugu ezin direla suposizio horretan sartu jatorria Hipoteka Legearen 140. artikuluan ez daukaten 'ordainetan emate' guztiak, hau da, hipoteka eratzeko eskrituran hitzartu ez zirenak, Administrazioa aztertzerantz sartu gabe finantza-erakundearentzat ordainetan ematea nahitaezkoa egingo luketen baldintzak egokitzen diren. Finantza-erakundeak ordainetan emate hori onartzen badu, Udalari, besterik gabe, akordio horren zerga-ondorioak aplikatzea dagokio (finantza-erakundea izan dadila zerga ordaintzen duena).

Bigarrenik, zalantzarrirentzat jotzen duguna hau da: aldeek ez dutelarik justifikatzen ordainetan emate hori 6/2012 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz egin den ala ez, presuntzioa alderik ahulenaren kontrakoa izatea, hots, zergaren likidazioa igortzen zaion zordunaren kontrakoa.

Kontuan har bedi hemen ez garela ari zergaren salbuespen, hobari eta gainerakoez. Besterik gabe, zerga bi aldeetatik zeinek ordaindu behar duen da kontua, hots, bankuak edo hipoteka-zordunak ordaindu behar duen. Baina, gure kasuan, izatez aukerarik ere ez zaio eman finantza-erakundeari ordainetan ematearen oinarri juridikoa justifikatzeko edo ez justifikatzeko, zuzenean zorra hipoteka-zorra duenari kobratzen jarraitzea aukeratu baita.

Horrela, beste behin ere, etxebizitzarik gabe geratu dena litzateke bere eskubidea bide judizialean erreklamatzearen zama bere gain hartu beharko lukeena, eta, gainera, egungo errentariaren aurrean egin beharko du, finantza-erakundeak alokairu sozialean laga ohi baitu etxebizitza, kasu honetan bezala.

Argudiatu dugun guztia gorabehera, prest gaude onartzeko zalantza juridikorik izan daitekeela, nor den zergaren subjektu pasiboa, ordainetan ematen duen zergaduna den ala hori onartzen duen finantza-erakunde den, eta epaitegiek baino ezingo lukete argitu zalantza hori; baina justizia-arrazoi sobera daude zama hori zordunen gainean ez uzteko, ezpada, izatekotan, finantza-erakundeen gainean.

Hori guztia konponduko litzateke, jakina, Araban ere ezarriko balitz kaleratzeen eta ordainetan emateen kasuetarako HLBGZko salbuespena, uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Lege Dekretuan atzerako eraginez ezarri zena.

Esku artean dugun kasu honetan, eta eman ditugun arrazoiak direla medio, uste dugu litekeena dela interesdunari egindako likidazioa, 6.135,34 eurokoa, ez etortzea bat zuzenbidearekin, eta, nolana ere, ondorio bidegabeak dakartzala berekin, foru-arauak ekidin nahi zituen berak.

Horrenbestez, Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 19.b) artikuluan xedatutakoaren ildotik, udal administrazioaren zerbitzuak hobetu daitezela lortze aldera, GOMENDIO HAUEK egiten ditugu:

- 1.- Erreklamatzailari kasu honetan igorri zitzaion Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa —6.135,34 eurokoa— baliogabetu dadila, eta gaurdaino egin dituen ordainketak itzul dakizkiola.
- 2.- Zerga horren likidazioa ordainetan emateko eskritura sinatu zuen finantza-erakundeari igor dakiola.
- 3.- Irizpide hori bera aplikatu dadila, ofizioz, eskrituretan hala jasota dauden ordainetan emateen kasu guztietan.
- 4.- Hori guztia, Toki Ogasunen Legea aldatzeko uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuan egindako aurreikuspenak —kaleratzeen eta ordainetan emateen kasuetarako HLBGZko salbuespena— Araba Lurralde Historikoaren esparrura zabaltzearen komenigarritasuna berriro ere aipatzeari utzi gabe.

Oharra: Gomendio hau eman ondoren, etxebizitza ordainean eman den kasuetan aldi batez gainbalioaren kobrantza bertan behera uztea erabaki zuen Udaleko Ogasun Sailak. Azkenik, 2015eko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu zen 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa, zerga jakin batzuen araudia aldatzen duena. Horrela, Estatuko araudian jasotako salbuespen-klausula bera aldatu zen Hiri-

Iurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araura, EAEko gainerako lurraldeetan ez bezala, lehengo testuari eutsi baitiote horietan. Gomendioan aipatzen zen suposizioa salbuetsita geratuko litzateke, araudi berriaren arabera.

– GOMENDIO ONARTUA –

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2189/15 TRAFIKO-ISUNA. ENPRESA BATEK LANGILE BAT IDENTIFIKATU ZUEN
GIDARI GISA, BAINA HARK UKATU EGITEN DU.

Enpresako ibilgailu batek egindako arau-haustearen aurrean, ibilgailuaren titular den enpresak talde bereko beste enpresa bateko langilea identifikatu zuen gidari gisa, baina ez zuen langilearen helbidea eman, enpresaren beraren helbidea baizik. Egun batzuk geroago, langile hori bota egin zuten taldeko enpresa horretatik, eta, beraz, ez zuen isunaren jakinarazpenik jaso, harik eta Udalak premiamendubidera jo zuen arte. Gertatutakoaren aurrean, berrikusteko errekurtsua aurkeztu zuen langileak, baina Udalak ez zion onartu.

ZENBAIT GOGOETA

1.- Gidaria identifikatzeko obligazioari dagokionez:

Bide Segurtasunaren Legearen 9 bis 1) artikularen arabera, arau-haustea egin duen ibilgailuaren titularrak arau-haustearen erantzule den gidaria identifikatzeko legezko eginbeharra dauka. Identifikatzeko eginbeharra ez betetzea arau-hauste oso larria da, eta lege horren 67.2 a) artikuluan aurreikusten den isuna dagokio.

Baina, zer gertatzen da baldin eta ibilgailuaren titularrak arau-haustea gertatu zenean ustez hura gidatzen zuena identifikatzen badu, baina pertsona horrek ukatu egiten badu?

Gidaria identifikatzearen inguruan dagoen jurisprudentzia aztertu ondoren, ondorioztatu dugu ezen, identifikatutako gidariak arau-haustearen unean ibilgailuaren gidaria bera zela ukatzen badu, uko egite horrek egiazkotasunik gabe uzten duela identifikazioa, eta, halakoetan, Udalak ez duela beste aukerarik ezpada ibilgailuaren titularraren kontra jotzea, gidaria behar bezala ez identifikatzeagatik Trafiko Legearen 65.5 j) artikulua urratzea leporatzen diolarik. Jakina, horrek ez du esan nahi ibilgailuaren jabea besterik gabe arau-haustearen errudun bihurtzen denik, baizik eta prozedura zigortzailearen baitan aukera izango duela identifikazioa egiazkoa izan zela frogatzeko, hau da, identifikatutako pertsona zela benetan ibilgailua gidatzen ari zena.

2.- Aurreko teoria gure kasuari aplikatzea

Administrazioak interesdun bati zer bait jakinarazten diolarik jakinarazpen-akatsen bat egiten badu, kasu honetan akats induzitua —jakinarazpena lantokira bidaltzea, langilea bertatik bota ondoren—, ondorioa da "jakinarazpen oker" baten aurrean gaudela, eta, 30/1992 Legearen 58.3 artikulua ildotik, halako jakinarazpenek interesdunak ebazpenaren —edo jakinarazpen edo ebazpenaren objektu den egintzaren— edukiaren eta helmenaren jakinaren gainean dagoela erakusten duten jarduketak egiten dituen edo bidezko edozein errekurtsio aurkezten duen egunetik izango dutela eragina.

Arau hori gure kasuari aplikatzen diogularik, ondorioztatu beharko dugu ezen, 2014ko apirilaren 3an Udalak prozedura zigortzailea abiarazteko ebazpena oraingo erreklamatzailerari "A" enpresara bidali zionean, jakinarazpen horrek ez zuela eraginik izan interesdun horri zegokionez, harik eta berak "berrikusteko errekurtsio" oker deitua aurkeztu zuen arte.

Aipatu dugun Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziaren arabera —ez baitu zalantzarik uzten—, herritarrak gidaria bera zela ukatzen zuen idazkia aurkeztu eta horren lekukotasuna ematen zuten hainbat agiri aurkeztu ondoren —lan-bizitzaren txostena, lan-kontratua, nomina, kontziliazio-akta, errolda...—, Udalak ez zuen beste aukerarik ezpada "A" enpresaren kontrako dossier zigortzailea abiaraztea gidaria ez identifikatzeagatik edo egiatan ez identifikatzeagatik, identifikazioa zuzentzeko aukerarik gabe, eta prozedura zigortzailearen baitan aukera izango zukeen enpresak frogatzeko, ala ez, erreklamatzailerak gidatzen zuela ibilgailua arau-haustea gertatu zen unean.

Hala jokatu ez zuenez, gure ustez Udalak urratu egin zuen oraingo erreklamatzaileraren errugabetasun-ustekizunerako eskubidea —Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikuluan jaso—, eta, hartara, Konstituzioak babesten duen eskubide eta askatasun bati kalte egiten dion administrazio-egintza izaki, prozedura zigortzailea abiarazteko ebazpena erabat deuseza litzateke, 30/1992 Legearen 62.1 a) artikulua arabera.

Kargak ezartzeko edo inoren kalterako egintza izanik, ebazpen hori besterik gabe baliogabetu ahalko litzateke, 30/1992 Legearen 105. artikulua arabera, edo, bestela, egintza ezdeusak administrazioaren kabuz berrikusteko prozedurara jo.

Horrenbestez, Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 19.b) artikuluan xedatutakoaren ildotik, arazoari konponbidea aurkitze aldera, GOMENDIO hau egiten dugu:

1.- Baliorik eta eraginik gabe utzi dadila prozedura zigortzailea abiarazteko ebazpena —E040606DT 2014/006335 dossier-zenbakia—, eta, horrenbestez, dosierra artxibatzea erabaki dadila.

2.- Era berean, baliorik eta indarrik gabe utz dadila baliogabetu behar den zigorra kobratzeko betearazpen-bidean jarraitutako prozeduran emandako premiamendu-probidentzia, eta osorik itzul daitezela erreklamatzailleak ordaindutako diru-kopuruak.

- GOMENDIO ONARTUA –

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2191/15 BAHITURA. TRAFIKO-ISUNA.

Herritar batek adierazi zigun banku-entitateak gutun bat bidali ziola, eta bertan adierazten ziotela 122,66 euroko zenbatekoa duen bahitura-izapide bat jaso zutela bankuan. Gizarte-etxe batera jo zuen informazio bila, eta bertan esan zioten trafiko-isun bat zela, nahiz berak ez zuen horren berririk jaso. Gero, salaketaren jakinarazpenaren kopia bat eskuratu zuen, baina bertan ageri zen helbidea ez zen zuzena. Berak ez zion uko egiten isuna ordaintzeari, baina % 50eko murrizpenarekin, eta beraz, uste du Ogasun Sailak itzuli egin beharko liokeela berak ordaindutakoaren erdia. Horregatik eskatzen zuen adierazitako arazoa konpondu zedila eta zehapena zenbateko murriztuaren arabera ordaintzea onartu ziezaiotela.

Ogasun Sailak igorritako zehapen-dosierra aztertu ondoren, egiaztatu dugu jakinarazpen guztietan oker identifikatuta ageri zela lege-hauslearen helbidea. Nolanahi ere, jakinarazpenetarako helbidean eta ibilgailuaren helbide fiskalean ageri den helbidea bat dator erroldaren txartelean ageri denarekin. Horrenbestez, bai zehapen-prozedurari eta bai premiamendu-prozedurari dagozkion jakinarazpen guztiak erreklamaziogilearena ez den helbide batera bidali izan dira, eta egiaztatzerik izan ez denez, TESTRAn eta ALHAOn argitaratu dira, hurrenez hurren. Azkenik, bere banku-entitatearen bitartez isun horren berri jakin zuenean, ordaindu egin zuen, gailkargurik eta berandutza-interesik ez ordaintzearren.

OHARRAK

Administrazio-ebazpenak jakinaraztea funtsezkoa da interesatuarentzat, jakinarazpen horrek aipatzen duen ekintzak eraginkortasuna izan dezan. Izapide formal honetan ez da beharrezkoa, balioa izan dezan, dagokion pertsonak jakinarazpena benetan jasotzea, baizik eta Administrazioak legez aurreikusitako bide guztiak egoki erabiltzea hark jaso dezala ahalbidetzeko. Zehapenen jakinarazpenari dagokionez, Administrazioaren aldetik beharrezkoa da izapide horiek bereziki betetzea, eta beste ERREG. publiko batzuetan ageri den helbidean jakinarazten ahalegindu behar du, ediktuen bideari ekin aurretik.

Kasu honetan, erreklamaziogilearen helbidea dosierran ageri da, eta beraz, jakinarazpena bertan egiten ahalegindu zitezkeen, ediktuen bidez jakinarazi aurretik.

Zehapen-prozedura abiaraztearekin loturik egindako jakinarazpen akastun hori jakinarazpen-ezaren baliokide da, eta beraz, dossier hori iraungitzat jo beharko litzateke, zehapen-prozedura hasi denetik bi hilabete igaro direlako, eta premiamenduzko prozedurari dagokionez, berriz, egindako bahitura-izapideen baliogabetasuna dakar horrek.

Hori dela eta, kalterako izan diren ekintzak indarrik gabe utzi daitezke edozein unetan, legezkotasun-arrazoiengatik baliogabetuz.

Aurreko horregatik guztiagatik, eta Gasteizko Udaleko Herritarraren Defendatzailearen Araudiko 19.b) artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, arazo honi irtenbide bat eman nahirik, ondorengo GOMENDIOA egin nahi dugu

1. Baliorik eta indarrik gabe utzi dadila zehapen-prozedura abiarazten duen ebazpena, xxxxx 2014/00xxx dosierr-zenbakia duena, eta horrenbestez, aipatutako dossier hori artxibatzea erabaki dadila.
2. Era berean, baliorik eta indarrik gabe utz dadila baliogabetu beharrekoa den zehapena kobratzeko betearazpen-bidetik jarraitutako prozeduran egindako premiamenduzko probidentzia, eta itzul daitezela erreklamaziogileak ordaindutako 122,46 euro horiek.

- GOMENDIO ONARTUA -

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

C) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2012/14 KALTEAK MONUMENTUAN. ORDAINKETA-ERREKERIMENDUA.

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen bulegoan, 2010. urtean izandako gertaera batzuegatik ordainketa-errekerimendu bat jakinarazi ziotenean, udal ondasun batzuei eta, bereziki, Gasteizko Batailaren monumentuari egindako kalteengatik.

Erreklamazio hori, hain zuzen ere, eskatzen zioten zenbatekoagatik eta horri gehitutako gainkarguegatik zen, baita Udalaren jokaeran ikus zitekeen obskurantismoarengatik ere, zeren eta, bi idatzi aurkeztu eta informazioa jasotzen ahalegindu arren, ez baitzuen erantzunik jaso, eta halaber, ez zioten inolako eperik eman alegazioak aurkezteko.

Aurreko hori kontuan hartuta, eskatu zuen argitu ziezaiotela nola izapidetu zen dossier hori, zeinaren arabera eskatzen baitzioten ordaindu zitzala 2.500 euro, sortutako berandutza-interesak gehituta, eta halaber eskatzen zuen gai hori ahalik eta kostu gutxiena sortzeko moduan erabaki zezatela.

Kexa hori jaso ondoren, administrazio-dosierra eskatu genion Ogasun Sailari eta hura aztertu genuen, Udalaren erreklamazio horren jatorria zein ote zen erabakitzeke eta prozedura behar bezala bete ote zen argitzeko. Udalaren erreklamazio ekonomiko horrek udal eskultura baten zati bat hautsi izana zuen ardatz, eta Udaltzaingoaren txostenak ez zuen horren egilea nor zen zalantzan jartzeko biderik ematen. Hortik aurrera, Sindikoaren Bulegoak herritarrak ordainketa horri aurre egiteko ahalik eta kostu gutxieneke formula zein izan zitekeen erabakitzeke xedez esku hartu zuen, eta halaber, zigor horren bidez bildutako dirua benetan kalteak izandako elementu hori konpontzeko erabil zedin.

Erreklamaziogileak ordainketa horri aurre egin ahal izan ziezaion, Zerga Kudeaketaren Zerbitzuari proposatu genion negoziatu zezala isunaren zenbatekoa eta hori zatikatu ahal izatea, gure ustez prozedura hori ez zelako zuzenena izan. Herritarrak ordainketa zatikatu zedila eskatzen zuen, eta horren truke, isunaren ordainketa monumentua konpontzeko erabil zedila. Udalak erantzun zuen onartzen zuela ordainketa zatikatzea eta herritarrak ordaindutako dirua monumentua konpontzeko erabiltzea, baldin eta bi aldeek epeak betetzen bazituzten.

Azkenik, egindako kudeaketa eta negoziaketa horien ondoren, bi aldeek erabaki zuten akordio hori onartzea, eta horrenbestez, amaitutzat jo genuen gure jarduna eta dosierra itxitzat jo genuen.

ERREG. ZK.: 2123/14 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA

Herritar batek adierazi zuen ezin zionez aurre egin bere etxebizitza zamatzen zuen hipotekari, ordainean eman ziola bankuari, hornidura guztien ordainketan egunean jarri ondoren. Gero, gainbalioaren zerga igorri zioten, bere etxebizitza saldu zuelako. Udalari jakinarazi zion etxebizitza ordainean eman ziola bankuari, izapide guztiak egiten lagundu zion bankuko langilearekin batera ere joan zen, baina Udaleko langileek behin eta berriz zioten salerosketa bat izan zela. Errekurtso bat aurkeztu zuen likidazio horren aurka, eta orduantxe jakinarazi zioten ezetsia izan zela. Kontua da eskualdaketa hori egin zutenean izenpetutako notario-eskrituraren arabera, subrogazio hipotekarioa zuen salerosketa bat zela.

Ordainketa zatikatu zezatela eskatu zuen, baina aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiriak eta BEZaren aitortpenak zeuden, bera autonomoa zelako. Gainera, banku-entitateekin zituen ordainketetan egunean ez zegoenez, ez zizkioten ziurtagiriak ematen, eta horrexegatik ezin zuen bere egoera ekonomiko larria frogatu. Hori dela eta, orientabide bat eskatzen zuen azaldutako arazo horren aurrean nola joka zezakeen jakiteko, eta ea ba ote zitekeen Udalak indarrrik gabe uztea gainbalioaren likidazioa.

Kasu hau, horrenbestez, herritarrek beren etxebizitza bankuari "ordainean ematera" behartuak izan diren beste hainbat kasuri gehituko litzaike, eta horrez gain, ohartzen dira Hiri Izaerako Lursailen Balio

Gehikuntzaren gaineko Zerga (HILBGZ) ere ordaindu beharko dutela. Estatuaren gainerako lurraldeetan, etxebizitza ordainean emate horiek aipatutako zerga hori ordaindu behar izatetik salbuetsita daude, baina Euskadin ez, Foru Arauan ez dagoelako horrela jaso.

Horregatik, 2014an, Sindikoaren Bulegoan gomendio bat egin genuen, eta bertan Udalari eskatzen genion Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailari eskaera bat igorri ziezaiola HILBGZ aldatzeko.

Nolanahi ere, Araban, arauak ezartzen duenarekin bat etorritik, teoriarik, etxebizitza ordainean ematen den kasuetan banku-entitatearen gain geratzen da gainbalioa ordaintzeko obligazioa. Hala eta guztiz ere, gerora ikusi genuenez, etxebizitza ordainean eman den kasuetan, bere etxea bankuari ematen zion pertsona kaudimengabeari zerga hori igortzen jarraitzen zuen Udalak, Udalaren iritziz egoera horiek ez zeudelako legean jasota.

Egoera horren aurrean, beste gomendio bat egin genuen berriro, eta proposatzen genuen etxebizitza ordainean ematen zen kasuetan zergaren likidazioa banku-entitateari igorri ziezaiotela, nahiz eta berriro azpimarratu genuen beharrezkoa zela estatuko arauan jasotako aurreikuspenak Arabako Herrialde Historikoaren eremura ere hedatzea.

Gomendio horiek egin arren, oraindik ez dituzte hartu bertan jasotzen diren neurriak. Edonola ere, zenbait indar politiko eta zenbait erakunde gomendio horietan jasotako erreformak egitearen alde agertu ziren. Gero, etxebizitza ordainean ematen zen kasuetan edo antzekoetan ordu arte egin izan zituen HILBGZren kobrantzak atxikitzea erabaki zuen Udalak, ahalik eta kalte txikienak eragiteko xedez, harik eta foru-araudia aldatzeko asmo hori gauzatzen zen arte.

Dena den, kasu hau berezia da, argi eta garbi etxebizitza ordainean ematen den kasu bat izanagatik ere, ez zelako formalki horrela jaso eskritoretan, baizik eta salerosketa bat bezala herritarraren bankuaren higiezin saileko filialaren, herritarraren eta bankuaren artean, etxebizitzaren prezioa kitatzeko zegoen zorraren zenbatekoarekin berdinduz.

Beraz, eskritoretan horrela jaso dagoen ordainean emate bati emandako tratu bera eman diezaiotela proposatzen dugu, eta halaber, etxebizitza bat finantza-entitateari, haren higiezin saileko filialei edo aktiboen kudeaketarako beste edozein entitateri saltzen zaionean, kitatzeko dagoen zorraren zenbateko osoaren truke. Ogasun Sailarekin harremanetan jarri ginen kasu horren inguruan hitz egiteko, eta haiek adierazi ziguten gainbalioaren kobrantza atxikita geratu zela harik eta indarreko araudia aldatu arte.

ERREG. ZK.: 2173/15 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA

Herritar batek adierazi zuen 2014an bere etxebizitza ordainean eman ziola zorretan zegoen banku-entitateari, eta horretarako, bi eskritura izenpetu zituen; alde batetik, ordainean ematekoa, eta bestetik, zorra barkatzekoa, etxebizitzaren tasazioak ez zuelako estaltzen banku-entitatearekin zuen zor osoa.

Kontuan egindako bahitura bategatik jakin zuen 6.000 euroko gainbalio bat ordaindu zezala erreklamatzeko ziotela, izan ere, ordurako ez baitzen helbide horretan bizi, eta ordainagiri bat bidali zioten. Gero Udaletxera joan zen gai horren inguruan informazioa jasotzera eta han esan zioten gai hori etenda zegoela, ordainketa zatikatzeko epea 24 hilabetetik 8 urtera zabaltzeko aukera aztertzen ari zirelako. Horretarako, erreklamaturako dokumentazio guztia aurkeztu zuen. Horregatik guztiagatik, gainbalioaren zerga ordaindu behar izatetik salbuesteko eskatzen zuen.

Kasu hau, horrenbestez, herritarrek beren etxebizitza bankuari "ordainean ematera" behartuak diren beste hainbat kasuri gehituko litzaieke, eta horrez gain, ohartuko dira Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga (HILBGZ) ordaindu beharko dutela, hau da, gainbalio izenez ezagunagoa dena, eta Gasteizko kasuan zenbateko garrantzitsua izatera iritsi daiteke. Estatuaren gainerako lurraldeetan, etxebizitzak ordainean emate horiek aipaturako zerga hori ordaindu behar izatetik salbuetsita daude, baina Euskadin ez, Foru Arauan ez dagoelako horrela jasoa.

Horregatik, 2014an, Sindikoaren Bulegoan gomendio bat egin genuen, eta bertan Udalari eskatzen genion Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailari eskaera bat igorri ziezaiola Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga aldatzeko.

Nolanahi ere, Araban, arauak ezartzen duenarekin bat etorritik, teoriarik, etxebizitza ordainean ematen den kasuetan banku-entitatearen gain geratzen da gainbalioa ordaintzeko obligazioa. Hala eta guztiz ere, gerora ikusi genuen, etxebizitza ordainean eman den kasuetan, bere etxea bankuari ematen zion pertsona kaudimengabeari zerga hori igortzen jarraitzen zuela Udalak, Udalaren iritziz egoera horiek ez zeudelako legean jasota.

Horregatik, egoera horren aurrean, beste gomendio bat egin genuen berriro, eta proposatzen genuen etxebizitza ordainean ematen zen kasuetan zergaren likidazioa banku-entitateari igorri ziezaiotela, nahiz eta berriro azpimarratu genuen beharrezkoa zela estatuko arauan jasotako aurreikuspenak Arabako Herrialde Historikoaren eremura ere hedatzea.

Gomendio horiek egin arren, oraindik ez dituzte hartu bertan jasotzen diren neurriak. Edonola ere, gomendio horietan jasotako erreformak egitearen alde agertu ziren zenbait indar politiko eta zenbait erakunde. Gero, etxebizitza ordainean ematen zen kasuetan edo antzekoetan ordu arte egindako HILBGZren kobrantzak atxikitzea erabaki zuen Udalak, ahalik eta kalte txikiak eragiteko xedez, harik

eta foru-araudia aldatzeko asmo hori gauzatzen zen arte, erreklamaziogilearen kasuan bezala etxebizitza ordainean ematen den kasuak jaso daitezzen eta, ziurrenik, zerga horretatik salbuetsita geratu daitezzen. Gainera, Ogasun Sailak jakinarazi zigun herritar horren kasu zehatza geldiarazi egin zela, bahitura-fasera igaro ez zedin, harik eta Foru Araua aldatzen zen arte, bazitekeelako epe luzera zatikatu ahal izatea edo azkenean araudiaren aldaketak erabakitzen duena bete dadin.

Gainera, kasu honetan oinarrituta, Ogasun Sailarekin harremanetan jarri ginen, eta gogorarazi genien oraindik ez zutela inolako erantzunik eman 2014ko irailean egin genituen gomendioen aurrean.

ERREG. ZK.: 2202/15 GAINBALIOA.JARAUNTSIA. JAKINARAZPEN AKASTUNA

Herritar batzuek bulego honetara jo dute, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga edo gainbalioa bide exekutiboan kobratzeari buruzko aholkua eskatzera. Amak, hil aurretik, salerosketa-kontratua gauzatu zuen bizi zen etxebizitzaren gainean, baina giltzak eman aurretik hil zen. Gero, jarauntsiari zegozkion izapide guztiak egin ziren, eta zergak likidatu ziren. Alabaina, duela gutxi egiaztatu dute udalak, oraindik deuseztatu gabe dagoen banku-kontu batean, kopuru txikiak bahitu dituela, eta, informazio bila joan direnean, 21.000 euroko zorraren ondorioz gertatu dela jakinarazi diete, amaren etxebizitzaren gainbalioari dagokiona, eta 3.000 euro gaineratu zitzaizkiola horri, ordainketan egondako atzerapenaren errekaruagatik.

Ez zutenez aipatu likidazioaren berririk izan, jakinarazpen guztiak hildakoaren izenean bidali baitziren salerosketaren xede izan zen etxebizitzara, atzerapenagatik sortutako errekaruak eta interesak ez kobratzeko eskatu zuten.

Ogasun Sailak emandako dosierrari erreparatuta egiaztatu genuen, hain zuzen ere, gainbalioari buruzko jakinarazpen guztiak hildakoaren izenean bidali zirela salerosketaren xede izan zen etxebizitzara. Eta hori, Errolda Zerbitzuan azaldu ziguten bezala, hirian erroldatutako pertsona bat hiltzen denean EINek udalari aipatu heriotzaren datuaren berri ematen diola, eta automatikoki erregistratzen dela hori.

Aplikatu daitekeen bilketa araudiari jarraiki, "akastun jakinarazpentzat" jo beharko litzateke hildakoari okerrez bidalitako jakinarazpena, eta, beraz, ezingo litzazkieke oinordekoei egotzi eurei bidali ez zieten jakinarazpen batetik eratorritako eta, beraz, nekez ezagut zitzaketen ondorioak:

Hortaz, Ogasun Sailari errekurtsua aurkezteko aholkatu genien oinordekoei, zorraren printzipala beren gain hartzeko baina errekaruak eta interesak ez hartzeko arrazoiak azal zitzaten bertan, aipatu errekurtsua epean zegoela ulertuta, udalak egindako jakinarazpenen ageriko hutsegitea zela-eta.

Errekurtsoa aurkeztu eta egun gutxira, errekurtsua balioesteko asmoa baieztatu zigun Ogasun Sailak, eta Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren 2015eko azaroaren 13ko ebazpenaren bidez egin zuten.

Horrela, bada, bulego honetan emandako aholkuak eta egindako izapideak eraginkorrak izan ziren erreklamazioaren aldeko ebazpena gauzatzeko. Hortaz, gure esku-hartzea amaitu genuen.

ERREG. ZK.: 2207/15 ISUNA. ARAU-HAUSTEA, UDALTZAINGOAK ESKATUTA.

Herritar batek isun bati buruzko erreklamazioa aurkeztu du. Zirkulazioaren arintasun edo segurtasun arrazoiengatik ordenamendua urratuz zirkulatzeagatik ezarri zioten isuna, Magdalena/Cadena y Eleta apezpikuaren kalean, hain zuzen ere. Isunaren zenbatekoa 200 eurokoa da. Aipatu kaleetarako sarbidean dagoen kamerak hartutako argazkiaren harira gauzatu da salaketa. Arrazoibideak aurkeztu zituen salaketaren aurka, eremuan zeuden udaltzaingoan aginduak betez zirkulatu baitzuen bide horietatik; izan ere, zabor-bilketarako kamioi bat trabatuta geratu zen Vicente Goikoetxea kalean, eta Cadena y Eleta kalera ari ziren bideratzen trafikoa. Alabaina, ez du berraztertze errekurtsua jarri ahal izateko zigortzeko ebazpenik jaso, eta, hala ere, epemugadun zorraren jakinarazpena iritsi berri zaio etxera, 210 euroko zenbatekoan. Horregatik, ezarritako zigorra deuseztatzea eskatu du, Udaltzaingoaren aginduz egin behar izan baitzuen arau-haustea.

Erreklamazioaren harira, alde batetik, informazioa eskatu genion Udaltzaingoari, salaketa eguneko jarduera-parteei buruzkoa, eta, bestetik, zigortzeko dosierraren kopia eskatu genion Ogasun Sailari. Azken hori aztertzean, herritarrak aurkeztutako arrazoibideak ageri ez zirela egiaztatu genuen. Beraz, inguruabar horren berri eman genion eskudun zerbitzuari, dosierra berrikus zezan. Adierazi zigutenez, ez zituzten kontuan hartu aurkeztutako arrazoibideak; izan ere, horietan ageri ziren salaketa-orriaren eta dosierraren zenbakiek zuela gutxiko beste zigor batekin egiten zuten bat. Kexagileak bere egunean abonatu zuen zigor horren zenbatekoa. Bada, erakunde honen aurrean aurkeztutako kexari dagokionez, eskudun zerbitzuak kontua berrikusi zuen, eta arrazoibideak balioestea eta dosierra ixtea erabaki zuen.

D) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2187/15 GAINBALIOA. ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEA.

Herritar batek adierazi zuen beren etxebizitza ordainean eman ziotela haren gaineko hipoteka zeukan banku-entitateari, baina Udalak gainbalioari dagokion 3.000 euroko zerga igorri ziela. Berez, etxebizitza ordainean eman bazen ere, eskrituran salerosketa gisa ageri zen. Etxebizitza bankuari eman ondoren, alokairuan bizi dira beste etxebizitza batean, eta gainbalioaren ordainagiria ordaintzez amaitu berri dute,

baina jakin nahiko lukete horrekin loturik zer edo zer egin daitekeen. Horregatik, beren kasua berrikusteko eskatzen zuen, ordainagiri hori balio gabetzeko aukerarik badagoen ikusteko.

Gainbalioa kalkulatzeko mekanismoa azaldu genien, nolako bidegabekeria den gaur egunean, krisiaren ondorioz etxebizitza bat saltzeak ez diolako saltzaileari onurarik ekartzen; izan ere, salmenta prezioa etxebizitza erosi zeneko prezioa baino txikiagoa izaten baita askotan. Era berean, etxebizitzarik gabe geratzen denari gainbalioa likidatu diezaiotela eragozten ahalegintzeko araudian nolako aldaketak egin diren azaldu genien. Gainera, herritarrari azaldu genion gainbalio hori kalkulatzeko 2004ko balioak hartzen direla, eta eguneratuta ez daudenez oso altuak direla.

Banku-entitatearekin izenpetutako kontratuan etxebizitza ordainean eman dela jarri arren, etxebizitza horrek 150.000 eurotik gorako balioa zuenez, araudian egindako aldaketak ezingo lirateke aplikatu, eta gainbalioa ordaintzera behartuta leudeke. Bestalde, etxebizitza banku-entitateari saldu izan ez balio, etxegabetu egingo zuketena eta, horren ondorioz, ez zukeen gainbaliorik ordainduko, baina bankuari zorra ordaindu beharko ziokeen. Azkenik, jakinarazi genion egoera hori aldatzen ahalegintzen ari garela, eta irtenbide bakarra gainbalio gisa ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskubidea onartuko duen araudi bat onestea izango litzatekeela, etxebizitza ordainean ematen den kasuetan edo antzekoetan, atzeraeraginezko izaeraz.

ERREG. ZK.: 2200/15 APARKATZEKO TXARTELA DESGAITASUNEN BAT DUTENENTZAT. INDARRALDIA.

Pertsona batek kexa jarri du gure bulegoan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkatzeko txartela 2013tik iraungita edukitzeagatik isuna jaso ostean. Isuna ordaindu du, baina txartela berritzeko unean jakinarazi diote 2-3 hilabete artean itxaron beharko duela berria eskuratzeko. Horren ondorioz, aldi horretan ezingo du gordetako lekuetan aparkatu. Bere ustean, berritzea eskatu duelako nolabaiteko ziurtagiria jaulki beharko litzateke, iraungitako txartelaren ondoan erakutsi ahal izateko, berritzea izapidetu artean.

Hortaz, txostena eskatu genion Ogasun Sailari, bai trafikoko zigor unitateak jarraitzen duen irizpidea baieztatzeko, bai txartela berritzen dutenei ematen zaien informazioaren berri izateko.

Erantzun-txostenean, araudi aplikagarria jaso da. Horren arabera, "Aparkatzeko txartela berritzeko eskaera araudi aplikagarrian aurreikusitako epean aurkeztzen bada, aurretik jaulkitakoaren baliozkotasuna luzatuko da, prozedura ebatzi artean. Jaulkitako azken txartelaren indarraldia amaitu ondorengo laurogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztzen bada eskaera, aipatu indarraldiak berritzeko prozedura ebatzi artean iraungo duela ulertuko da (...)".

Hortaz, mugikortasun murriztua dutenentzat gordetako lekuan iraungitako txartelarekin aparkatzeagatik ezarritako zigorra zuzena da. Txartel berria eduki artean gordetako lekuetan aparkatzeko aukerari edo aukeragabeziari dagokionean, adierazten dugu erreklamazioa jarri zuen datan berritzea eskatua bazuen ere, txartelaren indarraldia amaitu osteko 90 egunak igaro ondoren eskatu zuenez, ez litzatekeela ulertu beharko aurreko txartelaren indarraldia txartel berria eman bitartean luzatzen denik.

ERREG. ZK.: 2201/15 GAINBALIOA. KATASTRO-BALIOAK

Katastro-balioen inguruko erreklamazioa aurkeztu digu herritar batek, jaraunspenean etxebizitza bat jaso eta bere oinordekoei dohaintzan ematea pentsatu ostean. Katastro-balioak ondasunen benetako balioa gainditzen duela uste du, eta bere ezinegona adierazi du, hortik eratortzen diren zerga ondorioak direla-eta.

Katastro-balioen izaerari buruz orientatu genuen ahoz, eta Arabako Foru Aldundian katastroberrikuspenera egitea eskatzeko aukeraren inguruko iradokizuna egin genion.

ERREG. ZK.: 2206/15 GAINBALIOA.JARAUNTSIA

Herritar bat gure bulegora etorri zen, herentziaz eskuratu zuten etxebizitza baten salmentagatik igorri zioten gainbalioaren likidazioa argitu geniezaion.

Hain zuzen ere, duela hamalau urte bere amak eskuratu zuen etxebizitza bat da, eta duela hiru urte, ama hil zenean, bere eskuetara igaro zen eta orduz geroztik legez zegozkion zerga guztiak ordaindu zituen eta zegozkion paper guztiak bete zituen. Orain, etxebizitza saldu duenean, gainbalioa duela hamabost urtetik hona kalkulatu diote, hots, aita hil zenetik. Adierazi dute bi alditan ordaindu dutela gainbalioa, lehen aldian 4.000 euro eta orain 7.000. Errenta-aitorpenean, etxebizitza hori diru gutxiagoren truke saldu zenez gero, kontuan hartu zioten, baina gainbalioan gehiago ordaindu behar izan zuten. Adierazi digute, gainera, Udaletxera informazio gehiagoren bila jo izan dugunean, *“esplikatzeko zaila zela”* erantzun zietela. Horregatik, heredatutako etxebizitzaren salmenta zela eta, igorritako HILBGZren likidazioaren gaineko azalpen bat eskatzen zuten.

Herritararekin izandako lehen bileran, ahalik eta modurik argienean azaltzen saiatu ginen. Higiezin bat edo horren parte bat eskualdatzen den bakoitzean Udalak kobratzen duen zerga bat da gainbalioa.

Teorian, higiezin batek, erosten denetik saltzen den arte, balio-gehikuntza bat izaten du, eta balio-gehikuntza hori da zergapetzen dena. Oro har, higiezina eskualdatzen duen pertsonak ordaintzen du zerga hori, baina herentzian eskualdatzen den kasuetan, oinordekoak ordaintzen du hildakoaren kontura. Arau horiek kasu honetan aplikatuz gero, honela azaldu liteke:

2000. urtean, herritarrek etxebizitzaren % 50aren herentzia jaso zuen, eta eskualdaketa herentziagatik izan zenez gero, jasotako % 50 horren gainbalioa ordaindu zuen, gainerako % 50 hori amari zegokiolako, oraindik ere bizi baitzen, eta eskualdaketarik izan ez zenez, ordu arte ere etxebizitzaren ehuneko horren titular baitzen, amak ez zuen gainbaliorik ordaindu beharrik izan. 2011. urtean ama hil zen, eta beraz, gainerako % 50 hori eskualdatu zitzaion, eta % 50eko eskualdaketa hori herentziaz jaso zuenez gero, alabak ordaindu behar izan zuen gainbalioa. Hiru urte geroago, etxebizitza osorik saldu zuenean, eta eskualdaketa berri bat egin zenez gero, berriro gainbalioa ordaindu behar izan zuen, oraingo honetan saltzaile bezala.

Kasu honen berezitasuna dela eta, etxebizitza hori ez zen aldi batean osorik eskuratu, baizik eta bi une desberdinetan eskuratu zuten, eta beraz, etxebizitzaren % 50 batek beste % 50ak baino antzintasun handiagoa du. Beraz, Udalak bi gainbalio desberdin kobratu dizkio, bi ehuneko desberdinekin, eta horrenbestez, Udalak kobratutako diru-zenbatekoak zuzenak izan ziren.

ERREG. ZK.: 2231/15 GAINBALIOA. KATASTRO-BALIOAK.

Herritar batek jabekidetzan zuen etxebizitza bat saldu zuen, 70.000 euroko prezioan, eta gainbalioa likidatzeko balio bat hartu zuen erreferentziatzat. Kontua da ez zegoela balio horrekin ados, salmenta prezioa gainditzen baitzuen (118.459 euro). Bere ustez, beste modu batera kalkulatu beharko litzateke zerga, edo izena aldatu, balioa ez baitzen handitu. Udalak katastro-balioak eta zerga mota berrius zitzala iradoki zuen. Idazki bat aurkeztu zuen udalean, egoeraren ondoriozko ezinegona adieraziz. Kexagilearekin aukera anitzen alde onak eta alde txarrak aztertu ondoren (zerga motaren murrizketa, mota ezberdinak aplikatzea salmenta balioaren arabera...), irtenbide egokiena katastro-balioak berrikustea izango litzatekeela ondorioztatu genuen. Azken aldiz 2005ean berrikusi ziren.

ERREG. ZK.: 2234/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA.

Pertsona batek aholkua eta laguntza eskatu ditu, ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioa aurkezteko aukerari dagokionez. Izan ere, senide bat Gamarrako udal instalazioetan erori zen, aldageletarako sarbidean, lurra bustita egoteagatik.

ERREG. ZK.: 2245/15 ISUNAK. KAUDIMENGABEZIA.

Herritar batek aholkua eskatu du, kontzeptu ezberdinengatik (isunak, zergak eta abar) Gasteizko Udalarekin dituen zorrak direla-eta. Zenbatekoa areagotzen ari dela azaldu du, ezin baitio ordainketari aurre egin, eta atzerapenengatiko errekaruak eta interesak gehitzen ari zaizkiola.

Bere bizilekuaren arabera dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan hitzordua eskatzeko adierazi diogu, bere egoera eta egokitu ahal zaizkion prestazioak balora ditzaten, eta Bilketarako Zerbitzuan eska dezakeen zatikapenaren inguruan orientatu dugu.

ERREG. ZK.: 2271/15 GAINBALIOA. JARAUNTSIA ETA SALMENTA.

Herritar bat kexu da hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak kalkulatzeko erabiltzen diren katastro-balioak direla-eta, 2013an herentzian jaso zuten etxebizitza 2015ean saldu ostean. Horren ondorioz, bi aldiz sortu da zerga hori, eta, horren kalkulua egiteko, 270.000 euroko katastro-balioa hartu da erreferentziatzat, 120.000 euroren truke saldu denean.

Egun, askotan, katastro-balioak merkatuko prezioak baino handiagoak izateko arrazoiak azaldu genizkion kexagileari, bai eta horrek eragiten dituen emaitza bidegabeak ere, izan ere, ez da benetako gainbaliorik edo balio handitzerik gertatzen. Behin betiko irtenbidea katastro-balioak berrikustea litzateke, foru administrazioaren eskumena hori. Bulego honetan askotan nabarmendu dugu alderdi hori, eta egiten jarraituko dugu, egoerari erantzun artean.

E) IDAZKI LAGUNDUA

ERREG. ZK.: 2041/14 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN LIKIDAZIOA BERRIKUSTEA.

Babes ofizialeko etxebizitza baten jabe den herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Sindikoaren Bulegoan, 2014. urteko OHZ kontuan kargatuko ziotelako abisua jaso ondoren, zerga-oinarri gisa erabilitako katastro-balioa 2013ko azaroan aldatutako gehieneko salmenta-prezioaren berdina zelako. Adierazten zuen Katastroaren aldetik ez zuela jaso aldaketa horren inguruan inolako jakinarazpenik. Arrazoi horregatik, OHZaren likidazioa berrikus zezatela eskatzen zuen, bere iritziz zerga-oinarri horrek aurreko katastro-balioarekin bat etorri behar zuelako.

Katastro-balioen aldaketen gaineko jakinarazpenei buruzko informazioa bildu nahirik, idatzi bat prestatu genuen katastroari zuzentzeko. Horrez gain, berraztertze-helegitea prestatzeko orduan herritarrari aholku eman ahal izateko, zerga horren inguruan ahalik eta informaziorik zabalena bildu genuen.

Lehenago ere, beste ekitaldi bateko zergaren likidazioan, zerga-oinarria aldatu zitzaien, baina aldez aurretik jakinarazita, legeak ezartzen baitu zerga-oinarrien aldaketa guztiak zergadunari jakinarazi behar zaizkiola balio horiek eragin bat izango duten ekitaldiaren aurreko urtea amaitu aurretik.

Azkenik, erreklamaziogileari berraztertze-errekurtsoa idazten lagundu genion, eta bertan, egindako likidazio hori baliogabetu zezatela eskatzen zuen.

ERREG. ZK.: 2149/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. ERORKETA, LAUZEN EGOERA TXARRAGATIK. BIDEOZAINZA-KAMEREREK GRABATUA.

Justizia-jauregiaren ondoan izandako istripu larri baten ondorioz une horretan ezinduta zegoen pertsona batek deitu zigun. Lauzak egoera txarrean zeudelako erori zen. Orientabidea eskatu zigun, Udalari erreklamazioa aurkezteko, eta justizia-jauregiko segurtasun-kameren grabazioen kopia eskuratzeko. Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo genuen aholku eske, grabazioa eskuratzeko moduari buruzko informazioa eman ziezaguten. Eusko Jaurlaritzako Justizia-administrazioaren Zuzendaritzaren esku dagoela erantzun ziguten. Grabazioa eskatzeko idazkia lantzen lagundu genion, berak aurkez zezan. Handik aste gutxira jakinarazi zigun grabazioaren kopia jasoa zuela, eta bertan argi eta garbi ageri zela nola erori zen.

ERREG. ZK.: 2175/15 ZABOR-TASA. ERREKLAMAZIOA, EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA DELA ETA.

Herritar batek erreklamatu du Zerga Kudeaketarako Zerbitzuak zabor-tasaren behin-behineko likidazio-proposamena igorri diola, azken lau urteetako zabor-tasari dagokiona, 300 eurokoa, egiaztatu ondoren "120 m² arteko etxebizitzak" epigrafearen arabera ari zela ordaintzen, eta, aldiz, "Denda, bulego eta ikastegiak, 50 m²tik 100 m²ra arte" epigrafearen arabera, zegokion bezala.

Erreklamatuzaileak adierazi digu zabor-tasa hirugarren bati ohiko etxebizitza gisa alokatua zion etxebizitza bati dagokiola, eta hark, antza, jarduera bati alta eman ziola bertan, baina higiezina aspaldian utzi zuela, aurkeztu dizkigun fakturek erakusten dutenez.

Proposamen horren aurrean alegazioak aurkeztu ondoren, zati batean onestea erabaki da, eta ez zaio likidazioan sartu azken urtea. Nolanahi ere, ez dagoenez ados, laguntza eskatu digu berraztertzeke errekurtsua aurkezteko.

ERREG. ZK.: 2179/15 ORDAINKETA ZATIKATZEA. ISUNAK ETA ZERGAK.

Herritar batek adierazi zigun 1.440,15 eurora iristen diren zenbait isun eta zerga dituela Udalari ordaintzeko. Isunak eta zergak zatikatzea eskatu zuen, baina hamabi epetan zatikatzea bakarrik onartu zioten, eta beraz, hilean 120 euroko kuota ateratzen zitzaion, baina bere egoeran ezin zion zenbateko horri aurre egin, bere soldataren erdia baino gehiago etxebizitzaren alokairurako erabili behar zuelako; alokairua 600 eurokoa zuen. Horrek esan nahi zuen bahitura izapidetuko ziotela eta bere gordailuak blokeatuko zizkiotela. Horregatik eskatzen zuen epe luzeago batez zatikatzea onar ziezaiotela, zenbateko txikiagoko kuotekin.

Erreklamazioaren ondoren, gutun bat idazten laguntzea erabaki genuen, zorra baldintza onuragarriagoetan zatikatu zezatela eskatzeko. Eskaera hori ukatu egin zion Diru-bilketa Zerbitzuak.

Ezespen horren berri jakin genuenean behin eta berriz saiatu ginen Ogasun Saileko arduradunarekin hitz egiten, baina ez genuen lortu. Hala, herritarrari gomendatu genion pixkana-pixkana ordaindu zezala zorra, handiagoa egin ez zedin, eta hilabete geroago herritar horrek adierazi zigun onartu ziotela zorra zatika eta esku-dirutan ordaintzea, eta hilabeteren batean ordaintzen ez bazuen edo epearen barruan ordaintzen ez bazuen, ez ziotela esekitzen. Horrenbestez, herritarrak eskatzen zuena egitatez onartu ziotela ikusi zuen.

ERREG. ZK.: 2198/15 BAHITURA TRAFIKO-ISUNAREN ZORRAGATIK.

Herritar batek adierazi zigun zenbait trafiko-isunengatik eta bestelako zorrengatik Udalarekin zeukan 2.200 euroko zorraren ondorioz, bere kontuan bahitura bat egiten saiatzen ari zirela, baimendutakoa baino zenbateko handiago batez, hilean 800 euro eta 1.000 euro bitarteko bere diru-sarrerak erabiliz. Bere garaian zatikatzea onartu zioten arren, hileko kuotak ordaintzeari utzi behar izan zion, beste gastu batzuk ere sortu zitzaizkiolako eta haiei ere aurre egin behar izan zielako. Horregatik orientabide bat eskatzen zuen, lege ezarritakoak baino zenbateko handiagoak bahitu ziezazkiotela eragozteko.

Adierazitakoa kontuan izanik, dagokion Bankuari eta Udaleko Ogasun Sailari zuzenduko zaion agiri bat idazten lagundu genion erreklamaziogileari, ezarritako lege-muga baino zenbateko handiagoak ez bahitzeko eskatuz.

ERREG. ZK.: 2239/15 ISUNA MUGIKORRETIK HITZ EGITEAGATIK ETA GIDARIA EZ IDENTIFIKATZEAGATIK.

Zigortzeko ebazpen-jakinazpena jaso du, ibilgailuko gidaria ez identifikatzeagatik, ibilgailua enpresarena baita. Salaketan jaso denez, gidaria telefonoz hizketan zihoan gidatu bitartean, nahiz eta hark adierazi duen telefonoa esku librekoa dela. Berraztertzeko errekurtoa egiten lagundu genion. Gero jakinarazi zigun atzera bota ziotela errekurtoa, baina administrazio-dosierari erreparatuta, ez dugu behar besteko elementurik ikusi isunari aurre egin edo bestelako jarduerarik egiteko.

ERREG. ZK.: 2267/15 ISUNA. BIGARREN ILARAKO APARKAMENDUA.

Gidari batek bulegora jo du, "zirkulazioari gordetako erreian oztopatuz aparkatzeagatik" zigorra jarri ziotelako, 200 euroko isunarekin. Adierazi duenez, zirkulatzeko norabide bereko bi errei dituen kale batean aparkatu zuen bigarren ilaran, eta, beraz, ez luke zirkulazioa oztopatuko.

Gure laguntza eduki du jakinarazi dioten zigortzeko ebazpenaren aurkako berraztertzeko errekurtoa idazteko.

F) EZESPENA

ERREG. ZK.: 2089/14 TAO ISUNA, EGOILIARRENTZAKO EREMUAN.

Herritar batek jo zuen gure bulegora, Aska kalean gaizki aparkatzeagatik jarri zioten isuna zela eta. Adierazten zuenez, TAO eremu batean aparkatu zuen, doako txartela jarrita, hamabost minutuz. Desadostasuna agertu zigun, ezen, alegazioak aurkeztu ondoren, aldatu egin baitzen tipifikazioa; izan ere, hasiera batean aparkatzeko txartelik ez zuela esaten zen, eta gero, berriz, eremu hori egoiliarrentzat bakarrik dela. Zigorra berrikus zedila eskatzen zuen, eta ordaindutako kopurua itzul zekiola.

Prozedura zigortzailearen azterketatik ondorioztatu genuen ez zela aldatu zigortze-mota, ezta isuna jartzea ekarri zuten gertakariak ere, eta, era berean, zigortutako jokabidearen deskribapena aski zehatza izan zela, eta arau-hausleari aukera eman ziola hautsitako araua zein zen jakiteko, eta, beraz, ez zegoela defentsa-gabeziarik argudiatzerik.

Zona bisitatu genuelarik —Aska kaleko aparkalekuan okerbidera eraman zezakeen elementurik ote zegoen ikusteko—, seinaleztapena zuzena zela ikusi genuen.

Horrenbestez, uste dugu Udalaren jarduketa zuzena izan dela ikuspegi juridikotik, eta ez dagoela erreklamatzailerak egindako eskabidea onartzearen aldeko ebazpenik ematerik.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2104/14 GAINBALIOA. JARAUNTSIA

Emakume batek jakinarazi zigun joan den urtean anaia hil zitzaiola; amari etxebizitza bat utzi zion herentzian, ama bera izan zen etxebizitza horren hipotekaren abal-emaile, baina 125.000 eta 140.000 euro bitarteko zorra zeukan etxe horrek. Abal-emaile izan zenez gero, amak ezin zion herentzia horri uko egin, eta Udalak 4.294 euroko gainbalioa igorri zion. Azpimarratu nahi du bere amak 600 euro inguruko erretiroa jasotzen zuela. Herentzian jasotako zorrari aurre egin ahal izateko, erreklamaziogileak saldu egin behar izan zuen bere jabetzako etxebizitza, eta neurrigabea iruditzen zitzaion Udalak zenbateko hori duen zerga bat kobratzea, subjektu pasiboaren egoera ekonomikoa kontuan izan gabe. Aurreko horregatik guztiagatik, gainbalioaren kontzeptupean ordaindutakoaren zati bat itzul ziezaiozela erdiesteko aukera aztertzeke eskatzen zuen.

Sindikoaren bulegoan sarritan erakutsi dugu zein den gure jarrera, zerga horrek dituen ondorio bidegabeen inguruan, eta guztira, sei gomendio egin ditugu. Horrez gain, Administrazio desberdinek zerga horrek kasu berezi batzuetan dituen ondorio kaltegarriak arintzeko neurriak hartu izan dituzte, eta horietako gehienak ustezko etxegabetze-kasuetan edo herentziagatik gainbalioaren kasuetan hobariak hobetzeko asmoz egin dira. Nolanahi ere, oraindik alderdi batzuk ez dira aztertu, esate baterako, katastroko balioen beharrezko berrikuspenari dagokiona.

Kasu zehatz honi dagokionez, herritarrarekin elkartu ginenean adierazi genion zer baldintza ezartzen zituen Hiri Izaerako Higiezinen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalak, heriotza-kasuetan etxebizitzak eskualdatzeagatik hobariak onartzeko orduan. Herritarraren amaren kasuan, ez ziren betetzen hobari horiek jaso ahal izateko baldintza guztiak, hala nola herentzian jasotako etxebizitza hori bere ohiko bizilekua izatea, eta gure iritziz, baldintza hori egokia da hobariaren helburua zein den ikusita, hau da, herentzian jasotako etxebizitzan hildako pertsonarekin bizi zen zuzeneko senitartekoari tratu onuragarriago bat ematea.

Beste alde batetik, indarreko araudiaren gainerakoa aztertu ondoren, ez dugu aurkitzen argudio juridikorik herritarrak ordaindutako zenbatekoa itzuli dadila justifikatuko duenik, horrek ondorio lazarriak eragin arren. Beraz, gure ustez, Udalaren jarduna zuzenbidez egokia izan zen, eta horrexegatik, ezin izan genuen erreklamazioaren aldeko ebazpenik eman.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2108/14 GAINBALIOA. JARAUNTSIA

2013. urtean aita hil zitzaion herritar batek epe jakin bat zuen herentzian jasotako etxebizitzagatik Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga likidatzeko, baina horrez gain, urte erdiko luzapen bat ere onartu zitzaion. Epe horren barruan, Sindikoak egindako gomendioa dela eta, 2014ko martxoan aldatu egin zen zerga hori arautzen duen ordenantza, eta hala, hobari-tarte desberdinak kontuan hartzen hasi ziren, mortis causa eskualdaketaren xede den etxebizitzan bizi ohi den oinordekoaren errenta kontuan izanik. Aldaketa horren arabera, hobariren bat aplikatu ahal izango zitzaion.

Herritarraren iritziz, bidezkoa zen araua atzeraeraginez aplikatzea, beraren aldeko eragina zuelako; ordenantzak ez du jasotzen inolako xedapen iragankorrik eta zehapen eta gainkarguetan atzeraeraginez aplikatu ahal izatea jasotzen du zergaren foru-arauak. Adierazitako kasu horretan, ezingo luke % 95eko hobaria eskuratu, baina tarte berrien arabera, % 50eko murrizpena izan dezake. Horrez gain, erabiltzaileak adierazi zigun idatzi bat egin ziola Udalari, eta oraindik ez zuela horren erantzunik jaso. Horregatik, gainbalioa arautzen duen ordenantzaren aldaketan sartutako hobariak atzeraeraginez aplikatu zitezela eskatzen zuen.

Kasu horri buruzko informazio gehiago bildu asmoz, zerga-arauen atzeraeraginari buruzko ikerketa jurisprudentzial bat egin genuen, eta Ogasun Sailarekin harremanetan jarri ginen benetan egiaztatzeko zerga honen sortzapen-data, heriotzagatik eskualdatzen den kasuetan, kausatzailearen heriotza-data dela, eta horrenbestez, kasu horri aplikatu beharreko Ordenantza heriotza gertatu zen egunean indarrean zegoena zela. Gainera, 2014. urtean onetsitako ordenantzak ez zuen atzeraeraginik.

Ogasun Sailak emandako erantzuna eta 2014. urterako HILBGZren Ordenantza Fiskala kontuan izanik, uste dugu Udalaren jardura egokia izan dela ikuspegi juridikotik, eta horrenbestez, ezin genuen onetsi egindako eskaera.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2135/15 TRAFIKO-ISUNA. JAKINARAZPENA.

Getxoko herritar batek erreklamazioa aurkeztu zuen, bere etxebizitzan jakinarazpen bat jaso zuelako Udaltzaingoak ezarritako isun batekin lotutako 105 euroko zor bat bere mugaegunera iritsia zela zioena; izan ere, hasierako zenbatekoa gehituta baitzeterren, borondatezko ordainketa-aldian ordaindu ez izanaren ondorioz. Adierazi zuen ezin izan ziotela borondatezko epealdian berari jakinarazpenik egin, epe horretan azkar ordaintzeagatik beherapenez baliatu ahal izateko, baina aitzitik, bere helbidea erdietsi zuten, isuna gainkargu batekin jakinarazteko.

Herritarraren iritziz, dirua biltzeko borondateari zor zitzaion hori, eta hori, hots, ALHAOean ohar bat argitaratuz isuna jakinaraztea oso ohiko prozedura izan arren, bere iritziz legezkoa izan zitekeen baina baita iluna ere, deskuidu bategatik edo arduragabekeriagatik eragindako isunen ordainketari aurre egin nahi diotenentzat. Bere iritziz, herritarrarekiko errespetu eta moraltasun falta nabarmena zen hori.

Beste alde batetik, herritarrak egindako erreklamazio hori dela eta, Diru-bilketarako Zerbitzuari dosierraren kopia bat eskatu genion, zehapen-prozeduraren inguruko dokumentazio guztia biltzearren, eta hori aztertuta ondorioztatu daiteke, Udalak egindako izapideak kontuan izanik, indarreko legeriak ezarritako izapideak argi eta garbi betez eta herritarraren helbidean egin zela jakinarazpen hori.

Jakinarazpena ekintza formal bat da, baina ez irmoa. Jakinarazpena egiteko moduaren eta edukiaren inguruko betebeharrak ezin zorrotzago bete behar dira. Interesatuak defendatzeko eta aurka egiteko dituen eskubideak bermatzeari begira jakinarazpenak garrantzi berezia eduki arren, legeak ez du eskatzen segurtasunez egiaztatua egotea interesatuak ebazpen hori benetan ezagutu duenik, baizik eta Administrazioari legeak eskatzen dizkion formalizazioak bete ahal izan dituen neurrian, jakinarazpen hori egindakotzat joko da, eta ebazpenak bere ondorioak izango ditu interesatuaren gainean.

Aurreko hori ikusirik, Udalaren jarduera juridikoki zuzena izan zen, eta ezinezkoa da herritarrak egindako eskaera baietsiko duen ebazpen bat ematea.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2137/15 BAHIKETA, ZIGORRA EZ ORDAINTZEAGATIK.

Pertsona batek jakinarazi zigun titularra den kontuko saldoa bahitu ziotela, eta, itxura batean, eskandalu publikoagatik jarritako isun bat ez ordaindu izanari zor zitzaioela hori. Berak esandakoaren arabera, hilabete batzuk lehenago gertatu zen hori, udaltzainek identifikatzeko eskatu ziotelarik —ustez bizikletarekin arau-hauste bat egin zuelako—, baina ez deritzo isuna jartzeko motiborik izan zenik. Bidegabetzat jotzen du egoera, botere-abusutzat, berak ez baitu inongo diru-sarrerarik, eta kontu horretan aurrezten duen dirua besterik ez baitu sartzen, bere gastuetarako, unibertsitateko matrikula ordaintzeko eta abar. Orientabidea eskatu zigun horregatik, zer egin zezakeen galdetu zigun.

Erreklamazioa jaso ondoren, alde batetik leporatzen zitzaion Herritarren Segurtasunaren Lege Organikoaren kontrako arau-hauste arinaren dossier zigortzailearen kopia eskatu genuen, eta bestetik, berriz, isuna kobratze aldera izapidetutako premiamendu-dosierraren kopia, Ogasun Sailari.

Dosier zigortzailea irakurrita, bahiketa ekarri zuen isuna arau-hauste bati dagokiola ikusi ahal izan genuen: "agintaritzaren agenteen aginduak ez betetzea eta bide publikoan desordena sortzea", hori izan bide zen arau-haustea, hain zuzen ere.

Isun horren oinarritzat, administrazio-dosierrean jasota ageri da Udaltzaingoak egindako txostena, non adierazten den liskarra izan zela, eta zehatz-mehatz azaltzen den zertan izan zen hori. Sindikoaren bulego honek udaltzainen bertsioa errefusatzea ekar lezakeen beste aztarnarik ez duenez, ezpada erreklamatzailerak kontatutakoa, agenteen lekukotasuna lehenetsi beharra dago, egiazkotasun-ustekizuna berekin dutenez. Era berean, ondorioztatzen dugu txostenean azaltzen diren gertakariak ongi egokitzen zaizkiola emandako kalifikazioari: "agintaritzaren agenteen aginduak ez betetzea eta bide publikoan desordena sortzea".

Formalki, zigor ekonomikoa jartzea ekarri duten izapideak aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu legearekin bat datozeela egindako izapideak.

Bahiketari dagokionez, isunaren zenbatekoa norberaren borondatez ordaintzeko epea igarota izaki, gainordainak eta berandutze interesak gehitzen hasi ziren, eta premiamendu-prozedurari ekin zitzaion, betearazte-bidean kobratzeko, eta, horren ondorioz, erreklamatzailerak titular zen gordailuak bahitu ziren.

Beraz, Udalak egindako izapideak aplikatzekoa den legediarekin alderatu ondoren, ondorioztatu beharra daukagu kasu honetan Udalaren jardura juridikoki zuzena izan dela, eta jarritako zigorra bat datorrela — arrazoizkoa dela— salatzen diren gertakariekin.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2138/15 TRAFIKO-ISUNA. JAKINARAZPENEA.

Herritar batek gehiegizko abiaduran zirkulatzeagatik 300 euroko zigor ekonomikoa eta gida-baimenean bi puntuko galera ezartzen zion ebazpen baten jakinarazpenaren inguruko kexa adierazi zigun. Ordu arte ez zuen bere semeak egindako lege-hauste horren berririk izan, eta horrexegatik ezin izan zuen gidaria identifikatu, ezta alegazioak aurkeztu edo azkar ordaintzeagatik murrizketaz baliatu ere. Adierazi zuen hilabete batez bere etxebizitzatik kanpo egon zela, urriaren 1etik 31ra, baina bere etxera itzultzean, ez zegoen Correosen inolako ohartarazpenik postontzian, eta beraz, ezin izan zuen zehapen-prozedura hori abian jarri zenik jakin. Horregatik, isuna indargabetzeko egin beharreko urratsei buruzko orientazioa eskatzen zuen.

Berraztertze-helegitea aurkezteko epea irekita zegoenez, erreklamaziogileari lagundu egin genion hori idazten, eta dosierra ixtea erabaki genuen.

Handik gutxira, ezesp-en-ebazpena jakinarazi zitzaien, eta herritarra babesik gabe sentitzen zenez azkar ordaintzeko aukeraz baliatzerik izan ez zuelako, dosierra berriro irekitzea erabaki genuen, dosierraren kopia jaso ondoren, horren izapideak legearen arabera egokitu ote ziren aztertzeko, eta bereziki, herritarrak alegatzen zuen moduan, dossier hori abiarazteko ebazpenaren berririk izan ote zuen jakiteko, jakinarazpen horiek egoki egin ote ziren erabakitzearen.

Jurisprudentziak ezartzen du jakinarazpena ekintza formal bat dela, baina ez irmoa. Jakinarazpena egiteko moduaren eta edukiaren inguruko betebeharrak ezin zorrotzago bete behar dira. Administrazioak legeak eskatzen dizkion formalizazioak bete ahal izan dituen neurrian, jakinarazpen hori egindakotzat joko da, eta ebazpenak bere ondorioak izango ditu interesatuaren gainean, legeak ez duelako eskatzen segurtasunez egiaztatua egotea interesatuak ebazpen hori benetan ezagutu duenik. Ebazpena bidaltzen den helbidea zuzena baldin bada eta Administrazioak ez badu beste baten berririk, horrez gain ezin zaio eskatu bidalketaren unean interesatutako pertsona non dagoen jakiteko ikerketarik egitea, batez ere izapidetzen diren zehapen-dosierraren bolumena eta horrelakoak eragiten dituzten jakinarazpen ugariak kontuan izanik.

Kasu honetan, Udalak ez zekien herritarra etxetik kanpo aurkitzen zela jakinarazpena egin zitzaienean, ezta non zegoen ere. Dossierrean ageri den dokumentazio ikusirik, indarreko legeriak eskatutako izapide guztiak eginez bidali zitzaien jakinarazpena, beti ere interesatuak adierazitako helbidera, eta beraz, Udalaren jardura juridikoki zuzena izan zen eta horrexegatik dosierra ixteari ekin genion.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2140/15 ISUNA, BAHIKETAREKIN, ZAMALANETARAKO EREMUAN.

Herritar bat kexu ageri da Udalak 244 euroko zenbatekoa bahitu diola eta, zamalanetarako eremuan aparkatzeagatik jarritako isun baten ondorioz. Alegazioak aurkeztu zituen, eta gerora berraztertzeke errekurtsua, baina horren ebazpena jakinarazi aurretik 200 euroko isuna erreklamatu zioten, gehi gainordainak eta berandutze interesak, eta hori dela eta beste erreklamazio bat aurkeztu du.

Kasu honetan bi kontu ditugu: batetik, isuna bidezkoa izan zen ala ez, eta bestetik, berriz, isuna eta gainordainak berraztertzeke errekurtsua ebatzi aurretik betearazteari dagokiona.

Isunaren egokitasunari dagokionez, dosierra aztertu ondoren ondorioztatu genuen zuzena izan zela eta bat zetorrela zuzenbidearekin. Izan ere, alde batetik ez zen aurkeztu prozeduraren baitan inongo frogarik, poliziaren salaketaren egiazkotasun-ustekizuna hautsiko zuenik, eta, horren arabera, ibilgailua zamalanetarako eremuan zegoen aparkatua, eta, bestetik, Trafiko Legearen argitan, arau-hauste hori

larrizat sailkatu beharra dago, eta gutxienez 200 eurokoa da halako arau-hausteengatik jarri beharreko isuna.

Administrazioak berraztertzeko errekurtsua ebatzi aurretik isuna premiamendu-bidean ordainarazteari dagokionez —interes eta gainordainekin ordainarazi ere—, hainbat gomendio egin ditugu bulego honetatik, non argi utzi izan dugun administrazioak ebatzi beharra daukala, eta hori ez dela iraungitzen edo preskribatzen, eta gomendatu izan dugun, oro har, ez dadila premiamendu-bidera jo trafikoaren alorreko isunak kobratzeko harik eta ebazpen zigortzailea irmo izan arte.

Nolanahi ere, kasu zehatz honetan, ez da aplikagarri interpretazio hori. Izan ere, administrazio-dosierra aztertu dugularik, ikusi ahal izan dugu berraztertzeko errekurtsua legezko hilabeteko epetik kanpo aurkeztu zela eta, beraz, zigorra irmoa zela ordurako, eta betearazte bidetik jotzerik bazegoela.

Hala ere, errekurtsua epetik kanpo aurkeztu izanak administrazioari zigorra betearazteko aukera ematen bazion ere, horrek ez zuen salbuesten ebazteko obligaziotik, eta, beraz, errekurtsua onartzerik ez zegoela esango zukeen ebazpena eman beharra zeukan.

Ondorio gisa, esan daiteke Udalaren jokaera zuzena izan dela prozeduraren ikuspegitik, salbu eta errekurtsua onartzerik ez zegoela zioen ebazpenik ez dagoela. Hala ere, omisio hori ez da kausa nahikoa herritarraren nahia onesteko.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2159/15 ISUNA. EZINDUENTZAKO EREMUAN APARKATZEA.

Isuna jarri zioten, amaren autoa mugikortasun murriztuko pertsonentzat erreserbatutako leku batean aparkatzeagatik, horretarako txartelik gabe. Adierazi zigun txartela bai zegoela jarrita, beti toki berean jarrita edukitzen baitu, eta, horrenbestez, alegazioak aurkeztu zituztela. Administrazio-dosierra aztertu genuelarik, bertan agente salatzailearen berrespena ageri zela ikusi genuen, eta ibilgailuan inongo txartelik ez zegoela jarrita ziurtatzen du. Ez dago zalantzarik ibilgailuaren titularrak bazuela txartel hori, baina bere obligazioa da txartela ibilgailuaren barruko agente-panelean jartzea, edo aurreko haizetakoari barruko aldetik itsatsita, kanpotik erraz ikusi eta irakurtzeko moduan (abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren 8. artikulua). Udaltzainaren deklarazioaren arabera —egiazkotasun ustekizuna berekin du—, eta kontrako frogarik ezean, zigorra zuzena da.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2170/15 ISUNA KARGA ETA DESKARGARAKO EREMUAN APARKATZEAGATIK.

Herritar batek, Santa Barbara Plazan karga eta deskargarako eremuan aparkatzeagatik isuna jaso ondoren, kexa bat aurkeztu zuen, dosierra abiarazteko ekintzan ez zelako helbide zuzena agertzen, kalea bakarrik, baina zenbakia zehaztu gabe; urratutzat ageri den araua ez dator bat udalaren webgunean aurkitu duen ordenantzarekin, eta zalantzak zituen TAOko agenteen egiazkotasun-presuntzioaren inguruan. Halaber, isuna ezartzen zuen ebazpenean, “dosieran edo, hala egokituz gero, berrespen-txostenean ageri den argazkia” aipatzen zen. Bere iritziz, erantzun-eredu bat zen hori, eta ez zekien bere alegazioak sakon aztertu ote ziren. Horregatik, orientabide bat eskatzen zuen, zehapena ezarri zuen ebazpenaren aurrean nola joka zezakeen jakiteko.

Erreklamazioaren ondoren, zehapen-dosieraren kopia bat eskatu genion Diru-bilketarako Zerbitzuari.

Egia esateko, Udalaren erantzunak “erantzun-ereduak” dira, Gasteizko Udalean trafikoaren alorrean egin behar izaten diren izapide eta prozedura ugarien ondorioz aurrez diseinatutako agirietan oinarrituak; izan ere, ezinezkoa baita pertsona bakoitzaren arabera pertsonalizatutako erantzun bat praktikan eskaintzea. Herri Administrazioek “erantzun-eredu” horiek eman izana jurisprudentziak administrazio-eraginkortasunagatik onartutako gauza da, betiere ebazpen horrek horretarako beharrezko motibazioa badu eta alegatzen edo eskatzen denarekin gutxieneko koherentzia bat gordetzen badu.

Salaketa horretan berak aparkatu zuen bebarruaren zenbakia ez agertzeari buruzko erreklamazioari dagokionez, aparkatu zuen kaleak bebarruen zenbakirik ez duelako izan zen, izan ere, eremu hori guztia “Santa Barbara Plaza” izenez identifikatua baitago.

Urratutako arauaren identifikazio okerrari dagokionez, berriz, egia da isun horretan indargabetutako ordenantza bat aipatzen dela, baina arau-urratze hori ezin hobeto definitua dagoenez gero, baita hori araututa dagoen artikulua zenbakiarekin ere, herritarrak argi eta garbi zekien zein arau-hauste egin zuen eta zein arau-hausteren aurka jarri behar zuen alegazioa. Beraz, babesik gabeko egoerarik gertatu ez denez, arau-haustearen identifikazio hori baliozkoa zen.

TAO agenteen salaketan egiazkotasun-presuntziorik ez egotearekin loturik, berriz, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren epai batean, salaketek bete behar dituzten baldintzak finkatu ziren zehapen-prozedura bat abiarazteko baliabide egokitzat jo izan daitezzen. Kasu honetan, Auzitegi horren epaiak aipatzen zituen datu guztiak ageri ziren, eta gainera, TAO agenteak hartutako argazki bat ere gehitzen zuen, eta bertan, argi eta garbi ikus zitekeen herritarraren autoa karga eta deskargarako eremuan aparkatuta dagoela.

Horregatik guztiagatik erabaki genuen ikuspuntu juridiko batetik Udalaren jarduna zuzena izan zela uneoro, eta beraz ezin zitekeela erreklamazioa baiesten zuen ebazpenik egin.

Nolanahi ere, Udalak zuzendu egin behar zuen salaketa-buletinean jasotzen den erreferentzia, 2013/11/29ko indarreko "Hiri Izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantza" aipatuz.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2174/15 ISUNA. PASABIDE IRAUNGIAN APARKATZEA.

Pasabide batean aparkatzeagatik jarritako isun bati buruzko kexa jaso genuen. Erreklamatzaileraren ustez, pasabide hori iraungia dago, titular den enpresak ez baitu inongo jarduerarik izan azken bi urteetan.

Behar ziren egiaztapenak egin ondoren, ondorioztatu genuen pasabidea erabat indarrean zegoela trafiko-isuna jarri zen unean, eta ez zenez inon ageri titularrak pasabideari baja ematea eskatu zuenik, pentsatzekoa zela Udalak zegokion tasa kobratzen jarraitzen zuela.

Pasabideak arautzen dituen ordenantzaren argitara, nahiz eta pasabidearen titular den lokalean jarduerarik antzematen ez den, behin betiko baja eman dakion beharrezkoa litzateke, lehenik eta behin, titularrak baja eskatzea, edo Udalak hari jakinaraztea, eta, bigarrenik, espaloia eta zintarria lehengora eramatea. Kasu honetan, ez da betekizun horietako bat bera ere bete, eta, horrenbestez, ondorioztatzen dugu Udalaren jardura juridikoki zuzena izan zela, eta, beraz, dosierra itxi beharra dagoela, eskabidea ezetsiz.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2186/15 ISUNA KARGA ETA DESKARGARAKO EREMUAN APARKATZEAGATIK.

Herritar batek adierazi zuen isuna jarri ziotela karga eta deskargarako eremuan aparkatzeagatik, eta ordaindu zuen arren, ez zegoen horrekin ados, salaketa-buletinean kalearen 10 zenbakian aparkatu zuela zioelako eta karga eta deskargarako eremua 12 zenbakiaren parean dagoelako. Horregatik, modu desegokian ezarritako isuna berrius zezatela eskatzen zuen.

Diru-bilketa Zerbitzuak eskainitako zehapen-dosierraren dokumentazioaren barruan, argazki bat zetorren eta bertan ikus zitekeen herritarren ibilgailua karga eta deskargarako eremuan aparkatuta zegoela. Egia izan arren eremu hori 12 zenbakitik hurbilago dagoela, 10 zenbakitik baino, akats horrek ez du

ondorio handirik, kasu honetan, Agentearen identifikazioaz gain argazkia ere badagoelako, eta gure iritziz ez du zalantzarako biderik ematen, garbi frogatzen baitu, dagokion bebarruaren zenbaki zehatza edozein izanik ere, ibilgailua karga eta deskargarako eremuan aparkatuta zegoela horretarako baimenik gabe.

Horregatik guztiagatik, ikuspuntu juridiko batetik Udalaren jarduna zuzena izan da, eta beraz ezinezkoa da herritarraren eskaera ontzat emango duen ebazpenik ematea.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2264/15 GAINBALIOA. LIKIDAZIOA BOE SALDU DEN KASUAN.

Herritar baten kexaren harira, dosierra ireki dugu. Horrek adierazi duenez, babes ofizialeko etxea saldu ondoren, likidatu zioten hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren (gainbalioaren) zenbatekoak ez zuen bat egiten berak zerga-ordenantza aplikagarriko 8. artikuluari jarraiki kalkulatu zuen zenbatekoarekin, izan ere, Ogasun Sailak salmentaren gehienezko prezioa hartu zuen erreferentziatzat, eta ez "salmentaren prezioa". Bide ekonomiko-administratiboan erreklamazioa aurkeztera ere iritsi zen, baina, handik urtebetera, oraindik ez zuen erantzunik jaso. Horregatik, jarduteko aukeren gaineko aholkua eskatu zuen.

Hortaz, itxuraz hain argia den arauaren hitzez-hitzez kototasunak, gure ustez, kexagileak egotzitako ondorioak edo interpretazioa ez edukitzeko arrazoiak azaldu genizkion.

Ez udal ordenantzaren 8. artikulua, ez zerga hori arautu duen 46/1989 Foru Arauaren 4.2. artikulua, ez dute "salmentaren gehienezko prezioa" aipatu, BOEen "salmenta prezioa" baizik. Literaltasuna argia da, baina arauan gehienezko prezioa ez aipatzeak, Eusko Jaurlaritzak modu ofizialean finkatutakoa hori, ez dio zergadunari laguntzen salmentaren benetako prezioa (eta ez beste bat) aplikatu behar dela ulertzen, interpretazio hori zergaren sorkuntzaren beraren aurka egongo litzatekeelako, modu orokorrean baitago eratuta.

Azken urteotan hainbat epai egon dira, zeintzuetan katastro-balioek higiezin salmenten benetako prezioak gainditu dituzten, eta guztiek adierazi dute hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga kasu batean ere ez dela higiezin salmenten benetako prezioetan oinarritu, aurrez ezarritako balioetan baizik, administratiboak horiek, eta, oro har, katastro-balioa izaten direnak.

Ordenantzaren 8. artikuluko arauak, BOEei dagokienez, zati batean salbuetsi du arau hori, kasu horietan ez delako kontuan hartuko katastro-balioa, baina bai, horren ordean, administrazioak aurrez ezarritako beste balio bat, hala nola, salmentaren gehienezko balioa. Eta klausula hori Jarduera Ekonomikoa

Sustatzeko Neurri Fiskalei buruzko uztailaren 3ko 14/2008 Foru Arauarekin sartu bazen ere, guk dakigula, gaur arte, inork ez du zalantzan jarri foru araua, egiazki, "salmentaren gehienezko prezioari" buruz ari denik.

Ez-betetze horren arrazoia, gure ustez, lehenik eta behin, hutsegite huts bati egotzi beharko genioke, eta, bigarrenik, araua onartu zen unean (2008an), "onartezina" zelako BOE bat bere gehienezko prezioaren azpitik saltzea.

Hitz batean, zergaren araudiak omisio hutsegitea egin duela onartuta ere, ez baitu salmentaren "gehienezko" prezioa aipatzen, Arabako Batzar Nagusiek eta udaleko osoko bilkurak berehala zuzendu beharko luketen okerra izanik hori, ez da nahikoa oinarria ulertu ahal izateko zergaren kalkulua egiteko sistema tradizionala salbuetsi denik BOEei dagokienez. Horrela, bada, kasu honetan ez dugu egoki ikusi bere egunean zerga horrengatik igorri zion likidazioa zuzen dezala gomendatzea udalari.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

G) BIDERATZEA

ERREG. ZK.: 2126/14 DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA. BAHIKETA

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuen herritar batek aurkeztu zuen kexa, eta, hasiera batean, zerga-zor bat zela eta —HLBGZren likidazio bat— titularra den kontu korrontean Udalak aldiari behin egiten zizkion bahiketez ziharduen. Bulegotik, orientabidea eman genion, bahiketa horiek zirela eta idazki bat idatz zezan.

Gerora, berriro jo zuen gure bulegoetara ezen, itxura batean, bertan behera utzia zioten diru-sarrerak bermatzeko errenta, baina berak zehazki jakin gabe zertan zen dosierra. Hainbat izapide egin ondoren, prestazioa bertan behera utzi zeneko ebazpena jakinarazi zioten (eduki ilunekoa), eta, horrengatik, gure bulegoetara etorri zen, aholkularitza eskatzera, zein aukera zituen, zer edo zer egiteko.

Prozedura eta emandako ebazpenak ikusirik, uste izan genuen Lanbidek izapidetutako prozedurak ez zituela errespetatzen eskatzen diren berme legalak, eta, beraz, bazela, esparru horretan, Arartekoak esku hartzeko nahiko tarterik. Izan ere, Arartekoaren "*Diagnóstico con propuestas de mejora sobre la gestión de la RGI –y PCV- por Lanbide*" txostenean jasotzen ziren kontuetako asko planteatzen ziren kasu honetan.

Horregatik, Arartekoaren eta Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen arteko 2006ko irailaren 18ko lankidetzaz hitzarmenean xedatutakoaren ildotik, hari igorri genion informazioa, Lanbidek prestazioa bertan behera uzteko izapidetutako dosierra berrius zedin.

H) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)

ERREG. ZK.: 2060/14 ERABILTZAILAK ITXIA. ZABOR-TASA, ELIZA ETA PARROKIA-LOKALETAN.

Elizen eta parrokia-lokalen ordezkari batek jo du guregana. Orain arte, era horretako eraikinei epigrafe jakin bat aplikatzen zitzairen, zeinen arabera 92,67 euroko ordainagiria ordaindu behar izaten baitzuten. Kopuru hori antzinatek dator, eta, alderatuz gero, etxebizitza handi batek ordaintzen duena baino gehiago da. Orain bi epigrafe berri gehitu dira, azaleraren arabera, eta tasaren zenbatekoa oso handia izan daiteke, 653,64 eurora iritsi baitaiteke 1.000 m²tik gorako elizen kasuan. Udalak proportzionaltasuna aplikatzen du, azaleraren arabera, baina berak uste du zaborren zerbitzua erabiltzen den neurrian izan beharko lukeela, oso gutxi erabiltzen baitute elizek zerbitzu hori. Jarraitu beharreko bideei buruzko orientabidea eman diogu, eta balia litzakeen argudioak azaldu. Erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu zuten, baina ezetsi egin zen, eta epaitegietan aurkeztu zuten errekurtsua gerora.

ERREG. ZK.: 2151/15 IRAUNGIPENA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA.

Kexa aurkeztu zuen pertsona batek bulego honetan, AMVISAREN ondare-erantzukizuna zela eta, kutxatila batekin estropezu egin ondoren eroria baitzen.

Egun horretan bertan, erreklamazioa egiteko bideak azaldu genizkiolarik, baita frogabideak lortzearen garrantziaren inguruko orientabidea eman ere, beraren esanetara geratu ginen, ondare-erantzukizuna erreklamatzeko idazkia idazten laguntzeko, berak frogabide gisa aurkeztea iradoki genion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Nolanahi ere, hiru hilabete baino gehiago igaro zirelarik dosierra izapidetzen jarraitzera bideratutako inongo ekintzarik gauzatu gabe, artxibatu egin genuen.

ERREG. ZK.: 2277/15 ERABILTZAILAK ITXITA. GAINBALIOA. ERREKARGUEN ETA BERANDUTZE-INTERESEN ITZULKETA.

Zergapeko batek adierazi digu, urtebete lehenago etxebizitza bat saltzearen ondorioz sortutako gainbalioaren ordainagiriagatik, bahiturak egiten ari zaizkiola bere banku-kontuan, likidazioa jakinarazi ez

zaiolarik. Kexa jarri zuen egunean, udalak printzipala gehi errekarquak eta berandutze-interesak eskatzen zizkion.

Erreklamazioa gure bulegoan aurkeztearekin batera, idazki bat aurkeztu zuen Ogasun Sailean. Bertatik jakinarazi zioten, bulego honek inolako jarduerarik abiarazi aurretik, balioetsi egin zutela errekarquen eta berandutze-interesen itzulketari buruzko eskera. Beraz, dosierra ixteko eskatu zigun kexagileak.

03.4 Ingurumenaren eta Osasun Plublikoaren Sails

A) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 1981/13 ZARATAK ETA ERAGOZPENAK ZUMAIA PLAZAN.

Lakuabizkarra auzoan kokatuta dagoen Zumaia Plazan bizi diren bi bizilagunek beren ondoeza adierazi ziguten plazan jolasean aritzen ziren gazteek emandako baloikaden ondorioz sortzen ziren zarata eta bibrazioengatik, arkupeetako zutabeak futbolerako ate bezala erabiltzen baitzituzten. Arazoa 2004 eta 2005. urteetan hasi zen, baina eragozpenak harrezkero handitzen joan dira. Baloikada horien ondorioz, higiezinaren fatxadan kokatutako lama batzuk konpondu behar izan dituzte urtero-urtero. Arazo hori konpontzeko, zenbait plaka jarri zituzten, arkupeetan baloiarekin jolastea debekatua zegoela adieraziz, baina ez zuten inolako emaitzarik izan. Jakinarazi ziguten, halaber, Udaltzaingoarekin eta hainbat udal arduradunekin bilera ugari izan zituztela. Erreklamaziogileen arabera, plaza horrek akustika txarra du, metalezkoa eta harrizkoa delako, eta azaldu ziguten haurrak goizeko hamarretan hasten zirela jolasean, eta batzuetan gaueko ordu bata arte ere aritu izan direla. Horrez gain adierazi zuten, behin urtebetetze-festa bat ere ospatu zutela plazan su artifizialekin, eta arazo hori gero eta larriagoa zela. Eskatzen zuten plazaren erdian bakarrik jolastea baimendu zezatela, eta proposatu zuten lorategi garaiak, eserlekuak, hesiak eta beste hiri-altzari batzuk jarriz arazo hori konpondu ahal izango zela, era horretan haurrak plazaren erdian jolastera behartuko baitzituzten. Horregatik, azaldutako egoera hori konpontzeko irtenbide bat eskatu zuten.

OHARRAK

Sindikarekin aztertu genituen gaietako askok oinarritzko bizikidetzaraueu urraketaekin zerikusia dute, eta uste dugu herritarrek arau horiek errespetatuko balituzte konpondu egingo lirakeela herritarrek dituzten arazo asko eta asko; izan ere, arazo horiek batzuetan modu larrian eragiten diete horrelakoak jasaten dituzten pertsoneri.

Azkeneko urte hauetan herritarrek garai batean pentsaezinak ziren ohitura batzuk hartu dituzten arren, hala nola bide publikoak garbi edukitzea, birziklatzea edo trafikoa segurtasunez ibiltzea, oraindik ere arazo handi bat dugu konpontzeko: zarata. Uste dugu badela garaia arazo horretaz jabetzen hasteko eta jokabide jakin batzuk aldatzen hastea geure esku dagoela konturatzeko; horri enpatia eta gainerako herritarrekiko errespetua esaten zaio. Araudi jakin bat onetsi liteke herritarrek eragindako zarata arautzearen, baina ez badugu kontzientziarik hartzen elkar errespetatu behar dugula eta atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidea dugula, arazoa ez da konponduko. Hala, epaitegiek duten irizpidearen arabera, etxebizitzetan zarata-eragozpenak sortzeak larriki eragiten dio norberaren intimitateari, eta osasun fisikoari ere kalte egiten dio.

Begi-bistakoa da neska-mutilek eskubidea dutela plazan jolasean aritzeko, ariketa fisikoa egiteko eta hiriko eremu publikoetan dibertitzeko, baina bizilagunek ere atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidea dute. Nolanahi ere, harrigarria da balioarekin jolastea debekatuta dagoela dioen kartelaren azpian haurrak futboleak ikustea, eta haur horien gurasoak, berriz, arauari ez-ikusiarrena eginez, patxada ederrean hizketan egotea, taberna bateko terrazan, handik hurbil. Hori dela eta, esan daiteke gurasoek ez diotela beren buruari arauak bete behar izatea eskatzen, beren seme-alabei adibide benetan tamalgarria emanez, eta horrez gain, erasokortasunez erantzuten diete beren seme-alabak jolasten ari diren bitartean inor haien lasaitasuna apurtzen ausartuz gero. Badakigu, gainera, azkenaldi honetan areagotu egin direla bizilagunen eta plazako erabiltzaileen arteko liskarrak eta egoera hori gero eta okerragora doala.

Arazo horri irtenbide tekniko bat bilatu nahirik, Sindikoaren bulegoak hainbat kudeaketa egin ditu Ingurumen Sailaren aurrean eta, bereziki, Espazio Publikoaren Zerbitzuaren aurrean, eta horrez gain, arazo hori hedabideei jakinarazi diegu, gurasoak ere arazo horren inguruan kontzientziatzen ahalegindu daitezten, baina orain arte ez dugu arrakastarik izan.

Udaltzaingoak egindako zaintza- eta informazio-kanpainen ez dute nahiko genukeen emaitzarik lortu, zenbait guraso ez direlako behar hainbat inplikatu. Gainera, ez zaigu egokia iruditzen zigorren bidea aplikatzea, adin txikikoek jolasean eragindako eragozpenak edo arau-urraketak direlako.

Udalean jabetzen gara arazo bat dagoela eta irtenbide bat bilatu beharra dagoela, baina ez da erraza. Horren inguruko iradokizunen bat edo beste ere egin dugu, baina ez dugu entzun azkeneko hilabete hauetan gai horrekin loturik aurrerapenik egin denik, eta horrenbestez, Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen Araudiko 19.b) artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuz, arazo horri irtenbide bat bilatu nahirik, ondorengo GOMENDIOA egin nahi dugu:

1.- Bilatu eta betearazi dadila konponbide bat behin betiko, Zumaia Plazako arkupeetan futboleak

jolasten aritzen diren hurrek jaurtitako baloikaden ondorioz bertako bizilagunei eragindako eragozpen eta zaraten arazoei amaiera emango diena.

2.- Ez gara baloiarekin jolastea debekatzearen aldekoak, baizik eta, hurrek jolasean aritzeko duten eskubidea eta bizilagunek lasaitasunerako duten eskubidea uztartuko dituzten alternatiba batzuk eskaintzearen aldekoak.

3.- Beste alde batetik, zaindu egin beharko litzateke futboleko jolasean aritzeak beste erabilera batzuk eta beste jolas modu batzuk ez baztertezea, eta neska-mutilek jolaserako eta aisialdirako eremu egoki bat edukitzea.

4.- Espazio Publikoaren Zerbitzuaren eskumena da irtenbide tekniko zehatza erabakitzea, baina halere, bi futbol-ate edo gehiago estrategikoki kokatu daitezela proposatu nahi dugu, plazak berez duen erabilera eta beste jolas batzuetan aritzea ez eragozteko. Neurri horiekin batera, plazako arkupeetan jolasean aritzea oztopatuko duten hiri-altzariak kokatu beharko lirateke.

5.- Azkenik, aurreko neurri horiekin guztiekin batera, plaza erabiltzen duten gurasoei zuzendutako informazio-kanpaina bat sustatu dadila, eta Udaltzaingoa kontrol-neurri zorrotz batzuk har ditzala, arku horiek futbolerako ate bezala erabiltzen jarrai dezatela eragoztearren.

Gomendio hori egin ondoren, eta Udalaren partetik horri buruzko erantzun formalik jaso ez dugun arren, Espazio Publikoaren Zerbitzuko zinegotziak jakinarazi zigun proposamen bat aurkeztuko zirela bizilagunei, Espainia Plazako ereduari jarraiki. Maiatzean eserleku batzuk instalatzeko kontratua esleitu zuten, eta lan horiek ekainean burutu zituzten.

Bizilagunei informazio hau jakinarazi zitzaizkion dosierra itxiztat jotzeko, haiek adierazi ziguten eragozpenak gutxitzen joan zirela.

- GOMENDIOA. ONARTUA.-

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

B) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2080/14 ZABOR-BILKETARAKO KAMIOIEK ERAGINDAKO ZARATA.

Herritar emakumezko batek kexa bat aurkeztu zuen zabor-bilketarako kamioiek eragindako zaratak direla eta jasan behar izaten dituen eragozpenengatik, kamioi horiek gauez biltzen baitituzte Rafael Alberti

kaleko edukiontzia, ezordutan. Adierazitakoaren arabera, autobus-geltokiaren obra egin aurretik, edukiontzia beste espaloian kokatuak zeuden, eta eragozpenak txikiagoak ziren. Udalak haren kexari emandako erantzunean, bilketa gaueko ordutegian egin behar dela azaltzen zen, ibilgailuen trafikoan eragozpenik ez sortzeko, baina gaineratzen zuten zenbait errepide nagusitan zaborren kamioiak ikus zitezkeela egunean zehar. Herritarrak ez zuten ulertzen Zaraten gaineko Ordenantzak Udala salbuetsi zezakeenik hura bete behar izatetik, eta uste zuten Estatuko araudiak ezartzen zituen mugak Udalak ere bete beharko lituzkeela.

Aurreko hori guztia kontuan izanik, kamioiek gaueko hamarretatik aurrera sortzen zuten zarata amaitu zedila eskatzen zuten, eta hori ezinezkoa izango balitz, irtenbideren bat bila zezatela, esate baterako edukiontzien kokalekua aldatzea, zabor-bilketarako beste era bateko kamioiak erabiltzea, bilketa-ordutegiak aldatzea eta abar.

Aurkeztutako erreklamazioa oinarritzat hartuta, Ingurumen Saileko teknikariek elkartu ginen eta azaldu ziguten edukiontzien kokalekua aldatu egin zela, hain zuzen ere, Rafael Alberti kalearen norakoa aldatu egin zelako. Gainera, edukiontzia kokalekua aldatzeak eragingo zituen zailtasunak adierazi zizkiguten, kontrako espaloian kokatzen baldin baziren kamioiak eskuinaldeko albo-kargakoa izatera igaro beharko zuelako, eta bide hori egiten zuten ibilgailuaren ibilbide osoa aldatzea eragingo zuelako.

Handik egun batzuetara, Udalak berretsi zigun, autobusen geltoki berria funtzionamenduan jartzen zenetik aurrera, kalearen antolamendua zein izango ote zen jakiteko zain zeudela.

Hilabete geroago, bildutako informazio guztia herritarrari jakinarazi ondoren, hark adierazi zigun egoera horrek okerrera egin zuela, pibote batzuk jarri zituztelako joan-etorrien aurkako norakoan zihoan bidegorri bat babesteko, eta horien ondorioz, kamioiak maniobra egin behar zuelako edukiontzia kokatuta zeuden kalera iritsi ahal izateko, eta are atzerantz ere joan behar izaten zuela, horrek eragiten duen zaratarekin, baita bidegorriaren gainera igo ere.

Informazio hori jaso ondoren, Hondakinen Kudeaketarako Saileko arduradunarekin harremanetan jarri ginen, eta hark adierazi zigun autobus-geltokiaren eremuari zegokion plana jaso zutela, eta edukiontzia guztiak eskuinaldera igaroko zirela, baina Rafael Alberti kaleko edukiontzia kasu zehatzean, ez zegoen oraindik horren kokapenari buruzko inolako erabakirik, espaloia gainean edozein eratako elementuak jartzea eragozten zuten hesi bat zegoelako. Aipatutako hesi horiek kendu zituztenean, eragozpenak sortzen zizkien edukiontzia kontrako espaloian kokatu zen, eta ordutegia ere aldatu zen, 00:30era atzeratuz.

Eragozpenak amaitzen ez zirenez gero, Udalarari berriro eskatu genion aztertu zezala bilketa-ordutegiak aldatu ahal izatea, edo edukiontzia hori metro batzuk aurrerago jarri ahal izatea.

Azkenik, Ingurumen Sailak, azken eskaera horri erantzunez, edukiontziak metro batzuk aurrerago jartzea ezinezkoa zela adierazi zigun, edukiontziak erabiltzaileengandik urrunduko zituelako, bereziki Donostia kalekoengandik, eta horrez gain, aparkaleku-plazak okupatuko zituelako eta kaleko beste edukiontzi batzuekin elkartuko zirelako. Gainera, adierazi zigutenez, garbiketa-kontratu berria indarrean sartzean litekeena zen zabor-bilketarako kamioiak berritzea, eta modelo berriek prestazio hobekak izango zituzten zaratari zegokionez eta egungo egoera hobetzen ahaleginduko lirateke, zaratak erabat ezabatzea ezinezkoa izango litzatekeelako erabili beharko litzatekeen makineria motagatik.

Aurreko hori ikusita, esango genuke erantzun egoki bat eskaini genuela, gure esku dauden aukeren barruan, eta beraz, dosierra ixteari ekin genion.

ERREG. ZK.: 2096/14 UDAL ERRAZTATZE-MAKINEN ZARATAK.

Herritar emakumezko batek bere kexa jakinarazi zigun Foruen Plaza garbitzeko erabiltzen diren haize-makinek eta erraztatze-makinek egunero-egunero astelehenetik igandera bitartean goizeko zortzietan egindako zaratagatik. Herritar horrek zioenez, Hondakinen Kudeaketarako Zerbitzuarekin bilera egin ondoren, hobekuntza arin bat igarri zuten, garbiketa-ordutegia ordu erdi edo ordubete atzeratu zelako aste barruan; baina igandeetan haize-makina pasatuko ez zutela agindu zuten arren, oraindik ere pasatzen jarraitzen zuten. Beren logeletan neurketak egin zituzten eta 70 dBtik gorako emaitzak lortu zituzten. Adierazi zuen aspaldi erratzak erabiltzen zirela, eta bere iritziz, irtenbide egokia izan zitekeela. Argi utzi nahi izan zuen ekitaldi berezietan eta data seinlatu batzuetan ez duela garbiketa egitearen aurkako jarrerarik.

Horregatik guztiagatik, Udalari eskatzen zioten eten zezala jarduera hori, eta irtenbide bat bilatu zezala egunero jasaten zuten eragozpenei aurre egiteko, baina batez ere, asteburukoiei.

Aurkeztutako erreklamazioa zela eta, bilera bat izan genuen Ingurumen Saileko teknikariek, eta bertan adierazi ziguten haize-makinekin loturik horiek pasatzeko ordutegia atzeratzeko konpromisoa hartu zutela, baina ez igandeetan ez pasatzekoa. Izan ere, haize-makinak 9:30etik aurrera erabiltzeko zirkular bat atera zuten. Era berean, azaldu ziguten eskailera-mailak oso handiak zirelako erabiltzen zutela makineria hori, eta era horretan, plazaren beheko aldera botatzen zuten guztia, gero han bildu ahal izateko. Haize-makina horiek kendu eta horien ordeztuak pertsonak jarriko balituzte, 6 edo 7 lagun beharko lirateke lanean, horrek dakarren kostuarekin.

Erraztatze-makinei dagokienez, adierazi ziguten horiek pasatzeko ordua atzeratuz gero karga eta deskargarako ordutegiarekin batera egokituko litzatekeela, eta kalean oinezko kopururik handiena dagoen orduekin, eta beraz, oinezko horiek eragotzi eta zaildu egingo litzateke garbiketa-lanak. Eskuilei

dagokienez, adierazi zuten, horien formagatik eta kokatuta dauden lekuagatik, ez luketela fatxadarekin talka egin behar. Esan ziguten zaila zela garbiketa-orduak atzeratzea, baina gaineratu zuten beste irtenbideren bat bilatzen ere saiatuko zirela.

Jarduera horren bitartez dosierra artxibatzea erabaki genuen.

ERREG. ZK.: 2112/14 BIZILAGUNEN ARTEKO GATAZKA. FUTBOLEAN JOLASTEAK ERAGINDAKO ARAZOAK.

Lakua auzoko bizilagun bat gure bulegora etorri zen eta adierazi zigun zazpi urte zeramatzala arazoak jasaten bera bizi den etxebizitzan, eraikinaren behe-solairuan, urbanizazioaren erdiko patioa ematen duela, izan ere, haurrek asko erabiltzen dute eremu hori beren jolasetarako eta etengabeak dira fatxadan eta leihoetan jasan behar izaten dituzten baloikaden zaratak.

Egoera horrek arazo batzuk ekarri dizkio futbolean zebiltzan haurren gurasoekin, eta Adin Txikikoen Fiskaltzan salaketak jartzera ere bultzatu du. Bide judizialera jo aurretik, Eusko Jaurlaritzaren Bizilagun zerbitzuaren bitartez irtenbide bat lortzen ahalegindu zen.

Herritar horrek jakinarazi zigun etxebizitzak erosi zituztenean, erdiko patioan jolasean aritzea baimentzea erabaki zutela, eta euria egiten zuenean, baldosaz estalitako plazaren izkina batean jolastu zitezkeela. Adierazi digu bertara patruila batzuk etorri izan direnean, harrituta geratu direla nolako zarata sortzen duten baloiek.

Aurreko guztiagatik eskatzen zuen debekatu zezatela patioan futbolean aritzea, eta neurri egokiak har zitzatela baloikadek eragindako eragozpenak gutxitzeko.

Gertaeren kontakizunetik ondoriozta dezakegu erreklamaziogilea lehendik joana zela, edo joatekotan zegoela, esku hartzeko beste bide horietara bere arazoari irtenbide bat bilatu nahian (jabeen erkidegoan akordio batzuk bilatu, erakundeen bitartekaritza lortu, ekintza judizialak eta abar). Horregatik, arazo hori oraindik jorratu gabeko bide batetik aztertzea proposatu genion, hots, ikuspegi teknikitik, eta hala, bere erkidegoaren barne-patioan sortzen diren jokabide gogaikarriak ezabatzerira iritsi ez arren, irtenbide teknikoren bat aplikatu liteke, behinik behin eragozpen horiek gutxituko lituzkeena, leihateetan, fatxadan... zenbait erreforma eginez.

Ingurumen Sailaren bitartez soinugabetzeetan esperientzia handia duen enpresa batekin harremanetan jarri ginen, eta irtenbide gisa proposatu ziguten leihoen aurrean kanpoko ertzaren parean beste leiho bat jartzea, zarata horiek inpaktuak eragindakoak zirelako eta airean barrena transmititzen zirelako. Beste

alde batetik, irtenbide horrek berarekin ekar dezakeen energia-aurrezpena dela eta, diru-laguntzaren bat jaso lezake.

Beraz, Sindikoaren jardunaren bitartez herritarrak erabili ez dituen beste bide batzuetatik barrena irtenbide tekniko osagarri bat eskaintzen ahalegindu gara, eta nahiz irtenbide horrek ez lukeen eragotziko jarduera gogaikarri horiek sortzea, eragozpenak nabarmenki gutxitzea ahalbidetuko luke.

ERREG. ZK.: 2155/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. HILERRIKO UDAL ZERBITZUEK NITXOKO PLAKA ETA IDULKIA HAUTSI IZANA.

Pertsona batek kexa agertu zigun, senide bat ehortzi zutelarik marmolariarengana jo baitzuten, familiaren nitxoko xaflan idazkuna egin zezan, eta hark jakinarazi baitzuen xafla pitzatu egin zela, kanpoalderako egoki ez zen material batez egin izaki. Era berean, adierazi zien hilarria Udalak jartzen zuela, baina idazkunak —bai zazpi urte lehenago egindakoa, bai berria— erreklamatzailaren kontura zirela. Berak uste du bere garaian hilarri bat eta idazkuna ordaindu bazioten, eta orain material txarra zelako hautsia bazen —eta ez zen berek aukeratua—, ez zutela berek izan behar hori konpontzeak berekin zekartzan gastuak beren gain hartu behar zituztenak, Udalak baizik. Gainera, ehorzketaz arduratu ziren langileek idulki bat hautsi zuten, zazpi urte lehenago jarria, nahiz eta ez zuen lizentziarik. Ondare-erantzukizunaren gaineko erreklamazioa aurkeztu zelarik, Hilerrien Atalarekin harremanetan jarri ginen, hilarri bat edo hilobiko beste elementuren bat hautsiz gero zein irizpide kontuan izaten den jakiteko, eta gure jarrera azaltzeko. Azaldu genien ez zitzaigula koherentea iruditzen estalki berri baten kostua ordaintzea baina ez lehendik zeuden idazkuntzen kostua, eta, elementu gehitu legeztatu gabekoei zegokienez, gure zalantzak azaldu genizkien udal jardueraren ondorioz horietan eragiten diren kalteengatik ordainik ez ordaintzeko erabakiaren inguruan, elementu gehitu horiek Udaren baimena izan ala ez izan. Azkenik, Hilerrien Atalak txosten bat egin zuen, ondare-erantzukizunari buruzko prozeduraren baitan, non proposatzen baitzen erreklamazioa partez onestea, eta idazkuntzaren kostu osoa ordaintzea, eta zentzu horretan eman zuen ebazpena Udalak.

ERREG. ZK.: 2161/15 ZARATAK. PUB BATERAKO LIZENTZIA.

Gure bulegoetara herritar bat etorri zen, eta adierazi zuen, bera higiezin baten lehen solairuan bizi dela eta beheko solairuan dagoen lokalak hainbat eta hainbat aldiz urratu izan dituela araudi batzuk, esaterako ordutegiei buruzkoa, zarata mailari buruzkoa eta abar. Adierazi zuen beldur zela egoera horrek bere horretan jarraituko ote zuen, negozioaren titularra pub baterako lizentzia erdiesteko izapideak egiten ari zelako, eta horrexegatik, erkidegoak zenbait alegazio aurkeztu zituen eskaera horren aurka. Bere iritzi, egoera horrek bere bizi-kalitatea okerragotu zuen, eta horrexegatik eskatzen zuen sakon aztertu

zezatela pubaren lizentzia emateko prozeduran horrelakoak baimentzeko eska daitezkeen baldintza guztiak betetzen ote ziren.

Lizentzia baimentzea araututako ekintza bat da, hau da, araudi aplikagarrian jarduera-lizentzia horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen baditu lokalak, Udalak ezin du ukatu baimena ematea. Nolanahi ere, kasu honetan, Udalari jakinarazi genion kontuan izan zezala lokal horrek zenbat aldiz urratu zuen zaraten gaineko araudia, pubaren jarduera-lizentzia erdiesteko lokalaren titularrak aurkeztuko duen jarduera-proiektuak bete behar dituen neurriak erabakitzeko orduan.

Gainera, Ingurumen Saileko teknikariek harremanetan jarri ginen ezagutzeko zein egoeratan aurkitzen zen dossier hori, eta adierazi ziguten gaur egun araudia zorrotzagoa zela egun indarrean dagoen baimena eman zenean baino, eta beraz, pentsa daiteke egoera horrek nabarmen hobera egin zezakeela.

Gero, bilera bat izan genuen Saileko Zuzendariarekin, eta jakinarazi zigun bazegoela lizentzia ematearen aldeko txosten tekniko bat, baina bertan muga akustikoen neurri jakin batzuk ezartzea eskatzen da. Hain zuzen ere, jakinarazi zigun isolamendu akustikoa eta dardaren aurkakoa izango direla ziurtatu dela, jarduera horrek okupatuko duen ordu-tartean egokia izango den gutxieneko eraginkortasunez. Gainera, anplifikazio-ekipoa mugatzeko sistema elektronikoa instalatu zuten eta instalatzaile kualifikatu batek ziurtatu zuen.

Azkenik, lokal horri lizentzia eman zitzaien, udaleko teknikariek ezarritako baldintzekin, eta halaxe jakinarazi zitzaien Jabeen Erkidegoari, baita horrekin loturiko erkidego-araudiarekin bat etorritako lizentzia berri horren arabera izango dituen irekiera-ordutegiak ere.

Uste dugu egindako kudeaketekin eta eskaini genizun informazioarekin erantzun egokia eman geniola zure eskaerei, betiere erakunde honek dituen eskumenen neurrian, eta horrexegatik artxibatu egin genuen dosierra.

ERREG. ZK.: 2169/15 INGURUMEN SAILAREN ERANTZUNIK EZA, PRODUKTU USAIN-EMAILEAK ERABILTZEGATIK JARRITAKO ERREKLAMAZIOA DELA ETA.

Kexa bat iritsi zitzaien posta elektronikoz, non herritar batek esaten zuen Udalak ez ziola erantzun zazpi hilabete lehenago aurkeztutako idazki bati, non eskatzen baitzuen kontuan har zitezela sentiberatasun kimiko anitzak eta garbiketa-produktu jakin batzuek sortzen dituzten beste patologia batzuek eragiten dieten pertsonak, eta aurreko sindikoak zenbait garbiketa-produktu erabiltzearen inguruan egin zituen gomendioak bete daitezela.

Ingurumen Saileko zuzendaritzara helarazi genuen erreklamazio hori, eta bertatik erantzun zizaion erreklamataileari, txosten tekniko bat igorritz.

ERREG. ZK.: 2183/15 PASABIDEA. BEHIN BETIKO BAJA ESKAERA.

Herritar batek Sindikoaren esku-hartzea eskatu du, bere titulartasuneko ibilgailuen pasabideko behin betiko baja eman diezaion udalak, eta, ondorioz, ez diezazkion pasabide-tasaren ordainagiri gehiago bidali, ezin baititu horiek ordaindu. Aipatu pasabideko baja eskatu zuenean, udalak hilabeteko epea eman zion obra egin zezan, eta, egin ezean, exekuzio subsidiariora joko zuela ohartarazi zion. Bitarteko ekonomikorik ez zuenez, ezin izan zituen lanak egin, eta pasabide-tasaren likidazioak jasotzen jarraitu du.

Bulego honen iritziz, ezin zitekeen tasa kobratzen jarraitu erabiltzen ari ez zen jabari publikoaren balizko erabilera batengatik, izan ere, gauza bat da hirigintza betebeharrak bat betetzea, eta beste bat zerga betebeharra, zeinaren arabera, ezin zitekeen tasaren kobrantza erabili espaloiko obrak egitea behartzeko. Bada, obraren exekuzio subsidiarioari ekiteko iradoki genion Ingurumen Sailari, hirigintza legezkotasuna lehengoratzeko xedez, eta, hortik aurrera, pasabide-tasa kobratzeari utz ziezaiola. Modu horretara, zor jakin bat edukiko luke kexagileak, obraren egikaritzeari dagokiona, baina betebeharrak horri pasabide-tasari dagozkion etorkizuneko zenbatekoak gaineratzeari utziko lioke.

Azkenik, txosten bat igorri zuen Ingurumen Sailak. Bertan, honakoa ondorioztatu zuen: "*egindako adierazpenak direla-eta...., udalak lehengoratzeko horretarako beharrezko obraren exekuzio subsidiarioari ekin diezaiola proposatu behar dugu, behartuaren kostura, araudi aplikagarriak ezarri duen bezalaxe*". Horretan oinarrituta, exekuzio subsidiariorako dosierra irekitzea ebatzi zen, espaloia eta pasabidearen zintarria jatorrizko egoerara lehengoratzeko.

Horrela, bada, bulego honek egindako izapideekin, Gasteizko Udalak aldeko erantzuna eman zion eskaerari; hortaz, dosierra itxi genuen.

ERREG. ZK.: 2223/15 ARBOLADIA. ADARRAK ERORTZEKO ARRISKUA.

Herritar batek erreklamazioa aurkeztu du, eta Zurbanoko Atea kaleko 4. zenbakiko makala arriskutsua dela adierazi du, izan ere, oso altua da eta oso adar lehorrak ditu, haizearekin bide publikora erortzen direnak, jende asko ibiltzen den eremua izaki. Udalak proba egin zuen, eta makala ondo zegoela ondorioztatu. Hala ere, kexagilearen ustez, altuera pixka bat ken dakioke, bai eta garbiketa egin eta adar lehorrak kendu ere.

Erreklamazioaren harira, informazioa eskatu genion Espazio Publikoaren eta Ingurune Naturalaren Zerbitzuari. Erantzun-txostenean, irizpide teknikoak, xede nagusiak eta hiriko zuhaitzen kudeaketaren balio eta funtzioak azaldu ondoren, kexaren xede den zuhaitza aipatu da berariaz, bulegoak egindako galderei erantzunez. Txostenean ondorioztatu denez, zuhaitza aztertuta dago eta segimendua egiten zaio, egoera orokor ona dauka eta adar lehorrak kentzen zaizkio, edukiz gero. Era berean iragarri zuen handik gutxira adar altuenak kenduko zitzaizkiola, eta horietara iristeko beste makineria mota bat beharko zela; baina, hala ere, ez zela zuhaitzaren altuera murriztuko, izan ere, egoera onean eta fatxadarekiko behar besteko distantziara dago.

Beraz, egindako kudeaketekin eta emandako informazioarekin eskaerari erantzun diogula uste dugu, eta salatutako arazoa konpontzeko neurriak aztertu direla. Hortaz, dosierra itxiko dugu.

ERREG. ZK.: 2235/15 UDALEKO ERRAZTATZAILEEN ZARATAK.

Balentin Foronda Zidorra kaleko lehenengo solairu batean bizi den egoiliar batek kexa jarri du, garbiketa egunero goizeko 06:45ean egiten duten erraztatze makinen zaratengatik jasan behar dituen eragozpenak direla-eta. Erreklamazioa aurkeztu zuen Ingurumen Sailaren aurrean, baina ez dago ados jasotako erantzunarekin, txandak eta eremuak antolatze irizpideei dagokienez, beranduago igarotzen baitira etxebizitzetaz inguratuta ez dauden beste eremu batzuetatik. Horregatik eskatu zuen berriro azter zitezela eremu horretako erraztatzaileen txandak eta ibilbideak.

Zaborrak Kudeatzeko Zerbitzuak txostena bidali zigun. Horren bidez, garbiketa zerbitzua kudeatzeko kontratu berria abiarazteko data aipatu ondoren, bai eta garbiketa makina guztiak berri direla esan ostean ere, erositako ibilgailuak merkatuko isilenak direla azalduz, jarraibideak eman direla adierazi zen, ibilgailu berriak jasotakoan behar bezala aldatu eta berdiseinatu daitezzen makina horiek jarraitu beharreko ibilbideak, eta, diseinu berri horretan, lehentasuna eman dakion ibilbidearen hasierari, horrela, ahal den neurrian, goizeko txandan biztanlerik gabeko eremuetan has daitezzen ibilbideak, etxebizitzak hurbil dituzten eremuetan ibilgailu horiek eragindako balizko eragozpenak saiheste aldera.

Aurrekoari erreparatuta, amaitutzat jo genuen gure esku-hartzea, hilabete batzuen buruan kontua konpon zitekeela balioetsita. Dena dela, zentzuzko denbora igarota aldaketarik hauteman ezear, gure bulegoarekin berriro ere harremanetan jartzeko adierazi genion.

C) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2066/14 FATXADA GARBITZEKO ERREKERIMENDUAK BETETZEA.

Herritar emakumezko batek esan zigun Vera Fajardo Margolariaren kalea eta Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea elkartzen dituen pasabidea pribatua dela erabilera publikoarekin, eta etxabeetan bost lokal daudela. Emakume horrek, inguru horretan dagoen zikinkeria dela eta, zenbait eskaera zuzendu zizkion Ingurumen Sailari administratzaile gisa, lokal horien jabeei higiezinaren atzeko aldea txukuntasun publikoko egoeran eduki zitzatela eskatzeko, eta hala, bost eskaera bidali zitzaizkien, lokal bakoitzeko bat, eta horietatik bi bete ziren eta hiru ez. Horregatik, eskaera hori oraindik bete ez zuten pasabide horretako jabeei zuzendutako errekerimendua betearazi zedila eskatzen zuen.

Kexa jaso ondoren, Ingurumen eta Espazio Publikoen Sailari informazioa eskatu genion bi lokal horiei egindako errekerimenduen izapideak zein egoeratan zeuden jakiteko. Sail honek erantzun zigun errekerimendua jaso zuten lokal horietako batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela lokalaren kanpoaldeko fatxada garbitzeko eskatzen zien ebazpenaren aurka. Gai bat auzi judizial baten xede den bitartean Sindikoak debekatua du esku-hartzea, Herritarren Defendatzailearen Araudiarekin bat etorritz. Nolanahi ere, egoki iruditzen zaigu epai bat eman arte itxoitea, herritarrari erabaki judizialaren inguruko informazioa eman baino lehen.

Gero, Ingurumen Sailak jakinarazi zigun ordurako ebazpen judizial bat emana zela, eta horren arabera, ezetsi egin zela lokala fatxada garbitzera behartzen zuen Dekretua, horrelako kasuetan aipatutako lokal horrek osatzen zuen Jabekideen Erkidegoa baita Udalaren aurrean erantzule zuzena.

Beraz, kasu zehatz honetan, erreklamaziogilea parte den Jabekideen Erkidegoari Udalak eskatuko dio garbitu dezala fatxada hori, erkidegoak erantzukizun hori lokalen jabeen gain utzi ahal izango duen arren, bere estatutuetan jasotako jabetza horizontalaren erregimenarekin bat etorritz.

Herritarrari eskainitako informazioarekin, amaitutzat jo genuen Sindikoaren jarduna.

ERREG. ZK.: 2129/14 ERRAZTATZEKO MAKINEN ZARATA

Herritar batek jo zuen gure bulegora, kexa bat aurkeztera, erraztatzeako makinek egiten dituzten zaratak direla eta, egunero jasan behar izan baitituzte horiek, goizeko seietatik, Uralmendi kaleko bizilagunek. Hori dela eta, makinak Uralmendi kaletik goizeko 8ak arte ez igarotzeko eskatzen zuen.

Erreklamazioa jaso ondoren, Ingurumen Sailari kontsulta egin genion, posible ote zen erraztatze mekanikoari ekiteko ordua atzeratzea, garbitzen diren kaleen ordena aldatzea, garbiketa-ordutegia aldatzea edo bestelako aukeraren bat bilatzea, eta kontrata berriarekin erabiltzekoak ziren erraztatze makinen ezaugarrien berririk bazuten.

Sailak erantzun gisa bidali zigun txostenean ondorioztatzen da ez dela egokitzat jotzen hiriko ingurune horretako espaloiak makinekin erraztatze ibilbidearen hasiera atzeratzea, eta horren arrazoiak ematen dira. Gainera, adierazten da guztiz ezinezkoa dela kale horietatik igarotzeko ordena aldatzea, eta ez dela bideragarria aldatetak egitea ordutegian, ez astero, ez aldian behin.

Eman ziguten erantzunak ez gintuenez ase, eta kontuan izanik garbiketa-kontrata berria esleitzeko fasearekin bat egin zuela informazio-eskabideak, kontratu berriaren inguruko berrikuntzen zain geratzea erabaki genuen —eskaintzen ziren makinen ezaugarriak, ibilbideak eta abar—.

Izandako bileretan, sailari jakinarazi genion ez zitzaigula onargarria iruditzen makinek egiten zuten zarata, eta berriro ere ohartarazi genuen ibilbidea aldatzeko aukera izan zitekeela.

Kontratua esleitu ondoren, gerora egin genuen bilera batean, berriro gaia tratatzean, adierazi ziguten espero zutela makina berriekin zaraten maila nabarmen jaistea.

Eman ziguten informazioarekin uste izan genuen orientabidea ematen zitzaiola herritarrari berak agertutako arazoaren inguruan, eta itxi egin genuen dosierra.

ERREG. ZK.: 2131/15 ZAPATARI KALEKO GARBIKETA.

Zapatari kaleko bizilagun bat kexatu egin zen urteko azken gauean ez zelako kalea garbitu urtarrilaren 4a arte, gaueko parrandan zikinkeria ugari metatu arren. Gasteizko jaietan gauza bera gertatu zela gaineratu zuen. Horregatik, egun seinalatu batzuen ondoren Zapatari kaleko garbiketa ez atzeratzeko eskatzen zuen, gaueko parrandaren ondoren zikinkeria oso nabarmena izaten zelako.

Kexa jaso ondoren, Ingurumen eta Espazio Publikoaren Sailarekin harremanetan jarri ginen Zapatari kaleko ostalaritza-establezimenduetan hondakinen gaikako bilketa nola egiten den ezagutzeko asmoz, eta zein ordutegitan, Urte Zaharreko gauaren ondoren Zapatari kalea zein egunetan garbitu zen eta zergatik ez zen, itxura guztien arabera, hurrengo egunean bertan garbitu.

Sailak igorritako txostenak zioenez, inguru horretan beira, papera edo kartoia eta beste hondakin batzuk jasotzeko sistemari eta ordutegiari dagokionez, gaueko aisialdiaren eraginpean dauden kaleetan

garbiketa erraztatze bidez eta ur-zorrotadaz egiten da. Lehenik, erraztatze hori eskuz edo mekanikoki egiten da, bide publikoan geratzen joan diren hondakin solido guztiak ezabatzen ahaleginduz, eta gero, presiozko ur-zorrotadaz garbituz hondar likido guztiak ezabatzen saiatzen dira. Gainera, egoerak horrela eskatzen badu, aisialdiko jarduera ugari egiten diren datetan, urte zahar egunean esaterako, ur-zorrotadaz garbitzeko zerbitzuak produktu usain-emaileak edo koipegabetzaileak gehitu diezazkioke urari.

Urte Zaharreko garbiketari dagokionez, Zapatarri kaleko garbiketa 2015eko urtarrilaren 1ean bertan egin zela zehaztu zuen, ohiko zerbitzu guztiak eskainiz, baita erraztatzea ere hurrengo egunetan ohiko maiztasunez. Kale honen garbiketa ezin izan zen ur-zorrotada bidez burutu, urtarrilaren 4a arte, urte zaharraren ondorengo egunetan izan ziren tenperatura hotzen ondorioz ez zelako gomendagarria hiria uraz garbitzea, zoruan izotza sor zitekeelako.

Erabiltzaileari informazio hori guztia eskaini ondoren, dosierra itxi genuen.

ERREG. ZK.: 2143/15 GAZTEEN LONJAK. BETEBEHARRAK.

Lokal bat gazte-lonja gisa erabiltzeko alokatu nahi duten gazte batzuen gurasoek jo zuten guregana, jarduera legeztatzea lortzeko hartu beharreko neurriei buruzko informazioaren bila, eta orobat jakiteko zertarako ematen dien horrek eskubidea.

Kontsulta jaso ondoren, informazioa eskatu genion Ingurumen Sailari, eta bertatik txosten zehatz bat bidali ziguten, non jakinarazten ziguten jarduera hori "kultur- eta elkarte-ekipamendu" gisa dagoela sailkatuta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, eta azaltzen ezen, jarduera horrek lokalaren barruan janariak eta edariak kontsumitzea bazekarren berekin, orduan Ostalaritzako Establezimendu Publikoei buruzko Udal Ordenantza aplikatu beharko zitzaioela, eta, beraz, ondorioztatzen zen bilkura-jarduera bat kultur ekipamendu gisa komunikatu daitekeela, edo ostalaritza-erabilera tertziario pribatu gisa.

Ondoren, proiektuak lantzen dituzten teknikariek, hainbat arlotako arauak —egokitzapena, eremuen banaketa, isolamendu akustikoa, instalazio elektrikoa eta abar— betetzen direla justifikatu eta ziurtatzeko proiektuetan jaso beharreko baldintzak zehazten ziren, eta, azkenik, jarduera legeztatzeko administrazio-prozedura —aurretiazko jakinarazpena— azaltzen.

Erreklamatzaleei txostenaren eduki osoa helarazi genielarik, egindako kontsultaren inguruko orientabidea emana genuela uste izan genuen.

ERREG. ZK.: 2146/15 GAZTEEN LOKALAK. JABEA.

San Martin auzoan kokatutako lokal baten jabe den herritar batek hausnarketa egin du zergatik ez duten arrakastarik inguru horretako saltokiek. Adierazi du bere lokala hutsik zegoela arrazoi horregatik, nahiz eta gazte askok lokal horren gaineko interesa agertu duten; hala eta guztiz ere, arazoak sortzen dituen bizilagunen bat duenez gero, ez du uste lokal hori gazteei errentan uzteko egokia denik, inoiz edo behin egin izan duen arren.

Bere iritziz, gazteen lokalen inguruko araudi baten bitartez konpondu liteke egoera hori, ostalarienak bezain zorrotzak ez diren baina gazteei nolabaiteko segurtasun juridikoa emango dieten gutxieneko baldintza batzuk bermatuz. Gaineratu du gazteen lokalak sozializazio eta aisialdiko guneak direla, eta horrez gain, hirian bizitza gehiago izan dadin laguntzen dutela, lokal huts ugari egoteak asko murriztu badu ere.

Herritarrarekin izandako bileran iritziak elkarri jakinarazi ondoren, gazteentzako lokalak arautzen dituen ordenantzaren zirriborroa bidali genion, eta harremanetan jartzea adostu genuen gai horren inguruan bilakaerarik ikusten den jakiteko.

ERREG. ZK.: 2176/15 ARKUPEETAKO GARBIKETA.

Herritar bat kexatu egin zen zikinkeria eta infekzioen iturri bilakatu direlako Arkupeak, hainbestearaino ezen ezinezkoa baitzaio leihoa irekitzea. Adierazten zuen kale-zurrutak eragozpen handiak sortzen dizkiela, eta gero ez dela dagokion garbiketarik egiten. Bi urte lehenago, udaleko ordezkariak bizilagunei jakinarazi zieten beheko aldean hezetasunak zeudenez gero ez zela komeni ur-zorrotadaz garbitzea. Horregatik, teoriarik, ostiral, igande eta jai-egunetan garbituko zuten, iragazpenak ekiditeko eta garbiketa egin ahal izateko irtenbideren bat bilatzen zuten bitartean.

Adierazi zuen, horrez gain, martxoaren 19a jai-eguna izanik, bezperan kale-zurruta izan zela eta ez zela garbiketarik egin.

Aurreko guztiagatik, adierazitako garbiketa-arazo horren aurrean neurriak hartu zitzatela eskatzen zuen.

Erreklamazioaren ondoren, Ingurumen Saileko zuzendariarekin elkartu ginen eta jakinarazi ziguten, herritarrak zioen moduan, garbiketa-metodoa aldatzea erabaki zutela, ur-zorrotada mistoa erabiltzetik (eskuz botatzen diren ur-zorrotadak eta makinaren bidez jaurtitako presioko ura konbinatuz) ur-zorrotadak hidrogarbigailuz egitera (presioko ura eskuz jaurtitzeko duen makina) igaroz. Garbiketa-egunak ere aldatu ziren, eta ur-zorrotadak ostiraletan, igandeetan, astelehenetan eta jai-egunetan botatzera igaro ziren.

Esan ziguten, horrez gain, garbiketa-enpresak argi zeuzkala ordutegiei eta garbitzeko moduei buruzko jarraibideak, baina beste kontu bat zela langile guztiak profesionaltasun berberaz lan egitea.

Beste alde batetik, martxoaren 19an gertatutakoari dagokionez, egiaztatu ziguten ez zela ur-zorrotadaz garbitu, baina obra-hondakinak zeudelako izan zela hori, zeren eta, hondarra zegoenez, ura botaz gero, lokatza sortuko zelako. Gainera, beren iritziz ez zegoen kale-zurrutaren hondakinik, ezta pixa-usainik ere. Nolanahi ere, Ingurumen Sailari jakinarazi genion beharrezkoa zela herritarraren ohartarazpenak kontuan hartzea, eta eremu honen garbiketa ahalik eta ongien egitea, historikoki eta arkitektura aldetik balio handikoa delako.

Gure iritziz, Udalak erabiltzen dituen irizpide teknikoekin loturik (zentzu handikoak iruditzen zaizkigu) eskainitako informazioarekin, orientabide egokiak emango genizkiokeen erreklamazioegileari berak azaldu duen arazo horren inguruan.

ERREG. ZK.: 2180/15 ONDARE-ERANTZUKIZUNA. OBRAK KOLEKTOREAN.

Peru kaleko garaje-jabeen erkidego bateko ordezkariak kexa baten berri eman ziguten Udalak ezetsi egin zuelako ondare-erantzukizunarekin loturiko erreklamazio bat.

Adierazi zutenaren arabera, badira urte batzuk itoginak eta iragazpen-arazoak jasaten ari direla. 2013. urtean arazo horri konponbide bat ematea erabaki zuten, hondakin-urak zirelako eta usain-arazoak zituztelako. Obra horietan, lubaki bat ireki zuten fatxadaren eta aparkaleku-eremuaren artean, kolektore nagusira iritsi ahal izateko bezain handia, eta han ikusi zuten ohol batek oztopatu egiten zuela bebarruko hustubideen irteera. Ohol hori 2007. urteaz geroztik egon zitekeela pentsatzen zuen, urte horretan Udalak obra bat egin baitzuen Simon Anda kaletik Arriagako Atea kaleraino, eta harrezkero hasi ziren sortzen iragazpen-arazoak.

Erkidegoak 15.000 euro ordaindu behar izan zituen, eta horrexegatik, ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu zioten Udalari, zenbateko hori ordaindu ziezaien.

Bizilagunek behin eta berriz zioten ohol hori obrakoa zela, eta kokatuta zegoen tokiagatik, ezinezkoa zela gerora han jarria izatea. Adierazi dute badagoela grabazio bat, obra horiek egin zituen enpresa kamera berezi batekin sartzen zelako hodian barruan.

Horregatik, egin beharreko urratsei buruzko orientabidea eskatzen dute, Udalak obra horien kostua bere gain har dezala erdiesteko xedez, hain zuzen ere Udalak Arriagako Atea kaleko kolektorearen obrak modu desegokian egin izanagatik egin behar izan zituztelako obra horiek.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko epearen barruan dagoenez gero, biderik egokiena bide judiziala zela aipatu genien, eta horretarako aholkatu genien, erabaki bat hartu aurretik, erkidegoak abokatu bati galdetzea zela onena.

Azaldu genien ondare-erantzukizunak esan nahi duela administrazioak partikular bati egindako edozein kalte ordaindu egin behar duela, eta gainera objektiboa da, hau da, kaltearen ordaina eman behar dio, erruduntasunik egon ala ez egon. Horrek esan nahi du erantzukizuna hain objektiboa baldin bazen, agian Udalak frogatu beharko lukeela ez zela bera izan, ezta kolektorearen obra egin zuen kontratista ere, ohola hor kokatu zutenak.

Bere erreklamazioa indartu eta sustengatu zezaketen frogabide posibleei buruzko orientabideak emanaz, dosierra ixtea erabaki genuen.

ERREG. ZK.: 2265/15 LOKALA ZARATENGATIK IXTEA. BIZILAGUN BATEN SALAKETA.

Ostalaritza-establezimendu gisa alokatuta duten lokal bateko jabeek aholku eskatu dute, eraikineko bizilagun baten etengabeko kexak direla-eta, lokala ez baita berandu ixten, ez du musikarik jartzen, ez du gehiegizko zaratarik ateratzen... Horrek guztiak zigortzeko hainbat espediente ekarri ditu.

Gure ustez egin litezkeen aukeren gaineko aholkua eman genion (isolamenduan eta egokitzapenean inbertitzea, jarduera aldatzea eta abar).

ERREG. ZK.: 2272/15 GAZTE-LOKALAK. LOKALEKO JABEA.

San Martin auzoko lokal bateko jabeak adierazi digu hainbat gazte koadrilak adierazi diotela lokala gazte-lokal gisa alokatzeko interesa, baina beldur da, lokala gazte talde bati alokatuz gero, bizilagunek salatuko ote dituzten. Azaldu duenez, lokala egoera onean dago, larrialdietako argiak dauzka, su-itzaileak dauka, kale mailan dago...

Ahoz orientatu genuen, eta adierazi egokia litzatekeela, etxabea gazte talde bati alokatuz gero, jolas jarduera egin ahal izateko baimena eduki dezatela, 22 orduko mugarekin bada ere; izan ere, polizia bertaratuz gero, ez da gauza bera legeztatuta ez egotea eta baimena edukitzea. Agerikoa denez, horrek ordutegiak eta jarduerak mugatzen ditu, baina urrats bat da.

Ingurumen Sailak gazte-lokaletako jarduera baimentzeko ofizialki eskatzen dituen betekizunen kopia eman genion.

D) IDAZKI LAGUNDUA

ERREG. ZK.: 2139/15 ISUNA OSTALARITZAKO ORDUTEGIA EZ BETETZEAGATIK.

Bere jarduera Erdi Aroko Herrigunean burutzen duen ostalari batek kexa aurkeztu du ixteko ordutegia ez betetzeagatiko zehapen-dosier batek eragindako ebazpen-proposamena jakinarazi ez zaiolako, horri hasiera emateko erabakiaren aurrean alegazioak aurkeztu ondoren.

Proposamen horrek arintzat kalifikatu zuen lege-haustea, eta 800 euroko zenbatekoa zuen isun bat ezartzea proposatzen zuen. Dosier horren jatorri diren gertaerak Jazzaldian gertatu ziren, eta osteguna izan arren, herritarraren iritziz indarrean egon beharko luke Udalak dekretu bidez jaialdi berezietarako ezarria duen ordutegi-hedapenak. Ebazpen-proposamenean adierazten zen legeak ez ezagutzea ezin dela hori ez betetzeko aitzakia gisa erabili, baina herritarraren iritziz berak ez zuen baimendutako egunen berri jakiteko modurik, eta joan den urtean ere luzatu zuen ostegun horretan bertan ixteko ordutegia eta ez zuen inolako ondoriorik izan. Aurreko guztiagatik, emandako epearen barruan alegazioak idazteko orientabideak eskatu zituen.

ERREG. ZK.: 2154/15 GAZTEEN LONJAK. DOSIER ZIGORTZAILEA, LONJA LEGEZTATU GABE EDUKITZEAGATIK.

Gazalbideko gazte-lonja bat erabiltzen duten gazte batzuk etorri ziren gure bulegora, jarduera horretarako arauzkoa den aurretiko komunikazioa gauzatu ez zutelako dosier zigortzailea abiarazi zitzaiela jakinarazi zitetarik.

Laguntza eskatu ziguten, horretarako emandako epean alegazioak aurkezteko, berek ez baitzuten auzokoen, merkatarien edo beste lokal batzuen erabiltzaileen inongo kexaren berririk, eta, horrez gain, bi su-itzalgailu, larrialdiko irteerak adierazten dituzten seinaleak eta beste hainbat segurtasun-neurri jarriak baitzituzten, eta prest ageri baitziren behar ziren neurriak hartzeko. Ingurumen Sailari zuzendutako eskabidean eskatzen zuten lokala ez ixteko, eta ez zigortzeko, eta arrazoizko neurriei buruzko informazio zehatza emateko, lonja horretan burutzen duten jarduera aintzat harturik.

ERREG. ZK.: 2205/15 GAZTE-LOKALAK. ZIGORTZEKO ESPEDIENTEA, LEGEZTATU GABEKO ETXABEAGATIK.

Gazte talde baten ordezkaria bertaratu da. Gazte-lokal baten erabiltzaileak dira, eta zigortzeko dosierra abiarazi duen akordioa jakinarazi zaie, bertan garatzen ari zen jarduerarako aurretiko nahitaezko

komunikazioa ez egiteagatik. Musika jartzeko gailurik ere ez dutela adierazi du, eta, beraz, beren ahotsak direla soinu bakarra. Ez du ulertzen zergatik zuzendu dioten berari ebazpena, ez baita ez jabea, ez errentaria, eta, era berean, ez daki zergatik ebatzi den lokala ixtea.

Gure lankidetzak eskatu dute, arrazoibideak xede horretarako emandako epean aurkezte aldera. Horietan, lokala ez ixteko eskatu dute, eta gazte-lokalaren jarduera legeztatze aukera eman diezaietela.

Udalak ebazpen proposamen batzuekin erantzun die arrazoibideei. Horien bidez, arrazoibideak balio gabetza proposatu du, eta berriro alegatzeko epea esleitu. Bigarren idazkia idazten lagundu genien gazteei, lehenengo idazkiko argudioak eta eskaerak berretsiz.

Kontuaren gaineko berririk izan gabe denbora luzea igaro denez, dosierra itxi dugu.

E) EZESPENA

ERREG. ZK.: 2141/15 IRISGARRITASUNA JABEEN ERKIDEGO BATEAN.

Herritar batek adierazi zigun adin handiko jabeen erkidegoa osatzen dutela, eta bebarrua zero kotara beheratu nahi zutela, baina plaka hautsi gabe, eraikinaren segurtasunagatik, baina horretarako beharrezkoa zela espaloia kota goratzea.

Bai bebarruaren sarreran eta bai aldamenean dagoen azoka baten sarreran ere eskailera-maila bat dago, eta hori gaintu beharra zegoen, eta horrexegatik, espaloia kota goratzea eskatzen zuten, baina Udalak argudiatu zuen, herritarrak eta erkidegoak proposatzen zuten proiektua eginez gero, bide publikoa okupatuko litzatekeela.

Herritarraren kexa jaso ondoren, berak eskaintako dokumentazioa aztertu genuen, eta bereziki, Ingurumen eta Espazio Publikoaren Zerbitzuak eskaintako erantzuna, eta Bide Azpiegituren Buruzagitzarekin harremanetan jarri ginen, txostenean eskaintako erantzun hori osatu ziezagun.

Era berean, toki hori bisitatzera joan ginen, inguru horren xehetasunak, egoera eta har zitezkeen irtenbideak zein ziren egiaztatze asmoz, erkidegoaren bebarruari irisgarritasuna eskaini ahal izateko, baita herritarraren bebarrutik hurbil zegoen azokari ere. Era berean, kasu horri aplikatu zekioken araudia aztertu genuen.

Informazio guztia bildu ondoren, ondorioztatu genuen inoiz ez dela txosten tekniko baten bitartez justifikatu bebarruaren eta etxebizitzaren barrualdera irisgarritasuna ahalbidetzea ezinezkoa denik bide

publikoari eragin gabe, eta ez dugu inolako arrazoirik topatu Udalak izaera orokorrean aplikatzen duen irizpidea ez den besteren bat hartzeko, hau da, bebarruetara irisgarritasuna bermatzeko obrak eraikinaren barrualdetik egin daitezela eta bide publikoaren kotari eragin gabe.

Azokaren irisgarritasunari dagokionez, jadanik eraikita dagoen barruti pribatua denez gero, nahiz eta erabilera publikorako xedatuta dagoen, Udalak ezin dezake eskatu irisgarritasun-arauetara egokitu dadila, eraberritzeko, handitzeko edo aldatzeko obrarik egin ezean. Nolanahi ere, jabeek erabakiko balute obra horiei ekitea, printzipioz bederen, lokalak dituen neurriengatik eta gainditu beharreko gainbeheragatik, ez dugu aparteko zailtasunik ikusten lokalaren kota bide publikoaren maila beraraino behertzeko.

Aurreko guztiagatik, uste dugu Udalaren jarduera zuzena izan dela ikuspegi juridikotik.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2232/15 GARBIKETA GABEZIA FLORIDA KALEAN.

Florida kaleko bizilagun batek eremu horretako garbiketari buruzko erreklamazioa aurkeztu du, izan ere, ozta-ozta metro eta erdiko zabalera duen espaloi batean, zaborrek kalea betetzen dute, edukiontziak ez baitira oso irisgarriak eta beteta egoten baitira. Gainera, edukiontziak zaharrak direla eta hatsa jariatzen dutela adierazi du. Horregatik, edukiontziak beste leku batera mugitzeko eskatu du.

Informazio-eskaera egin genion Ingurumen Sailari. Horrek txostena bidali zigun, eta, horri erreparatuta, udalak arrazoizko irizpide teknikoaren eta kudeaketa irizpideen arabera jardun duela balioetsi dugu, ezeztatzeko zailak horiek. Beraz, ezin izan genuen herritarren eskaera onetsi.

Alabaina, puntu horretako zabor biltetan eraginkortasunik gabeko egoerei buruzko argazki adierazgarriak bidali zizkigunez, etorkizunean horrelako egoerak errepikatuz gero, argazki berriak data zehatzekin bidal diezazkigula eskatu genion, Ingurumen Sailari helarazi ahal izateko xedez, eta, beharrezkoa izanez gero, zerbitzua indartzeko neurriak edo beste mota batekoak har daitezten.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2258/15 UDALEKO ERRAZTATZAILEEN ZARATAK.

Dato kalean bizi diren egoiliar batzuek jakinarazi digute egunero jasaten dituztela erraztatzaileen zaratak, goizeko seietan igarotzen baitira hortik, eta hiru edo lau pasaldi egiten dituztelako eremu berean, puntu

berberean hainbat aldiz geratzeaz gain, antza, inguruan ur-hargune bat dagoelako. Dato kaleko garbiketa antolatzeke orduan, inguruabar horiek kontuan har daitezela eskatu dute.

Erreklamazioaren harira, azaldutako gaiari buruzko informazioa eskatu genion Ingurumen eta Osasun Publikoaren Sailari, hainbat kontu planteatzearekin bat. Erantzun-txostena bidali zigun horrek. Bertan, erraztatzeko makinek eremu horretako lana goizaldean egiteko arrazoiak azaldu dira, bai eta makina bakoitzak egin beharreko pasaldi kopuruari buruzko arrazoiak azaldu ere, espaloien zabalera kontuan hartuta. Era berean, egindako iradokizunak aipatu dira. Alde batetik, establezimendu bakoitzak egunean zehar okupatzen duen espazioa garbitzeari dagokionean – ez-betetzeak hautemanenez gero, horren arabera jardunez– , eta, bestetik, garbiketa trinkoak maiztasun txikiagoz egiteko ideiarri dagokionean – azaldu duenez, garbiketa horiek bereziak dira, gehigarriak, eta egunero ematen direnak baino zerbitzu gehiago hartzen dituzte euren baitan, eta inola ere ez dituzte egunerokoak ordeztzen– .

Azkenik, garbiketa kontratuak maiztasun mailari dagokionez kontuan hartzen dituen alderdiak aipatu dira: errepideko zirkulazioa eta oinezkoena, jarduera nagusia, zabor mota eta horien kausa, interes turistikoa eta abar. Bestalde, kasu zehatzari buruz ondorioztatu du Eduardo Dato kalea interes turistikoa duen kaletzat dagoela hartuta, zikinkeria kopuru handia jasaten duela asteguna dena delakoa izanda ere, eta zerbitzuen sektorearen jarduera handia duela, bai eta oinezkoen dentsitate handia ere.

Ondorio gisara, zerbitzu horien lehentasunezko izaera azpimarratu ondoren, eta erraztatzeko makinak bertatik igarotzeko ordutegia atzeratzearen ondorio negatiboak baloratu ostean, garbitzeko eta biltzeko ibilgailu berriak iristen direnean, zarata maila nabarmen murriztuko dela adierazi du.

Aipatu txostenean azaldutakoari erreparatuta, udalak arrazoizko irizpide teknikoan eta kudeaketa irizpidean arabera jardun duela balioetsi dugu, ezeztatzeke zailak horiek. Beraz, ezin izan dugu eskaeraren balioespen-ebazpena egin.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)

ERREG. ZK.: 2164/15 KUTXATILA HAUTSIAREN GAINETIK AUTOBUSA PASATZEAK ERAGINDAKO ZARATA.

Bizilagun batek erreklamatu zuen Independentzia kaleko kutxatila batzuk oso hondatuak zeudela aspalditik, autobusak igarotzen zirelako horien gainetik, eta hain zuzen ere, kutxatila bat solte zegoen 5 zenbakiaren parean, eta hori, bere ustez, onartezina zen. Udalari hainbat erreklamazio egin ondoren, eta

arazo horri benetako irtenbiderik eman ez ziotenez gero, Udalarekin telefono bidez harremanetan jarri ziren eta adierazi zieten Eusko Jaurlaritzaren eskumena zela, tranbiaren bide bat zelako.

Horregatik guztiagatik eskatzen zuen Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bitartekaritza-lanak Sindikoak egin zitzala, bizilagunen atsedinari irtenbide bat bilatu ahal izateko. Herritar horrek eskatzen zuen behin behineko irtenbide bat eman ziezaiotela arazo horri, atsedean hartzeko aukera izan zezaten, eta halaber, behin betiko irtenbide bat adostu eta betearazi zezatela horren ardura zutenek. Gainera, bide horretatik gauzez autobusik igarotzea debekatu zezatela eskatzen zuen.

Egun batzuk geroago, herritar horrek jakinarazi zigun arazoa konponduta zegoela; Sindikoaren bulegoan egiaztatu genuen Udalak arazo horren berri eman ziola EuskoTrani, eta hark konpondu egin zuela. Beraz, Sindikoaren jarduna amaitutzat eman genuen.

ERREG. ZK.: 2178/15 ANTENAK SIMON BOLIVAR PLAZAKO ERAIKINEAN.

Simon Bolivar plaza inguruko higiezin bateko jabekideen komunitateko kideek euren kezka agertu dute, areagotu egin direlako beren etxeetatik teilatuetan ikusten dituzten antenak, eta azaldutako kontuaren gaineko aholkua eskatu dute.

Araudiak ezarritako igorpen mugak, Europako Batzordearen gomendioa, jabari publiko erradioelektrikoaren estatuko titulartasuna eta telekomunikazioei buruzko lege berriaren onarpenak (liberalizatzailea hori) ekarri dituen aldaketak azaldu genizkien.

Ondorioztatu genuenez, neurketak egitea da lehenengo urratsa. Beraz, eskudun ministeriora jotzea erabaki zuten, datuak biltze aldera eta, gero, emaitzaren berri emateko xedez. Berririk jaso gabe denbora igaro ostean, harremanetan jarri ginen auzokideekin, eta adierazi ziguten ez zutela inolako jarduerarik abiarazi eta dosierra artxibatzea nahi zutela.

ERREG. ZK.: 2090/14 ZARATENGATIK BIZILAGUNEN ARTEAN BITARTEKARITZA-LANAK EGITEN SAIATZEA.

Herritar batek jakinarazi zigun bere bikotekidearekin batera egungo etxebizitzara aldatu zenez geroztik eragozpenak jasaten ari zirela goiko solairuan bizi ziren senar-emazteek eragindako zaratengatik, aspiragailua pasatzen baitzuten ezordutan, altzariak arrastaka mugitzen zituzten, takoiak eta zapaten oin-hotsak entzuten ziren... Egoera hori jasanezina izateraino iritsi zen, eta elkarrizketaren bidez arazo

horri irtenbide bat bilatzen ahalegindu ondoren, Sindikoak esku har zezala eskatu zuten beste alderdiarekin adostasun bat erdiesteko eta eragiten zituzten eragozpenak amaitzeko.

Ustez eragozpenak sortzen zituzten pertsonekin harremanetan jarri aurretik, erreklamaziogileek jakinarazi ziguten elkarrekin hitz egin zutela eta zarata horiek bolada eta garai batzuetan gertatzen zirela, eta beraz bitartekaritzara ez jotzea erabaki zutela, gauzek okerrera egiten ez bazuten. Horregatik, erabiltzaileak eskatuta, itxi egin genuen dosierra.

ERREG. ZK.: 2219/15 ARAZOAK AUZOKIDEEN ARTEAN.

Jabekideen komunitate bateko ordezkariak jakinarazi digute etengabeko eragozpenak jasaten dituztela higiezinako seigarren solairuan alokairuan bizi den bizilagunaren txakurraren pixa dela-eta. Txakurra terrazan egon ohi da, eta ez denez pasieran ateratzen, bertan egiten du txiza. Osasungaiztasun handiko egoera eragiten du horrek, txiza fatxadan zehar kaleraino isurtzen baita. Horregatik, Sindikoaren bitartekaritza eskatu zuten, salatutako arazoa konpontze aldera.

Harremanetan jarri ginen txakurraren jabearekin, harekin bilera egiteko eta bere ikuspuntua ezagutzeko asmoz, eta egun gutxitara bizilekuz aldatuko zela adierazi zigun. Informazio horren berri eman genien gainerako bizilagunei, eta dosierrarekin aurrera ez egitea erabaki zuten.

03.5 Gizarte Politiken Saila

A) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2167/15 ERROLDA. GATAZKA ERROLDAN ALTA EMATEAN.

Herritar batek adierazi zigun hogeita hamar urte baino gehiago zeramatzala Gasteizen eta joan den urtean etxebizitza bat errentan hartu zuela. Jabeak errentamendu-kontratu bat egin zion eta, itxuraz, adierazi zion ez zedila kezkatu erroldatzeaz, hark egingo zuela bere orde. Orduz geroztik errenta zintzo ordaintzen aritu zen, baina une batetik aurrera ezinezkoa egin zitzaion ordaintzea.

Etzegabetu zezatela eragozteko, abenduan gizarte-laguntzailearekin hitzordu bat eskatu zuen Gizarte Etxean, gizarte-laguntzaren bat izapidetu ahal izateko, baina ukatu egin zioten, benetan bizi zen etxebizitzan erroldatuta ez zegoelako. Erroldatze-izapideak egiteko, hilabete hartako errenta ordaindu

izanaren egiaztagiria aurkezteko eskatu zioten, baina berak ez zeukan egiaztagiririk, ezin izan zuelako errenta ordaindu, eta hain zuzen ere, horretarako eskatzen zituen udal laguntzak.

Kexa hori jaso orduko, gutun bat idazten lagundu genion udal erroldan alta eskatu ahal izateko, eta horrekin batera, errenta-kontratua eta ohiko helbide horretan bizi zela egiaztatzen zuten zenbait jakinarazpen gehitu zituen, nahiz eta une horretan errentaren ordainketan eguneratuta ez egon. Aldi berean, Udaleko Errolda Zerbitzuarekin harremanetan jarri ginen, eta iradoki genien, erreklamaziogilea benetan helbide horretan bizitzen ote zen zalantzarik izanez gero, bidezko ikerketak egin zitzatela, baina ohartarazi genien abiapuntu gisa ezin ziotela alta hori ukatu errentaren ordainketa egiaztatzerik ez edukitzeagatik, erroldan alta emateko eskubidea ohiko helbidea etxebizitza jakin batean duten guztiei dagokielako, kontuan izan gabe ordainketetan eguneratuta dauden edo han bizitzeko titulu justurik duten ala ez.

Izapide horien ondorioz, azkenean Udalak gutun bat bidali zion erreklamaziogileari, eta bertan eskatzen zion jatorrizko NANarekin aurkeztu zedila udal bulegoetan, erroldan alta ematea behin betiko izapidetu ahal izan zezaten eta, era horretan, herritarrek legozkiokeen gizarte-laguntzak eskatu ahal izan zitzaizkien.

ERREG. ZK.: 2230/15 GIZARTE BEHAR LARRIETARAKO LAGUNTZAK.

Herritar batek Sindikoaren esku-hartzea eskatu du, adierazi duenaren arabera, orain arte alokairurako, oinarrizko beharretarako eta mantenu-gastuetarako egon delako jasotzen laguntza, gizarte behar larrietarako laguntzak gisa. Aurten, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua aldatu du, eta laguntza berberak jasotzeko eskaera izapidetu duen arren, alokairurako eta etxebizitzaren mantenurako laguntzak baino ez dizkiote aitortu, baina ez oinarrizko beharretarako laguntzak. Ondorioz, ezin die aurre egin hilero alokairuarekin dituen gastuei (240 euro) eta bestelako gastuei.

Beraz, informazioa eskatu genion Gizarte Politika Sailari, gizarte behar larrietarako laguntzak oinarrizko beharretarako ez onartzeko arrazoiak argitze aldera. Saileko zuzendaritzak emandako erantzunean jakinarazi ziguten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan elkarrizketa eduki zutela kexagilearekin, eta egoera bideratu zutela, egiaztatu egin baitzuten hutsegite baten ondorioz ez zizkiotela prestazioak zuzen izapidetu.

Dosierra itxi dugu, bulego honen esku-hartzeari esker eskaera onartu dute-eta.

B) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2240/15 GIZARTE LAGUNTZA. EGOITZA ESKAERA.

Herritar batek Sindikoaren esku-hartzea eskatu zuen, egoitzan sartzeko duen eskubidea aitortu ziezaioten. Hala ere, betekizunak betetzen ez zituenez, telealarma eskuratzeko aholkua eman genion (horretarako beharrezkoa da gizarte langilearen txostena, automatikoki esleitzeko baldintza guztiak betetzen ez dituelako), bai eta eguneko zentroen gaineko aholkua eman ere.

Era berean, harremanetan jarri ginen esleituta duen gizarte langilearekin, bestelako jarduerarik egitea egokitzat jotzen bazuen ere.

C) IDAZKI LAGUNDUA

ERREG. ZK.: 2063/14 HORTZAK KONPONTZEKO GLL UKATZEA.

Hortzak konpontzeko gizarte larrialdiko laguntza ukatu zitzaion pertsona bati. 2009az geroztik ari da laguntza eskatzen. Behar diren agiri guztiak aurkeztu ditu, txosten medikoa barne, baina hala ere ukatu egin diote. Laguntza ukatzen zitzaion txostenaren kontrako alegazioak idazten lagundu genion, baina gerora ez da berriro gurekin harremanetan jarri.

ERREG. ZK.: 2199/15 GIZARTE LAGUNTZAK JASOTZEA GALARAZTEN DUEN ERROLDAKO BAJA.

Herritar batek, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzailea denak, gure aholkua eskatu du Lanbideren ebazpen bat jaso ostean. Ebazpen horren bidez, hamar eguneko epea eman diote, DBE jasotzeko baldintzak ustez bete ez izanaren aurrean arrazoibideak aurkez ditzan. Ustezko ez-betetzea honakoa da: hiru urtez etenik gabeko errolda eduki ez izana, ofiziozko baja eman baitzion udalak erroldan, hilabete eta lau egunez.

Errolda Zerbitzuan bidegabe egindako inskripzioaren ondoriozko baja-dosierraren kopia eskatu genuen, eta izapidetze horrek legez aurreikusitako izapide guztiak errespetatu zituela egiaztatu genuen. Halere, kexagileari arrazoibideak idazten lagundu genion, izan ere, biztanleen erroldan hilabetez bajan egon zen arren, Gasteizen eduki zuen bizileku eraginkorra, aurkeztu zuen dokumentazioak egiaztatu bezala (eskolatze-ziurtagiria, udaleko osasun zentro bateko mediku-arretaren ziurtagiria...).

03.6 Herritarren Segurtasunaren Saila

A) OFIZIOZKO GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 68/14 ESPAZIO PUBLIKOAN IBILGAILU MOTORDUNAK ETA ZIKLOMOTORRAK ERAKUSGAI JARRI ETA SALTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA DELA ETA.

Pertsona batek jakinarazi zigun 751 euroko isuna jarriz zigortu zutela, ibilgailua bide publikoan salgai edukitzeagatik, horretarako udal baimenik gabe. Salatuak ez zuen aurkeztu alegaziorik, ezta inolako errekurtsorik ere, administrazio-prozeduraren baitan, nahiz eta jakinarazpenak behar bezala jaso zituen.

Zigorra ordenantzan arautuaren arabera jarri zen ala ez argitzeari dagokionez, ez dago zer esan handirik, interpretaziorako tarterik apenas uzten baitute ordenantza horretako testuek eta arau-haustearen deskribapenak:

"4. artikulua.- Ibilgailua aparkatzeko baldintzak.

1.- Inolaz ere ezingo da bide publikoa okupatu, edo hartan barrena zirkulatu, ibilgailua saltzeko iragarkia jarrita, baimena eskuratu gabe. Udal baimena ibilgailuaren barruan ongi ikusteko moduan jarrita eduki beharko da.

...

8. artikulua.- Arau-haustekak.

2.- Hauek dira arau-hauste oso larriak:

Merkataritza-establezimenduek ibilgailuak bide publikoan erakusgai jarri eta saltzea.

...

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

Udal baimenik gabe erakusgai jarri edo saltzea ibilgailuak bide publikoan.

...

10. artikulua.- Zigorrak.

1.- Honela zigortuko dira arau-haustekak:

Arau-hauste oso larriak: 1.501 eurotik 3.000ra bitarteko isuna.

Arau-hauste larriak: 751 eurotik 1.500era bitarteko isuna.

Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta/edo 750 euro arteko isuna."

Horrela, bada, arau horien arabera, bide publikoan aparkatutako ibilgailu baten jabe de edonork, ibilgailuan salmenta-eskaintza bat jartzen duelarik udal baimenik eduki gabe, 751 eurotik 1.500 eurora arteko isuna jaso lezake.

Gainera, bide publikoko ibilgailu-salmentak merkataritza-jarduera bat ezkutatzen badu, orduan isuna 1.501 eurotik 3.000 eurora artekoa izan liteke.

Horrela, ordenantzak dioenari estu-estu lotuz gero, ezin diogu eragozpenik jarri zigor horri, baina, nolana ere, bai planteatu daiteke legitimoa den, arau-haustea berez duen munta txikia kontuan izanik.

Izan ere, administrazio publikoen zigortzeko ahalmena gidatzen duten funtsezko printzipioetako bat, hain zuzen ere, proportzionaltasun-printzipioa da. Printzipio hori ez da gauzatzen arau orokorra arau-hauste bakoitzari aplikatzeko orduan bakarrik, baizik eta baita administrazio-araudian arau-hauste mota berriak definitzean ere.

Ondoren, zigorren esparruan proportzionaltasun-printzipioa aipatzen duten arauak zerrendatzen dira gomendioan. Zehazki, dagoeneko iraungia dagoen 30/1992 Legearen 131. artikulua aipatzen da, Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1.eko 39/2015 Lege berriaren 129. artikulua, eta, bereziki —proportzionaltasunaren kontu hori beharbada egokien jorrotzen den arau-testua delako—, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, horren atariko eta 11. artikulua.

Segidan, kasu honetan proportzionaltasun-printzipioa betetzen den erabakitze aldera, arauaren xedea zein den aztertzen da, hau da, zein den babestu nahi den ondasun juridikoa; aztertzen da ondasun hori aldeztu aurretik ez ote dagoen babestuta eta, beraz, bikoiztasunik ez ote dagoen, eta, azkenik, aurreikusitako zigorraren eta zigortzen den jokabide edo egitatearen larritasunaren arteko korrelaziorik badagoen.

Hori egin ondoren, arrazoizkotzat jotzen dugu esatea ordenantzaren 8.3 artikuluan aurreikusten den zigorrak ez duela betetzen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legean aipatzen den proportzionaltasun-betebeharra, hau da, bikoiztasunak saihestea eta, batez ere, "zigorra bera eta zigorraren barruko edukia ondo egokitzea, kasuan kasuko arau-haustea nolakoa den eta zigor-erregimenak gaiaren aldetik gaineratik duen araugintza-motaren helburu eta berezitasunak zeintzuk diren, zigorra eta zigorraren edukia hartara egokitzea."

Gure kasuan, uste dugu badela lehenagoko araurik, ordenantza horren bitartez babestu nahi diren interes eta ondasun juridikoak babesten dituenik (ingurumenaren eta trafikoaren alorreko araudia). Baina, batez ere, uste dugu alde handia dagoela arau-haustearen izaeraren —ibilgailu bat saltzea, udal

baimenik gabe— eta jarritako zigorraren artean —750 eurotik 1500 eurora bitarteko isuna—, horrekin bermatu nahi denaren argitan.

Horrenbestez, Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 19.b) artikuluan xedatutakoaren ildotik, arazoari konponbidea aurkitze aldera, GOMENDIO hau egiten dugu:

Espazio publikoan ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak erakusgai jarri eta saltzea arautzeko ordenantza zuzendu edo moldatu dadila, proportzionaltasun-printzipioa babeste aldera. Horretarako, uste dugu "udal baimenik gabe erakusgai jarri edo saltzea ibilgailuak bide publikoan", besterik gabe, arau-hauste arintzat jo beharko litzatekeela (750 euro arteko isuna).

Ibilgailuak erakusgai jarri eta saltzea merkataritza-jarduera baten baitakoa denean, uste dugu bi jarduera-mota bereizi beharko liratekeela, horren larritasunaren arabera. Alde batetik, lizentzia edo aurretiko komunikazioa duen merkataritza-establezimendu batek ibilgailuak bide publikoan erakusgai jarri eta saltzea, eta, beraz, hura gainez hartzea, eta bestetik, berriz, horretarako inongo lizentzia edo aurretiko komunikaziorik ez duen pertsona fisiko edo juridikoak jartzea erakusgai ibilgailuak, eta saltzea, bide publikoan.

-OFIZIOZKO GOMENDIOA. EZ ONARTUA-

[Ofiziozko gomendioaren testu osea \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 69/14 UDAL GARABIAK IBILGAILUA KALETIK KENDU AURREKO ABISUA.

Azken urteotan, ugari izan dira udal garabiak bide publikotik kendutako ibilgailuen inguruan Sindikoaren Bulegoan jasotako lekukotasunak. Horietan guztietan, erabiltzaileek jakinarazten ziguten kalte handiak eragin zizkiela garabiak ibilgailua abisatu gabe eraman izanak, ez dena delako isunaz gain ordaindu behar izan zuten tasa gehigarriagatik bakarrik, baizik eta baita ibilgailua Agirrelandako biltegitik jaso behar izanak sortu zizkien eragozpenengatik ere, eta, zenbait kasutan, ibilgailua manipulatu eta garraiatzearen ondorioz hari eragin bide zitzaizkion kalteengatik.

Udaltzainak ibilgailua bide publikotik kentzeko legitimatuta dauden egoerak Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zeneko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 85.1 artikuluan daude jasota.

Gasteizko Udalaren kasuan, ibilgailua bide publikotik kendu eta biltegitan edukitzeagatik ordaindu beharreko tasa, 1750 kiloko edo hortik beherako tara duten ibilgailu eta furgonetei gagozkielarik, 140,89 eurokoa da.

Duela zenbait hilabete, Espainiako 54 hiri nagusietako udal garabien zerbitzuen tasak alderatzen zituen txostena egin zuen OCU erakundeak. Horren arabera, hiririk garestien artean dago Gasteiz, zerbitzuaren batez bestekoa 100 eurokoa izaki.

Ibilgailuak kaletik kentzeko orduan Udaltzaingoaren jokabidea zein den jakite aldera, kontsulta bat egin genuen, non galdetzen genuen, besteak beste, garabiari abisatu aurretik ibilgailuaren jabearekin harremanetan jartzeko ahaleginak egiten diren, bere borondatez ken dezan hura bertatik, eta, bidenabar, ibilgailua dagoeneko udal biltegian dagoelarik, ibilgailua kaletik kendu dela abisatzen den.

Kasu honi dagokionez, erantzun hau eman zitzaigun:

- Ibilgailua kaletik kentzean jabeari abisatzea. *Ez da egiten, premiak edo larritasunak hala agintzen duen zenbait kasutan izan ezik, eta seinaleztapena behin-behinekoa denean. Ez gaude horretara behartuta.*

- Ibilgailua kendu ondoren jabeari jakinaraztea. *24 ordu igaro ondoren, jabeari abisatu eta jakinarazteko izapideei ekiten zaie. Aplikazioak berak jakinarazpen bat sortzen du (trafikoko helbideak eta erroldakoak egiaztatzen dira), eta posta ziurtatuz bidaltzen da. Horrek egun batzuk hartzen ditu. 339/1990 LEDaren 85.3. artikulua aplikatzen da.*

Erantzunean ez da esaten gidariari aldeztu aurretik abisatzea teknikoki edo operatiboki ezinezkoa denik; aitzitik, izatez egiten da, eta hala jakin dugu, ibilgailua kaletik kentzea ez zaionean sor gaizki aparkatuta egoteari, edo gidariaren erruari, baizik eta xede publiko baterako beharrezko denean (bide publikoko jarduerak, obrak, segurtasuna...). Halakoetan —edo, behintzat, kasu askotan—, Udala ibilgailuaren jabearekin harremanetan jartzen da, hura kaletik ken dezaten, edo, bestela, berak kendu duela jakinarazten die, eta non utzi duen.

Horrela, bada, premia dagoenean ibilgailuaren jabeari abisu ematen bazaio, SMS bidez, telefonoz edo beste moduren batez abisu ematen ere, ez du ematen arazoirik dagoenik gidariari abisu eman ahal izateko gainerako kasuetan ere, administrazioak gaizki aparkatutako ibilgailua kaletik kentzea aurreikusten duelarik.

Izatez, sistema hori ez da berria inondik ere. Esate baterako, 2010ean, Iruñeko Udalak aldeztu aurretik SMS bidez abisatzeko sistema bat ezarri zuen, zeinetan ibilgailuen jabeek izana ematerik baitzeukaten, ibilgailuaren datuak eta telefono mugikorraren zenbakia adieraziz. Hartara, ibilgailu batekin intzidentzia bat gertatzen denean, Iruñeko Udalak SMS bat bidaltzen dio gidariari, ibilgailua bertatik ken dezan. Prentsan agertutako informazioen arabera, 14.000 ibilgailutik gora zeuden inskribatuta 2014 bukaera aldera, eta abisatutako pertsonen % 66k bere ibilgailua garabiak kaletik kentzea ekidin zuen, garaiz joanik kentzera.

Ibilgailu baten jabe den edozeinek eman dezake izena errazki zerbitzu horretan, edo baja eman, ohiko bitartekoak baliatuz —bide elektronikoa, aurrez aurre, telefonoz...—, eta aldez aurreko abisuak jasotzeko ez ezik, ibilgailua kaletik kendu ondoren abisua bidaltzeko ere balio du. Esan gabe doa, TAO agenteek eta udaltzainek zuzenean jo dezakete datu-base horretara, PDA edo bestelako tresnen bitartez.

Tasak kobratzeko orduan, Iruñeko kasuan, tasaren % 50 kobratzen da baldin eta garabia dena delako lekura joan bada baina, zerbitzu osoa eskaini aurretik, gidaria edo hark baimendutako norbait agertu bada eta berak kendu badu auto bertatik, eta % 100, aldiz, zerbitzu osoa eskaini bada bakarrik.

Neurri horren araudi-justifikazioari dagokionez, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna aipa genezake, zeinek 41. artikuluan "administrazio ona izateko eskubidea" jasotzen baitu, eta, zehazki, honako hau: "*pertsona orok du eskubidea kalte egin diezaiokeen bakarkako edozein neurri bere kontra hartu aurretik esateko duena entzun dakion*". Nahiz eta bereziki administrazio-prozeduren baitako entzunaldi-izapideari dagokion hori, kasu honetara ere zabaldu daitekeela uste dugu. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 100.2) artikulua betebeharrak ezartzen dio administrazioari: "bitarteko bat baino gehiago onargarri denean, norbanakoaren askatasuna gutxien murrizten duena aukeratuko da". Printzipio horiek, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 3.b) artikuluan jasotzen den fedea onaren printzipioarekin batera, gomendagarri egiten dute administrazioa saiatzea —baliabideak eskura dituelarik— herritarrei ahalik eta kalterik gutxien eragiten. Berritoki esan beharra daukagu administrazio arau-haustea lehendik dakarrela berekin dagokion zigorra, arau-haustea egin duen herritarra tasa gehigarriekin zergapetzeko premiarik gabe, eta ahaztu gabe ibilgailua garraiatu eta biltegian edukitzeak harentzat dituen arriskuak.

Arintasun horrek ez lieke mesede egingo gaizki aparkatzen duten gidariei bakarrik, baizik eta baita administrazioari ere; izan ere, hartara zirkulazioa eta debekatutako aparkaldiak modu efikazagoan arautzerik izango bailuke.

Horrenbestez, Gasteizko Udaleko Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 19.b) artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta udal administrazioaren jarduketa hobetze aldera, GOMENDIO hau egiten dugu:

Gasteizko Udalak azter dezala udal garabiak erretiratzekotan dauden ibilgailuen gidari edo arduradunei aldez aurretik abisu emateko sistema orokor bat ezartzeko aukera, garabiak egin aurretik ibilgailua berek erretiratzeko aukera emateko hartara.

Uste dugu Legeak trafikoaren alorreko jakinarazpen formalak egiteko aurreikusten dituen sistemetatik —trafiko gaietarako helbide elektronikoa...— bereiz joan beharko lukeela, ibilgailuen jabeak beren

borondatez atxiki beharko litzaizkiokela, eta eragin mugatuak izan beharko lituzkeela (garbi zerbitzua, arrisku egoerak, interes orokorreko informazioa...).

-OFIZIOZKO GOMENDIOA. EZ ONARTUA-.

[Ofiziozko gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

B) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 2099/14 ISUNA ZEBRA-BIDEA EZ ERRESPETATZEAGATIK.

Gure bulegoetara herritar bat etorri zen, *“oinezkoek edo txirrindulariek igarotzeko duten lehentasuna ez errespetatzeagatik, eta haiei arriskua eragiteagatik”* ezarri zioten trafiko-isunaren inguruan bere desadostasuna adierazteko. Prozedura abiarazi izanaren inguruan alegazioak aurkeztu arren, eta zehapen-ebazpenaren aurrean berraztertze-errekurtsoa aurkeztu arren, lege-hauste larriagatik isun bat ezartzea ebatzi zuten, 200 euroko zenbatekoarekin eta 4 puntu kenduz.

Bai erreklamaziogileak eta bai polizia salaketaileak ere berrespen-txostenean egindako gertaeren kontakizunaren arabera, leporatzen zaion eta erreklamaziogileak ukatzen duen gertaera hori baino lehen, Rosalía de Castro kaletik barrena iritsi zen gidaria Olibondoaren biribilgunera (nahiz berrespen-txostenean esaten den Gaztelako Atetik joan zela), eta une batez biribilgunean bertan gerarazi zuen autoa, izapide azkar bat egiteko asmoz; udaltzaingoaren patruila bat bertan zegoenez, horretarako baimena eskatu zuen, baina poliziek hori ukatzen ziotela ikusirik, berriro abiada hartu zuen eta, orduantxe, salaketa-buletinaren arabera, ez zuen errespetatu Fontetxako Gazteluaren kalearen hasieran dagoen oinezkoentzako igarobidea. Erreklamaziogileak argi eta garbi ukatzen du oinezkoentzako igarobidea zeharkatu zuenean pertsona multzo bat zain zegoenik.

Erreklamazio hori dela eta, zehapen-dosierraren kopia bat eskatu nahi diogu Diru-bilketa Zerbitzuari, eta halaber, herritarrak adierazi zigunez ez zuela salaketa horren berri izan harik eta dossier hori abiarazi zela jakinarazi zioten arte, Herritarren Segurtasun Sailari informazioa eskatzen diogu, une hartan bertan ez jakinaraztea eragin zuten arrazoiak zein izan ziren argitzeari begira.

Dossier hori ikusirik, zehapen-dosierraren izapideak egoki egin ziren, nahiz eta uste dugun akats bat gertatu dela jatorrian, hots, salaketa hori unean bertan ez jakinarazi izana, salaketa lege-haustea egiten den unean bertan ez jakinarazteak berebiziko garrantzia duelako, berez, kasu gehien-gehienetan, ustezko lege-hausleak probak jasotzeko aukerarik ez izatea eragingo duelako, are gehiago poliziaren lekukotza ustezko egiazkotasunaren jabe denean. Horregatik, garrantzitsua da egoki justifikatzea zergatik ez den salaketa hori unean bertan jakinarazi.

KASUAREN ANALISIA

Bai salaketa-buletinean eta bai ondorengo ebazpenetan ere adierazten da jakinarazpen hori ez egiteko arrazoa “polizia-agentea zutik egotea” izan zela. Trafikoaren Legearen 76. artikuluan –Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna¹– ezarritako kasuetan bakarrik ezartzen da poliziek unean bertan jakinarazi beharrik gabe jarri ahal izango dituztela zehapenak. Kasu honetan, alegatutako arrazoa, hots, “polizia zutik egotea”, ez da behar bezain zehatza kasu horietakoren batean dagoenik esateko eta, ez salaketan eta ez prozedurari hasiera ematen dion erabakian ere, ezta polizia salatzailearen berrespen-txostenean ere ez dira zehazten jakinarazpen hori ez egin izanaren inguruko xehetasun zehatzak. Unean bertan jakinarazi ez izanaren arrazoa azaltzeko zehapen-dosierrean emandako justifikazioa ez da aski, zutik egoteak ez duelako eragozten poliziak zeuden tokitik hurbil auto bat eduki ahal izatea, herritarraren atzetik atera eta gelditu zedila agintzeko, zehapen-dosier horri hasiera eman zitzaiola jakinaraztearren.

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak ezarri duenez, arau orokor gisa, polizia-agenteak behartuta daude unean bertan Agintaritza Agenteek egindako salaketak jakinaraztera, administratuen defentsarako bermeak ziurtatzearren. Egoera jakin batzuk badaude unean bertan ez jakinarazteko aukera ematen dutenak, baina kasu horiek oso justifikatuta daudenean bakarrik gertatzen dira. Gainera, Justizia Auzitegi Gorenak xehetasun batzuk finkatu ditu arrazoiren bat behar hainbat justifikatuta noiz dagoen erabakitzeko: baztertu egin behar dira adierazpen orokorrak, salaketan bertan agertu behar dute horretarako arrazoiak eta ez da baliagarri izango salaketa egin ondoren arrazoi horiek agerraraztea eta zehaztea, eta are gutxiago, jurisdikzio-fasean.

Jurisprudenzia oinarritzat hartuta, “polizia zutik zegoela” argudiatuz polizia-agenteek emandako arrazoa ez da berez arrazoi zehatz eta berezi bat, eta kasu zehatz horretan horrek ez dio polizia salatzaileari eragotzi salatutako ekintza hori unean bertan jakinaraztea, eta, ezta ere, salatuari salaketa jakinaraztearren hark gidatzen zuen ibilgailua gerarazteko ezintasunaren arrazoi nahikoa, aski eta sinesgarria.

¹ “ 1. Salaketa horiek ekintza gertatzen den unean bertan jakinaraziko zaizkio salatuari.

2. Nolanahi ere, jakinarazpena geroago egin ahal izango da, ondorengo xehetasunen bat gertatzen denean:

a. Salaketa egiten den unean, ibilgailua gerarazteak zirkulazioarentzat arriskuren bat eragin dezakeenean. Kasu honetan, salaketa jakinaraztea eragozten duten arrazoi zehatzak adierazi behar dira Agenteak.
 b. Salaketa hori ibilgailua aparkatuta dagoela egiten denean, baldin eta gidaria bertan ez badago.
 c. Zehapena ezarriko duen agintaritzak ibilgailuaren identifikaziorako irudiak jasotzen eta erreproduzitzen dituzten baliabideen bitartez jakin duenean gertaera horien berri.
 d. Agente salatzailea trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko lanak egiten ari denean eta ibilgailuaren jazarpenari ekiteko bitartekorik ez duenean.”

Ez da nahikoa egiaztatuta geratzen, halaber, polizia zutik egon arren, bere inguruan patruila-autorik bazuen ala ez. Herritarren Segurtasunerako Sailari egindako informazio-eskaeran berariaz galdetu zitzaion “ea polizia-agenteak oinez ala autoz ari ziren patruilatzen, eta autoz patruilatzen ari baldin baziren, auto hori non zegoen aparkatuta”. Bidalitako txosten horretan ez zaio galdera honi erantzuten. Aitzitik, gidariak, kexa hori aurkeztu zuenean, adierazi zuen udaltzaingoaren ibilgailu bat biribilgunearen barrualdean geldituta zegoela.

Une horretan bertan ez jakinarazteak babesik gabeko egoera nabarmenean kokatu du erreklamaziogilea. Horri gehitu behar zaio lege-hauste hori larritzat sailkatu dagoela eta puntu-galera bat dakarrela berarekin, eta beraz, funtsezkoa da usteko lege-hausle horrek egindako edozein salaketatik bere burua defendatzeko baliabide guztiak edukitzea.

Adierazitako guztiarekin bat etorriz, uste dugu polizia-agentearen salaketak baliogabetasunaren akatsa duela, gertaeren ondoren jakinarazi delako, horretarako behar bezala justifikatutako arrazoirik egon gabe.

Aurreko horregatik guztiagatik, eta Gasteizko Udaleko Herritarraren Defendatzailearen Araudiko 19.b) artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, Udal Administrazioaren zerbitzuetan hobekuntza bat lortzeari begira, ondorengo GOMENDIOA egin nahi dugu

1.- XXXX zk. polizia-agenteak 2804179 buletin-zenbakiaz egindako salaketa baliogabetzat jo dadila, ez zaiolako jakinarazi salaketa hori ustezko lege-hausleari, horretarako behar bezala justifikatutako arrazoirik izan dela egiaztatu gabe.

2.- Aurreko adierazpenaren ondorioz, salaketa horretan oinarrituta ezarritako zehapen-ebazpena indargabetu dadila, eta bidezkoak diren izapideak egin daitezela erreklamaziogileari kendutako puntuak berriro itzuli ahal diezazkioten.

3.- Etorkizunean, trafikoko lege-hausteengatik salaketa-buletinak unean bertan jakinarazterik ez dagoenean, salaketa-buletinean bertan idatz daitezela kasu zehatz horretan polizia-agente salatzaileek hori zuzenean jakinaraztea eragotzi duten arrazoi zehatz eta bereziak, eta arrazoi horiek nahikoak, aski eta sinesgarriak izan behar dute, adierazpen orokor lauso batzuetara mugatu gabe.

-GOMENDIO ONARTUA.-

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

C) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2136/15 MINUSBALLOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU-TXARTELA.

Herritar batek erreklamutzen zuen bere senarrak mugikortasun murriztuaren aparkaleku-txartela zuela, baina ezin zezakeela gidatu, eta horrexegatik bere semeak eraman ohi zuela autoz edo, bestela, taxi-zerbitzua erabiltzen zuela. Oinezkoentzako kale batean bizi direnez gero, bere senarra garraiatzen duten gidariei zehapenak ezar diezazkiekete oinezkoentzako kale batetik autoz joateagatik edo bertan aparkatzeagatik (esate baterako, bebarruraino iristeko eta itzultzeko egiten duen bidean). Horregatik, argi eta garbi jakin nahi zuen zertarako baimena ematen zitzaien eta nola erabili zezaketen mugikortasun murrizteko pertsonentzako aparkaleku-txartela, bere senarra beharrezkoa zen tokietara eramateko oinezkoentzako eremuan sartzeagatik isunik jarri ez diezaieten.

Erreklamazio horren ondorioz, informazioa eskatu genion Trafiko Zerbitzuari. Zerbitzu Buruak egindako txostenean, alde batetik, aparkaleku-txartel baten jabe den pertsonak gidatutako ibilgailuen eskubideak zehaztuta zetozen, baita hura garraiatzen dutenena edo ibilgailuaren barrualdean txartel hori ongi ikusten dela daramatenena ere, eta beste alde batetik, ziurtatzen zen udal araudiak oinezkoentzako eremuetan zirkulatzeko eta aparkatzeko mugetatik salbu uzten zituela mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak, eta iragartzen zuen prozedura bat egokitu zutela pertsona minusbaliatuentzako aparkaleku-txartelaren titular izan eta oinezkoentzako eremuetan bizi direnei baimena emateko beste pertsona gidari batzuek artatu ahal izan ditzaten, oinezkoentzako eremuan duten etxebizitzaraino iritsiz haiek jasotzeko edo uzteko, eta edozein udaltzainen aurrean errazago akreditatu ahal izan dadin.

Horrenbestez, herritarrari jakinarazi diogu zein izapide bete behar zituen txartel hori erdiesteko eta era horretan egindako erreklamazioari erantzun geniola erabaki genuen.

ERREG. ZK.: 2215/15 ARRAZOIBIDEAK UDALTZAINGOAREN ATESTATUARI, HARRAPATZE BATI BURUZKOA HORI.

Duela hilabete batzuk harrapatu zuten pertsona batek Udaltzaingoak egindako atestatuarekiko desadostasuna adierazi du; bereziki, istripuaren arrazoen gainean agenteek egindako egitateen kontakizunari dagokionez. Aseguru konpainiaren bidez aurkeztu zituen atestatuaren aurkako arrazoibideak, baina ez zuen erantzunik jaso. Beraz, aseguru konpainiak aurkeztutako atestatuaren aurkako arrazoibideei erantzuteko eskatu zuen, bai eta azaldutako egoeraren aurrean jarduteko aukerei buruzko orientabidea ere. Eskaera egin genion Herritarren Segurtasun Sailari, polizia-atestatuaren kopia

bidal ziezagun. Egun gutxira jaso genuen kopia, eta, bertan, Udaltzaingoak egindako txosten guztiak ageri ziren, aipatu arrazoibideei erantzuteko txostena barne. Bertan, istripuaren inguruabarrei buruzko hasierako bertsioa berretsi zuten, funtsean, agenteek. Behin dosierra jasota, kexagilearekin elkartu ginen berriro, horren berri emateko eta ezbeharraren inguruabarrei, erreklamatzeko aukerei, ekiteko jarduera posibleei eta abarrei buruzko gure ikuspegi juridikoa helarazteko.

ERREG. ZK.: 2237/15 ETA 2249/15 APARKAMENDUA. SEGURTASUN JURIDIKORIK EZA FRANCISCO TOMAS Y VALIENTE KALEAN (EHUKO KANPUSA).

Eduki bera duten bi kexa dira, Francisco Tomas y Valiente kalean aparkatzeagatik jasotako bi salaketari buruzkoak. Arau-hauste larritzat jo ziren. Aipatu kalearen erdigunea aparkatzeko erabili ohi da, eta ez zuten inoiz salaketarik jaso. Iruditzen zaie Udaltzaingoak ez duela egoera horien aurrean jarduteko irizpiderik, eta, ondorioz, segurtasun juridikorik eza eragiten dela. Azaldu dutenez, seinaleztapen horizontala edo bertikala jarrita konpon liteke arazoa, aparkatzeko eremua mugatuz. Horregatik guztiarengatik, egoera horrek eragiten duen segurtasun juridikorik eza saihesteko beharrezko neurriak har daitezela eskatu zuten.

Beraz, informazioa eskatu genion Herritarren Segurtasun Sailari, Tomas y Valiente kaleko tartean bidegabe aparkatutako ibilgailuak salatu ala ez salatu baloratzeko jarraitzen diren irizpideei buruz, eta erdiguneko eremu horretan aparkatzeko lekuak jartzea azter ote zitekeen adieraz ziezagun. Erantzuna ezezkoa izatekotan, aparkatu ezin daitekeen eremua zehatz-mehatz mugatzeko neurririk har zitekeen planteatu genuen, seinaleztapen bertikala zein horizontala jarritz, adibidez, nahasmendua amai dadin.

Informazio-eskaerari erantzunez, Tomas y Valiente kaleko tartean bidegabe aparkatutako ibilgailuak salatu ala ez salatu baloratzeko xedez orain arte jarraitu den irizpidea honakoa dela jakinarazi digute: norbaitek eskatuta joatea hara, beste gidari batek polizia bertaratzea behar badu, bai bertatik igaro ezin delako, bai bere aparkalekutik atera ezin delako.

Egoera argitzeko neurriak hartzeko iradokizunari dagokionez, EHUko Arabako Kanpuseko errektoreordearen idazkia ere jaso dutela adierazi digute. Idazki horren bidez, zirkulazio arazorik gabe aparkatzeko espazioa bermatzeko beharrezko neurriak har ditzala eskatu dio udalari. Horren ondorioz, aparkatzeko lekua seinaleztatuko da, pintura bidez, eta gainerako espazioa norabide bikoitzeko zirkulazio errei bihurtuko da, eta, beraz, ezingo da erdigunean aparkatu.

Hortaz, egindako kudeaketekin eta emandako informazioarekin kexagileen eskaerari erantzun

D) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2043/14 ZERGA-POLIGONOA ATXIKITZEA ETA ZERBITZUEN KEXA.

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen eta bertan adierazten zuen herentzia gisa familiaren etxebizitzaren ehuneko bat jaso zuela, aita hil ondoren. HILBGZaren likidazioaren zerga 1.827,26 eurokoa zen. Zerga-oinarriari zegokionez, azalpenak eskatu zizkion Katastro Zerbitzuari, katastro-balioa nola kalkulatu zen jakiteko. Etxebizitza hori zerga-poligono batean kokatua zegoen, eta bertako lurzorua balioa hiriko handienetako bat zen, eta haren iritziz, xehetasun hori ez zetorren bat inguru horretako erabiltzaileei eskaintzen zaizkien udal zerbitzuekin, ez baitago aparkaleku arauturik bertako egoiliarrentzat esate baterako, Zabalguneak edo Erdialdeak dituzten zerbitzuekin alderatuta. Horrexegatik eskatzen zuen lurzorua balioa eta zerga-poligono baten barruan duen atxikipena egokitu daitezela kaleak dituen zerbitzuekin, eta kontuan har dadila bertako egoiliarrentzat aparkaleku-plazarik ez egotea.

Herritararekin izandako lehen bileran informazioa eskaini genion katastro-balioak kalkulatzeko orduan oinarritzat zein zerga-poligono erabiltzen zen azaltzeko, eta ondorioztatu genuen zaila dela horiek zehazteko orduan erabiltzen den irizpide teknikoari aurka egitea.

Inguru horretan aparkatzeko dauden arazoengatik inguruko erreklamazioari dagokionez, Trafiko Zerbitzuari informazioa eskatu genion auzo horretan araututako aparkatze-eremua zabaltzeko aukerari buruz, eta ezustean, hurrengo egunean, hedabideetan albiste bat argitaratu zuten eta bertan esaten zen Judimendi auzoan egoiliarrentzako TAOk 181 plaza gehiago izango zituela.

Gero, arazoengatik ere gertatu zen, salaketa batzuk izan zirelako txartelik gabe aparkatzeagatik, aipatutako hedapen hori indarrean sartu aurretik. Gertaera horren berri izan orduko, harremanetan jarri ginen Diru-bilketa Zerbitzuarekin, hasitako zehapen-prozedurak zuzenbide osoz baliogabeak zirela jakinarazteko.

Zerbitzurik ez egotearen inguruko kexa horri dagokionez, berriz, Ingurumen Sailaren bitartez bide publikoaren eta aireko hariteria elektrikoaren egoerari buruzko informazioa jaso genuen. Iberdrolarekin harremanetan jartzeko modua erraztu ziguten, eta bertatik jakinarazi ziguten herritar horren bebarruko instalazioetan kableak zuen antolamenduak ezin zorrotzago betetzen zuela araudia eta segurua zela. Horrez gain, adierazi ziguten fatxadetan bazeudela beste hariteria batzuk altuera gutxikoak, baina telefoniakoak ziren; kontua da, inguru horretan ez dagoela hoditeriarik espaloien azpian, baina halere, ez du inolako arriskurik herritarrentzat. Gasteizko hirigintza-araudiaren arabera, hodi horiek estalita egon behar dute, baldin eta obra berria bada, eta beraz, berriro azpimarratu zuten herritarren kaleko

instalazioek araudia betetzen dutela eta seguruak direla. Azkenik, esan ziguten hodi horiek lurperatu egin daitezkeela, egoki diren lubakiak eta kanalizazioak eginez gero, baina hori Udalak erabakitzen duela.

Konpainiako teknikariak une oro bere prestutasuna erakutsi zuen erreklamaziogileak, konpainiarekin harremanetan jarri nahi izango balu, herritarrak nahi zuen guztiaren inguruko azalpenak emateko.

Herritarrari eskainitako informazioarekin, amaitutzat jo genuen Sindikoaren jarduna.

ERREG. ZK.: 2144/15 SALAKETA, GIDABAIMENIK GABE GIDATZEAGATIK. ALKOHOLEMIA-PROBA.

Antso Jakitunaren kaleko jatetxe baten terrazan bazkaltzen ari zela dio, eta Udaltzaingoaren patruila batek bere izenez deitu ziola, eta furgonetara laguntzeko eskatu ziola. Haiak zioten motozikleta gidatzen ikusia zutela, nahiz eta gidabaimena kendua zioten, aldi baterako. Berak dio hilabete horretan komunitatearentzako zerbitzuak egiten ari zela, eta, leku batetik bestera joateko, bere jabetzako motorra baliatzen zuela, nahiz eta lagun batek gidatzen zuen, leku berean ari baitzen hura ere komunitatearentzako zerbitzuak ematen. Poliziaren argiketa ikusirik, udaltzainek diote pertsona horrek onartu zuela, berarengana jo zuten lekuan, motozikleta gidatua zuela. Kotsultaren unean, epaiketa penalaren zain zegoen kontua, gidabaimen edo lizentziarik gabe gidatzeagatik. Gaiaren inguruko gure ikuspuntua eman genion, baina abstenitu egin ginen parte hartzetik, epaitegi penalen esku zegoenez kontua.

ERREG. ZK.: 2147/15 ISUNA, GAIZKI APARKATZEAGATIK.

Herritar batek jakinarazi zigun udal garabiak autoa kendu ziola bide publikotik, bezperan etxe azpian aparkatuta utzia zuelarik, ezen, itxura batean, bide publikoa inbaditua baitzuen, esku-frenoa jarri gabe zeukanez, nahiz eta berak ukatu egiten duen hori. Bere ondoeza adierazi zigun, ez baitzioten abisatu autoa bertatik kentzekotan zirela, bera etxean egonik, eta horri dagokion tasa ordaindu behar izan baitu.

Udal biltegira autoa hartzera joan zenean, udaltzainaren salaketa-orriaren kopia eman zioten, baina ez zekien horrek esan nahi zuen jakinarazpena gauzaturik zela.

Salaketari dagokionez, kopia ematea ez da jakinarazpenaren pareko, eta, arrazoizko denbora bat igaro zelarik, dossier zigortzailea abiarazi zenik ez ziotenez jakinarazi, isunak izapidetzeaz arduratzen den Diru-bilketa Zerbitzuari kontsulta egin genion, inongo dosierrik bazuten datu horiekin, eta ezetz erantzun ziguten.

Garabiak autoa bide publikotik kentzeari dagokionez, udal garabiaren zerbitzuaren egungo jokabideak eragindako hainbat herritarren lekukotasunak zirela eta ofiziozko gomendioa egina genuenez ordurako, bidali egin genion, jakinaren gainean egon zedin.

Emandako informazioarekin herritarrari behar zuen orientabidea emana geniola uste izan genuenez, dosierra artxibatzea erabaki genuen.

ERREG. ZK.: 2156/15 ADIN TXIKIKOEN ARTEKO GATAZKA.

Herritar bat kexatu egin da adin txikiko bere semea bebarru bereko beste haur baten erasoak, irainak eta laidoak jasaten ari delako duela bi urtetik hona.

Adierazi du zenbait erakundeetara jo duela, arazo hori konpontzen ahalegintzeko: ikastetxera, eskola inguruko esku-hartzeetara,...

Adierazi du, hala eta guztiz ere, arazo hori larriagotu egin dela, eta mehatxuak ere jasan dituela. Haur horren amaren eta beraren artean izandako gertakari eta liskar batzuk aipatzen ditu, eta gaineratzen du erkidegoari mezuak bidali dizkiola horrelako jokabideak onartu ez ditzan. Eraso guztiak grabatzeko prest dagoela ere gehitu du.

Aurreko guztiagatik, azaldutako arazoaren aurrean jokatzeko aukeren inguruan orientabide bat eskatzen zuen.

Kexa jaso ondoren, erreklamaziogileari gomendatu genion ez ziezazkiola mezu gehiago bidali erkidegoari, gogorarazi genion adin txikikoei egindako grabazioak gatazkatsuak izan daitezkeela tartean adin txikikoak daudelako eta gomendatu genion Bizilagun izeneko erakundera jo zezala, bizilagunen artean gatazka bat dagoenean bitartekaritza-lanak egiten esperientzia duen zerbitzu finkatu bat delako.

ERREG. ZK.: 2222/15 ISUNA. APARKAMENDUA.

Herritar batek kexa jarri du bulegoan, Jose Atxotegi kalean "geratzea debekatuta zegoela adieraziz seinaleztatutako gordetako eremuan aparkatzeagatik" ezarritako isuna dela-eta, berretsi egin baitu aparkatu zuenean ez zegoela aparkatzea debekatzen zuen seinalerik, nahiz eta inguruan obrak egiten ari zirela ikusi zuen, eta langile batek autobus-erreia zela esan zion, baina debeku hori adierazten zuen seinalerik ikusi ez zuenez, autoa ez mugitzea erabaki zuela. Autoa hartzera joan zenean, garabiak eramana zuen, eta aparkatzeko unean ez zeuden elementuak zeudela ikusi zuen. Beraz, arrazoibideak

aurkeztu zituen; hala ere, ukatu egin zizkiotenez, berraztertzeko errekurtsua jarri zuen. Ebazteko orduan atzeratzen ari zirenez, Arartekora jo zuen. Hark, ordea, bere eskaera onar ezin zitekeela erantzun zion. Nolanahi ere, bere dosierra berrikusteko aukerarik zegoen jakin nahi zuen.

Bere erreklamazioa jaso ondoren, dosierraren kopia eskatu genion Ogasun Sailari. Bertan, egindako izapideak eta Arartekoaren ebazpena ageri dira.

Hasierako elkarrizketan jada, Arartekoaren ondorioekin bat egiten genuela adierazi genion: ez zegoen froga eztabaidaekin udaltzainaren baieztapenei aurre egiteko. Agente horren arabera, salaketa jarri zen ordu eta egunean seinaleztapena zuzena zen. Era berean, kasuarekin lotutako froga berriak eskuratzea ezinezkoa zela adierazi genion, denbora asko igaro baitzen orduak.

Dena dela, obretako langileek bide publikoan seinaleak jarri ahal izatearekin zituen zalantzak helarazi zizkigunez, Gasteizko Udalean horren inguruan indarrean dagoen araudiaren berri emango geniola hitzeman genion. Bada, honako ordenantzak gidatzen du aipatu gaia: "Obrak eta lanak egite aldera, bide publikoa okupatzeko seinaleztapena eta balizajea erregulatu dituen ordenantza". Horren bidez, xehetasunez arautu da bide publikoaren okupazio oro seinaleztatzeke betebeharra, okupazio hori obra edo lan baten ondoriozkoa bada, eta aipatu okupazioa eskatu duenak du horretarako ardura.

Kasu honetan, ez daukagu datu frogagarriak ordenantza bete ez zutela ondorioztatu ahal izateko; hala ere, eman dugun informazioarekin, azaldutako zalantzetako batzuk argitu izana espero dugu.

ERREG. ZK.: 2251/15 ISUNAK. APARKAMENDUA.

Kexa bat iritsi zaigu bulegora, Udaltzaingoak herritar bati ezarritako zigorra dela-eta. Kexagilea emaztearekin batera joan zen Arabako Unibertsitate Ospitaleko kontsultara. Emaztea gurgildun aulkian dago, eta mugikortasun murriztua dutenentzat gordetako lekua okupatuta zegoenez, betiere aparkaleku mota horietan aparkatzea ahalbidetzen dion aparkatzeko txartela erakutsiz, bere ustez eragozten ez zuen leku batean aparkatu zuen, piboteak egoteaz gain, "hildako" errepidea delako, hortik ezin baitzaitezke inora joan. Herritarraren iritziz, aparkaleku gehiago jarri beharko liriateke eremu horretan, jendetza biltzen baita ospitalean.

Sindikoaren bulegoak idazkia bidali zion Udaleko Trafiko Zerbitzuari. Horren bidez, informazioa eskatu genion, azaldutako arazoa halaxe ote zen eta egoera arintzeko bestelako aukerarik aztertzen ari ote zen adieraz ziezagun.

Informazio-eskaerari erantzunez, txostena bidali zigun Trafiko Zerbitzuak. Bertan, gainazalean aparkalekua dagoela baieztatu zuen, "aldirietako aparkaleku" kalifikatutako aparkalekuren batekin, Ibaibarriaga Koronelaren kalean dagoena bezalakoa. Udalari dagokionez, Mugikortasun Jasangarrirako eta Espazio Publikorako Planean bestelako aukerak ondo zehaztuta daudela argudiatu du, eta, funtsean, garraio publikoan eta desplazamendu aktiborako bitartekoetan (oinezkoentzako eta bizikletentzako bitartekoetan) oinarritu dira. Esku artean dugun hornikuntza zehatzarentzat, garraio publikoa aukera ona da. Azkenik, Osakidetzak osasun ekipamendu horiei lotutako lurrazpiko aparkalekuak sortzeko asmoa duela jakin dutela adierazi dute.

Hain zuzen ere, aipatu txostenean baieztatu dutenez, Arabako Unibertsitate Ospitale inguruan aparkaleku kopurua areagotzeko asmoa dauka Osakidetzak, "18. hirigintza ordenamendurako egitasmo bereziaren lehen aldaketa, Gasteizko Txagorritxu Ospitalea" deituriko dokumentuan agerian jarri den bezala (Gasteizko Udalak 2011ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran onartu zuen aldaketa hori, eta ekainaren 13ko ALHAOn argitaratu zuen). Era berean, obra horiek burutzeko epeari dagokionez, tokiko prentsan argitaratu zen (prentsako albisteak erantsi ditugu), 2015. urtea amaitu aurretik, Txagorritxu ospitalea handitzeko obrak lizitatzea eta esleitzea aurreikusi zela, eta, obren lehenengo fasean, sotoko hiru solairutako parkinaren lehenengo fasea eraikitzea pentsatu zela.

Azken batean, aztertutako informaziotik, herritarrari eman genion horrexetatik, alegia, bi ondorio atera daitezke: batetik, administrazioak, eta, bereziki, Osasun Administrazioak, egiaztatu egin duela Txagorritxu ospitale inguruko aparkalekuak urriak direla, leku kopuruak ez baitu estaltzen beharrezko gutxiengo eskaria. Eta, bestetik, datozen urteotan aparkaleku urritasuna konponduko dela.

ERREG. ZK.: 2278/15 APARKAMENDU ISUNA. ARAU-HAUSTEAREN KALIFIKAZIOA

Gidari batek gure bulegora jo du, arau-hauste larri batengatik zigortu ostean. "Erdibitzaillean, bereizleetan, irlatxoetan edo trafikoa bideratzeko beste elementu batzuetan aparkatzeagatik" ezarri zioten zigorra; bere ustez, ordea, zuzen aparkatuta ez zegoela aitortu badu ere, autoa ez zuen irlatxo batean utzi, "oinezkoentzako babesgunetzat" jo litekeen leku batean baizik, eta, beraz, arau-haustea arintzat hartu beharko litzateke.

Gure ustez, eta ikuspuntu juridikotik begiratuta, zigorra zuzena izateko argudioak azaldu genizkion. Hala ere, berraztertze errekurtsoa aurkezteko epean dagoenez, arrazoibideen idazkiko argudioak berretsi ditzake, zigortzeko ebazpena berrikus dezaten.

E) IDAZKI LAGUNDUA**ERREG. ZK.: 2218/15 UDALTZAINGOAREN TRATU EZEGOKIA.**

Herritar batek jakinarazi zigunez, 2015eko otsailean egoera batean sartuta ikusi zuen bere burua, bere ustean bidegabea, Udaltzaingoaren agente batzuekin. Inauteriak ziren, eta lagun bat lagundu zuen ibilgailuaren bila. Debekatuta zegoen ibilgailua aparkatuta zegoen kalean aparkatzea, konpartsak igaro zitezten, eta kale horretan isunak jartzen ari ziren bi agenterekin egin zuten topo. Gertatzen ari zenaz galdetzean, identifikatzeko eskatu zioten, eta, jarduera horrekiko desadostasuna adieraztean, harrokeriaz eta mespretxuz erantzun zuten agenteek. Are gehiago, alkoholemia kontrola egin nahi izan zieten han zeudenetako batzuei, gidatzen ere ari ez zirela. Benetan agenteak ez zirela pentsarazi zion horrek, hau da, mozorrotuta egon zitezkeela, ez baitzuen jokaera hori ulertzen. Azkenik, ordena publikoaren aurkako falta egiteagatik salatu zituzten, eta zigor-epaia jaso dute. Epaia errekurritzeko moduaren inguruko aholkua eman genien. Azkenean, Arabako Probintzia Auzitegiak euren apelazio-errekurtsioa balioetsi zuen, eta atzeraeraginezko efektuekin aplikatu zuen 1/2015 Lege Organikoa, jokaera mota horiek zigorgabetu baitzituen, eta falta zena administrazio-urraketa huts bilakatu zen.

F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)**ERREG. ZK.: 2109/14 ARAZOAK ETXEBIZITZA BATEAN PROSTITUZIOAGATIK.**

10 etxebizitzek osatutako antzinako higiezin bateko bizilagun bat etorri zen gure bulegora, bi hilabete lehenagotik bebarruan gizonen joan-etorria gero eta handiagoa zela ohartu zirelako, antza denez etxebizitza batean prostituzioan aritzen zirelako. Eraikinaren ezaugarriak direla eta, nahasmenak gertatu izan dira atezain automatikoan ageri den etxebizitzaren numerazioagatik eta etxebizitzek berez dutenagatik, eta hala, askotan gertatu izan da aipagai dugun etxebizitza horren bila zebiltzan gizonek bere etxeko atean deitzea eta, bere alaba ere bertan zegoela, etxebizitza barrura sartzea.

Gai hori konpontzen saiatu zen zuzenean etxebizitzaren jabearekin hitz eginez, Ertzaintzarengana eta Udaltzainarengana ere jo zuen, erkidegoa detektibe bat kontratatzea aztertzen ari zen, kamerak instalatzea...

Aurreko guztiagatik, orientabide batzuk eskatzen zituen salatutako arazo horren aurrean nola joka zitekeen jakiteko.

Kexa hori jaso ondoren, Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri ginen etxebizitza horretako okupatzaileek ustez eduki behar zuten delineatzaile-baimenari buruz galdera batzuk egiteko. Erantzun zuten ez zela inolako jarduera legeztaturik ageri helbide horretan, eta delineatzaileen bulego bat baldin bazen, jarduera hori legeztatzeko eskumena Eraikinen Zerbitzuarena zela, erantzukizuneko adierazpenaren bitartez. Eraikinen Zerbitzuan ere ez zekiten ezertxo ere gai horren inguruan, baina gainera, azaldu ziguten oso zaila izaten zela etxebizitza partikular batean ikuskaritza bat egitea, horretarako beharrezkoa zelako epailearen agindua.

Herritarren Segurtasunaren Saitetik adierazi ziguten ez zegoela esku-hartzeari buruzko fitxarik, kasu hori irekita zegoela, eta erreklamazioegileekin etengabe harremanetan zeudela.

Herritar horri urrats horien guztien berri ematen joan ginen, eta adierazi genion arazo hori konpontzeko modu bakarra, delitu-zantzurik egonez gero, kasu honetan zirudien moduan, bide judiziala zela.

Handik pixka batera, herritarrak jakinarazi zigun aurreko astean eragozpen handiak jasan zituztela zaratengatik, baina aste honetan etxebizitza horretatik alde eginak zirela. Horregatik, dosierra ixtea erabaki genuen, erreklamazioegileak hala eskatuta.

03.7 Hirigintza Saila

A) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 2078/14 BERE DENDAN ERAGINDAKO KALTEAK, HORMA BAT ERAIKITZEAGATIK.

Jesusen Zerbitzarien kaleko lokal bateko jabeak jakinarazi digu, Ahateen Iturri plazatzoko irisgarritasun obrak direla-eta, bere lokal ondoko eskaileraren alboa aldatu dutela, eta lokalari ikuspena kentzen dion horma bat geratu dela hor. Gainera, txiza egiteko erabiltzen du horma hori jende batek, eta, beraz, osasungaitzasun gune bilakatu da, bi pertsonari lapurreta egin diete... Bere ustez, aurretik zuena baino egoera okerragoan geratu da leku hori.

Erdi Aroko guneko ipar-mendebaldeko eremuan irisgarritasuna hobetzeko egitasmoaren barruan, hainbat obra egin ziren; hala nola, Apaizgaitegiko kantoiko arrapala mekanikoak, Fray Zacarias Martinez kalerako igogailua, eta Ahateen Iturri plazatxo berrituta amaitu zen. Bertan, plazarako sarbidean dagoen eskaileraren albo berritu zen, eta herritarrek eraldaketa horrekiko desadostasuna agertu dute.

Lehen zuen egoerari erreparatuta, aldaketa agerikoa da; izan ere, lehen, murruren kota diagonalki jaisten zen eskaileren maldarekin batera, eta, obraren ostean, murrak bere kota horizontalari eusten dio, eta, beraz, hazitako murrak eskailerak ezkututzen ditu. Hirigintza Sailak guk eskatuta emandako erantzunean, honakoa argudiatu da: "bisualki handitu egin da plazatxoaren espazioa, Jesusen Zerbitzarien kalea plazatik bereizten duen harrizko murruren lerroa azpimarratu nahi izan da, antzinako harresien marraketa jarraitzen baitu, eta eskailerari bide ematen dion erdiko irekierak sartzeko atearen balio sinbolikoa eskuratu du". Segurtasunik eza eta zikinkeria sortzeko aukerari dagokionez, zera adierazi dute: "murrak ez du galarazten Jesusen Zerbitzariak kaletik eskailera ikustea".

Erabaki hori hartzea eragin zuten arkitektura edo estetika irizpideak zalantzan jarri gabe, gure ustez, ikuspena kendu da, Aldabe gizarte etxetik Probintzia plazarantz zirkulatzean, Jesusen Zerbitzarien kaletik ez baitira eskailerak ikusten, eta horrek segurtasun eza sentiaraz dezake. Era berean, badirudi argi dagoela hormaren zati berriak merkataritza-lokalari ikuspena kentzen diola eta gizalegearen aurkako jarrerak piztu ditzakeela.

Egia da interes partikularrek, unean-unean kaltetuta gerta baitaitezke, ez dituztela hirigintza irtenbideak mugatu behar, baina beste kontu bat da hirigintza irtenbideek era berean babestu beharreko interes publikoak urratzea. Puntu horretan, egokia da "hirigintza inklusiboa" gogoraraztea, hau da, hiriak diseinatzeko eta antolatzeako orduan, giza kolektibo guztien beharrak kontuan hartuko dituen hirigintza mota kontuan hartzea.

Proiektuari ekiteko unean herritarren iritzia aztertu bazen ere, guk dakigula ez zen kontuan hartu genero ikuspuntua, ez eta obraren ondorioak ere, segurtasun eza sentitzeari dagokionez.

Hortaz, gure ustez, ez zen interes orokorarentzako irtenbide egokiena hartu, eta, bide batez, ezta kexagilearen interes partikularrerako onena ere. Hala ere, gehiegizkoa izan liteke murrak eraistea eta lehengo egoerara itzularaztea gomendatzea udalari. Hala ere, horrek ez du oztopatzen udalari eskatzea etorkizuneko obretan kontuan har dezala genero ikuspegia, eta, gutxienez, ez ditzala areagotu segurtasun eza sorrarazi dezaketen puntuak.

Horregatik guztiatik, honako **GOMENDIOA** luzatuko dugu:

Udalak, edozein hirigintza obra edo hiriko espazioak berritzeko edozein obra egitean, irisgarritasuna, mugikortasuna edo ingurumenaren babesa bezalako irizpidez gain, kontuan har dezala eta erabakiak hartzeko prozesuan txerta dezala genero eta pertsonen segurtasun ikuspegia, hirigintza inklusiboaren markoaren baitan.

-GOMENDIO ONARTUA.-

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

B) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2035/14 EGITURAZKO ARAZOA ERAIKIN BATEAN.

Errioxa kaleko higiezin bateko estalki azpian kokatutako etxebizitzako egoiliarrek jakinarazi digute eraikinean estalkia aldatzeko obrak egitea aurreikusi dela, eta segurtasunik eza eragiten diela horrek; izan ere, etxeko patioetako batean egin ziren obren harira, ohikoak ez ziren maldak hauteman zituzten, eta, ondorioz, probak egin ziren beren etxean. Horren ostean, ez zen inolako jardunbiderik egin, egiturazko hainbat hutsegite eta hobi ustel atzeman zituztela baieztatu zuten arren. Kexagileen ustez, horrek esan nahi du egonkortasun arazo larriak dituela eraikinak. Gaineratu zutenez, maila ezberdinean geratu ziren etxeko gelak. Horregatik, beren etxebizitzako lurzorua komunitateak zoladura berritu aurretiko altuerara itzultzea eskatzen zuten, horrela eutsi egingo litzaiokeelako jatorriz eraikineko estalkira arte zegoen altuerari.

Eraikuntza Zerbitzuak jakinarazi digu arkitekto batek bere garaian probak egin zituela lurzoruan, eta eraikineko forjaketa egoera onean zegoela ondorioztatu zuela, nahiz eta, antza, komunitatean aurretik egin zen obra batean, jardunbideren bat egin behar izan zen, kalte estetikoak eta erosotasun kalteren bat eraginez, zoladurako maldei zegokienean. Era berean, dosierraren kopia eskatu genuen.

Jabekideen komunitateak erabaki duenez obra egitea, obra horrek batez ere kexagileen etxebizitzari eragin dion arren, estalkia aldatzeko obra baita, udalaren esku-hartzea honetara mugatzen da: obren proiektuak hirigintza araudiarekin bat egiten duela baieztatzea, eta obra onartutako proiektuaren arabera egingo dela ziurtatzea. Bestalde, obraren egikaritzearen gaineko erantzukizuna eraikuntzako agenteena da.

Sindikoaaren bulegoa hainbat aldiz jarri da harremanetan udaleko zerbitzuekin, ematen ari ziren urratsen berri, sortutako zalantzen berri eta horiei emandako erantzunen berri eman ziezaguten. Proiektuaren arkitektoarekin eta obra-zuzendariarekin ere harremanetan jarri gara, eta, horiek adierazi digutenez, eraikinak ez dauka egiturazko arazorik. Modu berean, obraren egikaritzearen prozesuaren berri eman digute. Bestalde, obrak egin bitartean ezohiko ikuskapena egin zezatela eskatu genien udaleko zerbitzu teknikoei, nahiz eta ez izan normalean eskatzen den prozedura.

Azkenean, Eraikuntza Zerbitzuak adierazi zigun lehenengo erabilerarako lizentzia eman ziotela eraikinari, txosten teknikoak eta ikuskapen bisita egin ondoren. Era berean adierazi zigun obra ondo egin zela, eta kexagileen etxebizitzan egikaritzeak berak sortutako kalteak konpondu zirela. Beraz, dosierra itxi genuen.

ERREG. ZK.: 2113/14 GATAZKA LOKAL BATEN KALIFIKAZIOAREKIN.

Aihotz plazan duela urte eta erditik hona lokal baten jabe den herritar batek jakinarazi zigun oraindik bere izenean eskrituratu gabe eduki arren horren gaineko eskubide guztiak zituela. Bertan berrikuntza-lan batzuk egiteari begira, eraispen-baimen egokia eskuratua zuen, eta eskatutako bermeak eta zenbatekoak ordainduak zituen, eta horrez gain, obra-baimena eskatzeko izapideak ere hasiak zituen. Obra horiek egin ondoren, proiektu bat eginarazi zuen lokal hori elkarte gastronomiko gisa egokitzeko, eta aurkeztu aurretik, horren erredakzioaz arduratuko zen arkitektoak bilera eta elkarrizketa ugari izan zituen udal teknikariek. Lehen-lehenik, Udalak jakinarazi zien egurrezko solairua berregin behar zutela, aldameneko lokaletan hormigoizkoa izan arren. Gero esan zieten aurreko arkitektoarekin kasu horren inguruan mintzatu zirela eta hark esan ziela lokal horretan ezin zela ezer egin, erabilera publikoa duen lokal bat delako, aurreko jabeek horren inguruan ezertxo ere ez jakin arren.

Antza, lokal horretan erdi aroko hirigunera iristeko igogailu bat instalatzea proiektatua zuten, baina azkenean proiektu hori bertan behera geratu zen.

Aldi berean, obra-baimena eta eraispen-lanetarako baimena eskatu zuten, eta Foru Aldundiko Ondarearen Zerbitzuarekin ere hitz egin zuten. Udalak proposatu zion PERIaren aldaketa egin zezala, baina erabiltzaileak uste du hori Udalak egin behar duela ofizioz.

Aurreko guztiagatik eskatzen zuen Udalak egin zezala PERIaren aldaketa eta lokal hori berriro ekipamendu pribatukoa izan zedila, edo bestela, desjabetzeko erabakia har dezatela.

Erreklamazio hori dela eta, lokalari buruzko informazioa bildu genuen: Erdi Aroko Hirigunea Eraberritzeko Plan Berezi Integratuaren (PERI) parte zen, udalak bertan igogailu bat eraikitzeke erabiltzea pentsatua zuelako. Hori dela eta, lokal hori Ekipamendu Publikotzat kalifikatu zuten, eta proposatutako kudeaketa-sistema desjabetzearena izan zedila erabaki zuten. Udalak Xehetasun Azterketak idaztea aurreikusi zuen, "Landatxo Hegoaldeko Plan Zuzentzailea" izenez izendatuko zirenak, igogailuak instalatuko ziren eremurako garrantzi berezia zuten alegazioak zehazteko, koordinatzeko eta egokitzeko xedez. 2008an, PERI horren aldaketa batzuk argitaratu ziren, Mateo Moraza kaleko lokal batzuk desjabetu behar izatetik eta Ekipamendu Publikoaren kalifikaziotik salbu utziz, lokal horiek desjabetzekoak izan arren bertan igogailuak eraikitzeke, baina ez zen Aihotz Plazan kokatutako lokalari buruzko aipamenik egiten, ekipamendu publiko gisa kalifikatua eta nahitaezko desjabetze-sistemaren mende jarraitzen zuela.

Ondorioz, Aihotz Plazan kokatutako lokal hori desjabetu ahal izatea aurreikusten zuen PERI hori 8 urtez indarrean egon da eta Udalak ez du inolako jarduerarik egin, ez lokal hori desjabetuz plana gauzatzeko,

bertan igogailua instalatzeari begira, eta ez lokalaren kalifikazio xehakaturia aldatzeko ere, ekipamendu publikoaren erabileratik eta, aldi berean, desjabetzeko etengabeko mehatxu horretatik salbu gera zedin.

Egoera hori kontuan izanik, Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri ginen gai horren inguruan zer jarduera egitea aurreikusten zuten jakinarazi ziezaguten. Erantzun moduan, alde zuzenetik herritarrari igorri zioten txostena bidali ziguten guri, eta bertan esaten zen bertan igogailu bat instalatu zitekeela, Aihotz Plaza eta San Bizente Aldapa komunikatuko litzuzkeena, Plazaren Iparraldeko hormari erantsia, Aihotz Plazan kokatuta dagoen eraikinaren hegoaldean. Alternatiba horrek, gainera, Arabako Foru Aldundiko Ondarearen Zerbitzuaren oniritzia zuen. Gainera, jakinarazi zioten PERI aldatu beharra zegoela, Aihotz Plazako bi zenbakian kokatutako eraikinaren lur-zatia ekipamendu-erabileratik salbuesteko eta etxebizitzetarako/hirugarren sektoreko erabilera berezia izendatzeko, aldameneko lur-zatiek zeukaten bezala.

Horrenbestez, Sindikoaren jarduerak eta Udalaren aldeko erantzuna kontuan izanik, PERI aldatzeko izapideei ekin zieten, kexa jakinarazi zigun herritarraren jabetzako lokal hori PERI horretatik salbu utz zezaten eta lokal hori berriro ekipamendu pribatukoa izan zedin. Era horretan, uste dugu erantzun egoki bat eman zaiola herritarrek aurkeztutako erreklamazio horri, eta beraz, amaitutzat eman dugu Sindikoaren jarduna.

ERREG. ZK.: 2162/15 PLAN PARTZIALAREN PROIEKTUAREN IZAPIDEAK ETETEA.

Erretanan aurkitzen den Gasteizko Udaleko 46 Sektorearen jabeak bat kexatu egin da, errepide baten ondorioz egin behar izan zituzten HAPOaren aldaketa ugariaren ondoren, Plan Partzialaren proiektu bat aurkeztu ziotelako Udalari. Antza denez, udal arkitekto teknikoak horren aldeko txostena egin zuen, eta proiektu hori gobernu-batzordean onesteko izapideak egitea eta Hirigintza Batzordearen alde zuzenetik aurreko diktamenarekin Udal Batzarrari aurkeztea falta zen. Hala eta guztiz ere, denbora-tarte zehurrak igaro bazen ere, oraindik ez zitzaion proiektuaren inguruko izapiderik egin. Hori dela eta, Gasteizko Erretanako 46. sektorearentzat aurkeztutako plan partzialaren proiektuaren izapideak egin zitezela eskatzen zuten.

Kexa jaso ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoa aztertu genuen, eta bertan esaten denaren arabera: *“Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere”*. Eta jurisprudentzia bildu eta araua aztertu ondoren, ondorioztatu dugu Administrazioa behartuta dagoela partikularrak hala eskatuta hasitako prozedura horri erantzun bat ematera. Horregatik, Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri ginen, jakiteko zein diren Plan honen inguruan dituen aurreikuspenak, baita Udaleko Gobernu Batzordeari helarazi ez izanaren arrazoiak ere.

Sailak arrazoi burokratikoak eman zituen, baina azkenean, Udaleko Gobernu Batzordeak “Plan Orokorreko Erretana S-46 Sektorearen hiri-antolamendurako Plan Partzialaren Proiektua onestea eta Plan Partzial horri hasierako onespina ematea” erabaki zuen, eta hasierako onespina horretatik abiatuta, arauan jasotako izapideak bete behar izan zituzten, harik eta Udal Batzarrak dagokion erabakia behin betiko onetsi arte.

ERREG. ZK.: 2216/15 ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA.

Jabekideen komunitate batek bere ezinegona adierazi digu, duela denbora bat udalean Eraikinen Ikuskaritza Teknikoari buruzko txostena aurkeztu bazuen ere, informazio hori ez delako oraindik Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren mendeko ERREG.an, hau da, Euskoregite, jaso.

Txostena udalari aurkeztu zioten lehenengo aldian, ez zen izapidetu, handik hilabete batzuetara jakinarazi zitetenez, formatuarekin arazoak egon zirelako, eta, beraz, komunitateak kontratatu zuen teknikariak berriro aurkeztu zuen txostena, eskatutako formatuan. Prozesua amai zedin behar besteko denbora igaro zela uste zuten, eta datuak Euskoregite atarira sartu beharko liratekeela.

Horregatik eskatu zuten Sindikoaren esku-hartzea, udalak bete beharreko izapidea ahalik eta lasterren burutu zedin.

Hirigintza Sailarekin edukitako harreman anitzetan adierazi ziguten oraindik ez zela informazioa Euskoregite atalera helarazi, eta duela gutxi arte arazoak egon zirela programa informatikoan, eta horiek zuzentzen ari zirela oraindik. Era berean adierazi ziguten jabekideen komunitatea ez zela zertan kezkatu, idatziz jasota zegoela higiezinak Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa pasatu zuela, eta emaitza ona zela.

Hala ere, informazio eguneratua zegokion ERREG.an isla zedin eskatzen jarraitzen zuen komunitateak, eta, beraz, idatzizko eskaera bidali genion aipatu sailari. Horren ostean adierazi ziguten, hainbat zirkunstantziarengatik ezinezkoa bazen ere ordura arte jasotako ikuskapen teknikoak Euskoregite atarira igotzeko Eusko Jaurlaritzako programa informatikoan sartzeari, kontuan hartuko zela komunitatearen eskaera, eta beharrezko bitartekoak jarriko zirela informazioa Eusko Jaurlaritzara helarazteko.

Jarduera horien ondorioz, datuak Euskoregite begiratu daitezke dagoeneko. Beraz, dosierra itxi genuen.

C) ARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2097/14 OBRAGATIK LOKALA DESJABETZEA.

Lokal baten jabeek jakinarazi ziguten, igogailua zero kotara jaisteko erkidegoak abiarazitako obrak zirela eta, Udalak lokal horren zati bat desjabetzeko prozedurari ekin ziola; lokalaren zati hori errentan zegoen eta bertan jarduera bat burutzen zen. Prozedura hori alegazio-fasean aurkitzen zen, eta Hirigintza Departamentuari azaldu zioten bazeudela hain garestiak ez ziren beste aukera batzuk, esate baterako, inolako jarduerarik egiten ari ez ziren bearruaren aldameneko beste lokala desjabetzea, eta gainera, horrek kostu txikiagoa zuen erkidegoarentzat. Bere iritziz, bearruaren alderdi estetikoak kontuan izanik hautatu zuten aukera hau bizilagunek.

Era berean, alegatu zuten aukera horrek egoitza-eraikin publikoetako irisgarritasunari buruzko ordenantza urratzea zekarrela.

Azkenik, lokal horretan egingo ziren obren proiektu xehakatu bat egitea eskatzen zuten, lizentziaren xede zen obra-proiektua bearruaren inguru horretara bakarrik mugatzen zela jotzen zutelako.

Erreklamaziogileekin egindako lehen bilera elkarrekin adostu genuen, kasu horri buruzko informazio gehiago jasotzearen bearru horretara joango ginela eta Hirigintza Departamentuarekin hitz egingo genuela. Era berean, bizilagunen erkidegoko ordezkari batzuekin harremanetan jartzeko aukera aztertu genuen, gai desberdinen inguruan adostasun bat erdietsi ote zitekeen jakiteko.

Helburu horri begira, zenbait bilera egin genituen inplikaturako eragileekin (erkidegoarekin, arkitektoarekin, jabeekin eta maizterrekin), nagusiki lokalean beharrezkoak ziren obrak, horiek egiteko epeak eta erabili beharreko materialak erabakitzeko, beste alderdi batzuen artean.

Egindako bilera desberdin horien akta idatzi zen, eta bertan, alderdi guztien artean erdietsi eta bertaratutako guztiek behar bezala sinatutako akordioak jaso ziren.

Hirigintza Sailak akordio horri buruzko aipamena egin zuen, desjabetzeko prozedura erabaki zuenean.

Azkenik, obra horiek aurreikusitako epean burutu ziren eta ez dugu entzun inolako eragozpenik gertatu denik.

D) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2152/15 LOKALA DESJABETZEA IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBRENGATIK.

Zaldiaran Plazan bi bebarruk osatzen duten erakin batean kokatuta dagoen lokal baten jabe den herritar batek bere kezka agertu zuen igogailua zero kotara beheratzeko obrak burutzeak bere lokalari ekarriko dizkion ondorioengatik.

Igogailua beheratzeko beharrezkoa da eskailera-zuloa okupatzea, eta bizilagunek nahi dute dohainik laga dezala hori, baina berak horri uko egiten dio, lokala eskuratu zuenean metro horiengatik ere ordaindu zuelako.

Aldameneko bebarruan egoera bera gertatu zen, eta gai hori auzitegietara iritsi zen; auzitegiek erabaki zuten lokalak eskailera-zuloa modu desegokian okupatzen zuela.

Beraz, horren inguruan dagoen aurrekariak kezkatu egiten du, nahiz eta aurrekariaren azken proiektuan badirudien bizilagunen erkidegoak ordainduko duela eskailera-kaxaren itxitura; hala eta guztiz ere, uste du hori nolabait ere islatu beharko litzatekeela, lokal horri azkenik egokitzen zaion zenbatekoan murrizpen bat eginez.

Aurreko guztiengatik, herritarrak orientabide bat eskatzen zuen egin beharreko urratsen inguruan, bere jabetzako lokalaren parte gisa eskuratu zuen eskailera-kaxaren espazioa lagatzea nolabait ere islatu zedin lokalaren bebarruan irisgarritasuna bermatzeko obrengatik ordaintzea egokitzen zaion azken prezioan.

Gure iritziz, aldameneko bebarruko obrengatik emandako epaia ez da zuzenean aplikagarria, baina epaile batek ontzat jo dezake. Azkenik, zein alderdiren gainean negoziatu daitekeen eta erdietsi daitezkeen akordio batzuk proposatzen ditugu.

ERREG. ZK.: 2210/15 IGOGAILUA ZERO KOTAN. ERAGINDAKO LOKALA.

Higiezinen lokaletako jabe batzuek beren kezka adierazi ziguten beren erkidegoan igogailua zero kotaraino beheratzeko egingo zituzten obrengatik, horretarako beharrezkoa izango zelako lokal horien azaleraren parte bat okupatzea. Lagapenaren baldintzak jabeen erkidegoarekin negoziatzen ari ziren, eta ez zeuden ados eskaintzen zietenarekin, baina ez zekiten zer ondorio izango zituen Udalak horretarako azalera desjabetzen bazuen. Ez zekiten, azalera gain, zein beste alderdik jaso zezakeen kalte-ordaina. Horrengatik, azaldutako egoera horren aurrean jokatzeko orientabide bat eskatzen zuten.

Adierazi genien jabeen erkidegoak desjabetutako afekzio guztien kalte-ordaina eman beharko zuela, eta den-dena balioetsi behar dela, ez metro koadroak bakarrik, baizik eta, baita ere, hegala, esate baterako.

Lokalak izandako balio-galeraren inguruan ere beren zalantzak agertu zizkiguten, baina adierazi genien kalte-ordain guztietan afekzio-prezioari dagokion % 10 kalkulatzeko dela. Jakinarazi genien, halaber, desjabetutako eremuaren garrantzia balioetsi egin daitekeela lokalei kalte-ordaina emateko orduan (ez da berdin biltegi-eremua izatea edo lokalaren beste eremu bat izatea).

Azalpen horiekin uste dugu, oro har, orientabide batzuk eman dizkiegula herritarrei, agertu dizkiguten zalantza guztietan.

ERREG. ZK.: 2220/15 ATARIAN IRISGARRITASUN OBRAK EGITEKO LIZENTZIA.

Herritar batek Sindikoaren esku-hartzea eskatu du, bera partaidea den jabe-kideen komunitateari obren lizentzia ematea azkartze aldera, igogailua zero kotara jaisteko. Hil batzuetatik hona gurpildun aulkia erabili behar izan du, eta, ataria egokitu gabe dagoenez, egoitza batean bizi da, bere komunitatean irisgarritasun obrak burutu bitartean. Antza, beharrezkoa izango da lur azpiko garajea zati batean okupatzea. Hortaz, desjabetze-izapideak arintzea ere gustatuko litzaioke, obrak egin ahal izan daitezela.

Lehen unetik adierazi genion, jabe-kideen komunitate batek irisgarritasun obrak egiteko lizentzia eskatzen duenean, lan horiek lokal edo garaje bati eragingo diotela aurreikusten bada, eskaerarekin batera eragindakoarekin, hau da, desjabetuko den higiezinaren jabearekin akordiorik dagoen jasotzeko betebeharra eskatzen duela Eraikuntza Zerbitzuak (obren lizentziak izapidetzen dituenak). Akordioa egonez gero, ohiko moduan izapidetzen da lizentzia; aldean artean akordiorik egon ezenean, ordea, eta behin lizentzia eman denean, desjabetzeko prozedura hasten du plangintza zerbitzuak. Prozedura horrek epe jakinak dauzka legeak adierazitako izapideak egiteko, eta, ondorioz, prozesua hilabete batzuek luzatzen da.

Kontuaren egoera egiaztatzeko xedez, informazioa eskatu genion plangintza zerbitzuari. Adierazi zigutenez, hilabete batzuk lehenago aurkeztu zuen komunitateak obretarako proiektua, baina oraindik ez zieten lizentziarik eman, izan ere, dokumentazio gehigarria aurkezteko errekeritu zituzten, eta oraindik ez zuten egin. Era berean, lurrazpiko parkineko kalte posibleak aztertzen ari zirela esan ziguten, balizko desjabetzeari begira. Edonola ere, lizentzia eman eta gero izapidetuko litzateke desjabetzea.

Jarraian, informazio hori helarazi genion kexagileari, eta azaldu genion ezin zitekeela komunitatea behartu, ez bulego honetatik, ez udaletik bertatik, eskatutako dokumentazioa epe jakin batean aurkeztera, borondatezko egintza baita. Ez aurkeztearen ondorio bakarrak lizentzia-eskaera iraungitzea da, baina beti eska daiteke, berriz ere, beste baimen bat.

Halere, kontuaren gaineko segimendua egiten jarraitu genuen. Azkenean, harremanetan jarri ginen berriro ere Hirigintza Sailarekin, eta, azkenean, garajeen komunitatearekin akordioa egin ostean, obren lizentzia eman zietela baieztatu ziguten.

Herritarrei informazio guztia helarazi genien, eta amaitutzat jo genuen dosierra.

ERREG. ZK.: 2227/15 IGOGAILUA ZERO KOTARA, ERAGINDAKO ETXABEAN.

Pertsona batek adierazi duenez, bizitegi eraikin bateko etxabe baten jabea da, eta, bertan, irisgarritasuna hobetzeko obrak egin dira, hau da, jada bazegoen igogailua zero kotara jaitsi dute. Bere ustean, jasotzaile bat jar zezaketen, baina zero kotara jaitsi dute igogailua eta ataria konpondu dute, egoera txarrean baitzegoen. Hasiera batean, etxabearen partaidetzaren ehunekoarekin 982 euro ordaindu behar zituela jakinarazi zioten. Gero, aurrekontuko partida banakatua eskatu zuen, eta adierazi, bere iritziz, etxabeek ez luketela ordaindu beharko. Behin betiko aurrekontuaren arabera, 3.000 euro abonatu behar zituen. Obra berriko estatutuetan, igogailuen mantentze-lanak ordaintzetik salbuetsi dira, berariaz, lokalak. Kontua azalduta, gai konplexu eta zail horren inguruan Auzitegi Gorenak idatzitako azken jurisprudentzia aztertu zuen Sindikoaren bulegoak, eta iritzi juridikoa eman genuen, jabeekideen komunitate horren estatutuetan kontuan hartutako salbuespenak, gure ustez, jardun beharreko moduari buruz.

E) EZESPENA

ERREG. ZK.: 2084/14 HIRIGINTZA-ARAUDIARI BURUZKO DOSIERRAREN ISUNAGATIK KONTUA BAHITZEA.

Hiriaren erdialdeko kale batean kokatutako etxebizitza baten jabe den herritar batek jakinarazi zigun 3.000 euroko bahitura egin ziotela, hirigintza-araudiari buruzko dossier baten isunagatik. Duela bi urte, erkidegoak birgaikuntza-lan batzuk egin zituen udalak eskatuta, eta fatxadaren horma-atal osoa bota zuten. Adierazi zigun, obra hori egin bitartean, bere etxean tabike bat topatu zutela eta arkitektoak esan ziola ez zezala ukitu ere egin, horri zegokion udal baimena eduki gabe. Beraz, horrela egin zuen, obra-baimena eskatu zuen eta ordaindu egin zuen. Bota zitezkeela iruditzen zitzaizkion tabikeak bota zituen, pentsatuz ez zela baimenik eskatu beharko, birgaikuntza-lanean sartuta zeudelako. Pladurra eta instalazio elektrikoa jartzea falta zitzaion oraindik, eta nahiko baliabide ez zuenez gero, Udalarari eskatu zion geroratu zezala obrak egiteko epea. Orain, Udalak eskatu dio hormak eta argia jarri ditzala, etxebizitza horri erabilera eman diezaiola, eta 3.000 euroko bahitura egin dio, dossier hori artxibatuta zegoela uste bazuen ere.

Herritarraren aldetik kexa jaso ondoren, Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri ginen, zigor ekonomiko hori ezarri izanaren arrazoia zein izan zen jakiteko, eta dossier horri buruzko informazio gehiago biltzeko. Jakinarazi ziguten sailak eten egin zituela baimenik gabe egiten ari ziren obrak, eta herritarrari hamabost eguneko epea eman zion obren egoera legezkatu zezan. Nolanahi ere, Hirigintzako Zinegotzi Delegatuak zehapen-prozedura bat abiaraztea erabaki zuen, obra batzuk baimenik gabe egin zirelako, eta hori zela eta, 2.250 euroko isuna ezarri zuen hirigintza-araudia urratzeagatik, hau da, obra batzuk baimenik gabe egiteagatik, zeren eta, oraindik ere eraikin osoa birgaitzen ari baziren ere obra-baimen egokiarekin, ez baitzuen baimenik etxebizitza zehatz horren tabike guztiak botatzeko.

Horrenbestez, kasu honetan bi prozedura desberdin jarraitu zituzten: alde batetik, hirigintza-legeria eraberritzeko prozedura bat, hau da, baimen egokirik gabe egindako obra horiek legeztatzeko prozedura, eta beste prozedura bat, berriz, obra horiek alde aurreko proiekturik gabe eta baimena eskatu gabe ere egin izana zehatzeko xedea duena.

Lege-hauste hori arina maila ertainean zela jo zuten eta 2.250 euroko zehapen ekonomikoa ezarri zioten, nahiz eta larritzat ere har zitekeen, 5.001 eta 50.000 euro arteko isuna ezarri, egiturazko elementuei eragiten zieten zergo proiektu teknikoa behar zuten eta baimenak babesten ez zituen obrak batzuk egin zirelako. Beraz, kasu honetan, Udalaren jarduna zuzenbidez egokia izan zela jotzen dugu.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2194/15 BAHITURA. LIZENTZIARIK GABEKO OBRAK.

Herritar batek gure bulegora jo du, eta 2012an, etxebizitza erostearekin batera, zenbait obra egin zituela adierazi digu. Bestalde, lan horiek egiteko lizentzia eskatu zuela ere esan digu. Hala ere, Hirigintza Sailak zenbateko bat eskatu dio, betearazteko bidean jada, lizentziarik gabe egin dituelako zenbait lan. Hirigintza-dosierrari dagokionean, pisura sartu zen batean, ikuskatzaile bat bertaratu zela adierazi digu, eta egongelara sartu zela, komuna zulatzen ari zirela ikusi zuela, baina ez zela barrurago sartu. Gaineratu duenez, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskuratu zuen, eta obrei zegozkien lizentziak aurkeztu behar izan zituen, laguntza izapidetze aldera. Udalaren jarduerarekin ados egon ez arren, "eskatutako zenbatekoaren 772,96 euroak abonatu dituela" adierazi du.

Aurrekoagatik, dosierra berrikus zedila eskatu zuen, bai eta, bere ustez, bidegabe ordaindu behar izan duen zenbatekoa itzul diezaiotela ere.

Bere erreklamazioaren harira, dosierraren kopia eskatu genion Eraikuntzen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari, hirigintzaren legezkoatasun prozedura aztertzeko xedez, horren arabera ezarri baitzioten betearazteko bidean eskatzen zioten zigorra.

Hirigintza Sailak igorritako dokumentazioari erreparatuta ondorioztatu genuen partikular baten (etxebizitzako aurreko jabearen) salaketaren ondorioz izan zuela udalak egitateen berri, etxebizitzan egiten ari ziren obrei buruzkoa baitzen salaketa. Horren ondorioz, udaleko teknikariak bi aldiz joan ziren etxebizitza ikuskatzera. Egin zituzten egiaztapenen arabera, ikuskapen-akta egin zuten. Horrekin, legez kanpoko obrak geratzea ebatzi zen, eta hilabeteko epea eman zioten horiek legezko egin zitzaizkien. Aipatu epea sobera igaro ondoren, zigortzeko prozedura abiarazi zen uztailean. Zigorra ezarriz amaitu zen aipatu prozedura, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (225.3. artikulua) urraketa arina egiteagatik. Aurrekoa kontuan hartuta, udaleko teknikariek egindako ikuskapen-aktetan jasotako egitateetan oinarritu da zigor hori, eta akta horiek egiazkoatasun presuntzioa dute.

Egiazkoatasun presuntzio hori ez da absolutua, hau da, aurkako frogak onartzen du. Halere, esku artean dugun kasuan, ez da jaso kexagileak inolako frogarik aurkeztu duenik ikuskapen-aktan jasotakoari aurre egiteko. Dosierran obretarako lizentzia eta lizentziaren babespeko obrak ageri dira, baina ez dute bat egiten ikuskatzailearen arabera 2012ko otsailean etxebizitza horretan egiten ari ziren obrekin. Hots, ez da dokumenturik aurkeztu etxebizitzan egindako obrak emandako lizentziako obrei egokitzen zitzaizkiela egiaztatzen duenik (adibidez, argazkiak, obra amaierako ziurtagiria eta abar).

Beste alde batetik, kexagilea "jazarpena" jasan izanaz kexu zen; alabaina, dosierrari erreparatuta, legez ezarritako prozedura jarraitu da, berme guztiekin. Hau da, ezinezkoa izanenez idatzitako ebazpen bat bera ere zuzenean berari jakinaraztea, Hirigintza Sailak arauzko bidean jardun du horiek ALHAOn argitaratzean. Eta, behin isuna ezarrita, Bilketa Zerbitzuak ere modu berean jardun du.

Aurreko guztia dela-eta, ezin daiteke kexagilearen eskaera balioesteko ebazpenik igorri.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

F) BESTE (IRAUNGIPENA, ERABILTZAILEAK ITXIA, ONARTU EZ DIRENAK...)

ERREG. ZK.: 1939/13 EGOERA TXARREAN DAGOEN HIGIEZIN BATEN MANTENTZE-LANAK.

Herritar batek jakinarazi zigun lau solairu eta etxabe batek osatutako 1901. urteko higiezin bat zegoela Manuel Iradier kalean, eta egoera txarrean aurkitzen zela. Erreklamaziogilea eta bere anai-arrebak zenbait etxebizitzaren jabe dira, eta gainerakoak beste familia batenak dira.

Udalak dei egin zien jabe guztiei, eraikinaren zenbait alderdi egokitu zitezten, eta horrela egiten ez bazuten, denon artean ordaindu beharko zuten zigor bat ezarriko zitzaizela mehatxatu zituen. Bere iritziz, beste familiak ez du eraikinean esku hartzeko asmorik, eta bazirudien eraikinari aurrigoera aitortu ziezaizotela erdiestea beste asmorik ez zutela, gero suntsitu ahal izateko.

Aurreko hori guztia dela eta, herritarrak eskatzen zuten Sindikoak esku hartzeaz, beharrezkoak ziren mantentze-lanak egin ahal izateko, hirugarrengoei kalterik ez eragitearren.

Kexa jaso ondoren, Hirigintza Sailari informazioa eskatu genion bai eraikin horren egoerari buruz eta bai izapidetzen ari den hirigintza-dosierari buruz ere. Txosten bat bidali zioten herritarrari, jarduera guztiekin, eta handik denbora askora, gai horren inguruan berriro galdetu ondoren, adierazi ziguten gai horrek auzi-eske bat eragin zuela, eta epai bat eman zutela, eta beraz, zentzugabea zela exekuzio-agindu gehiago ematea.

Erreklamaziogileak auzitegietara jo zuenez gero, gure bulegoan aurkeztutako erreklamazio horretan atzera egiten zuela ulertu genuen, eta horrexegatik itxi genuen dosierra.

03.8 Erakunde Autonomoak

03.8.1 AMVISA

A) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 2110/14 AMVISA. EGON LITEZKEEN IHESALDIAK.

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen AMVISAK ur-hornidura eten ziolako, eta aldeztu aurreko ohartarazpenik gabe kontagailua kendu zizela. Kontagailua kendu aurretik lehenik eta behin zigilatu egin behar zutela uste zuenez gero, AMVISARA jo zuen informazioa jasotzera, eta adierazi zioten ihesaldi bat gertatu zela (berak ez zekien ezertxo ere horri buruz, ez zegoelako ez hezetasunik eta ez itoginik ere, ezta ihesaldi bat zegoela pentsaraz zezakeen beste ezer ere). Jakinarazi zioten berriro ura eduki nahi baldin bazuten, 1.265,18 euroko zenbatekoa osorik ordaindu beharko zuela, baina herritarrak aurreko atzerapenei zegokien 273,40 euroko zenbatekoa bakarrik onartu zuen. Horregatik eskatzen zuten, 273,40 euroko ordainketa egin ondoren, kitatutzat jo zezatela zorra, berriro kontagailua instalatu zezatela ur-

hornidura eduki ahal izateko, eta irtenbide bat bila ziezaiotela gainerako 991,78 euroko zorraren arazo horri.

Erreklamazioa egin ondoren, gure lehen helburua ur-hornidura berriro ezarri zedila erdiestea izan zen, eta horretarako, AMVISArekin harremanetan jarri ginen, eta kexa jaso eta hurrengo egunean bertan, berriro kontagailua instalatu zuten eta ur-hornidura berrezarri zuten etxebizitzan.

Gainera, AMVISAK azaldu zigun ihesaldiaren ondorioz izandako ur-galera oso garrantzitsua izan zela, eta kontratuaren titularrari ihesaldiaren berri eta ordaindu gabeko ordainagiriaren berri zenbait aldiz ohartarazi ondoren eten zutela ur-hornidura. Kontagailuen gaiari dagokionez, ziurtatu zuten enpresaz kanpoko pertsona batzuek kendu zietela zigilua AMVISAK zigilatutako kontagailuei, ur-kontsumoa handitzen ari zen bitartean, eta horrexegatik, azkenik, teknikariek kontagailua kentzeari ekin ziotela.

Ihesaldiaren gaiari dagokionez, erabiltzaileak ziurtatzen zuen ez zela inolako ihesaldirik gertatu, eta hori dela eta, AMVISAK iradoki zuen eraman zezatela kontagailua berrikustera, eta kontagailuaren akats bat baldin bazen, AMVISAK bere gain hartuko zuela egiaztapenaren kostua, baina kontratuaren titularrak uko egin zion egiaztapen hori egiteari.

AMVISAK jakinarazi zigun ihesaldia kontratuaren titularrak konpondu behar zuela, ihesaldi horren jatorria eraikinaren barrualdeko punturen batean zegoelako, kontagailua aurkitzen zen puntua baino lehen.

AMVISAK ur-hornidura berrezarri izana aprobeixatu zuen instalazioaren berrikuspen bat egiteko, eta ikusi zuen galdera betetzeko eta berokuntza-zirkuitua husteko giltzak ez zirela behar bezala ixten, eta horren ondorioz, berokuntza-zirkuitua etengabe husten zela. Itxiera hori konpontzea gomendatu zuten, ihesaldi gehiago gerta ez zedin. Horrez gain, AMVISAK herritarrari jakinarazi zion hilabeteko epean ez bazuen kitatzen ordaindu gabeko faktura batzuek sorrarazitako zorra, eten egingo ziotela ur-hornidura, eta beraz, eskatu zuten, herritarrari ordainketa horiek erregularitasunez egitea eragozten zioten arazo ekonomikoak edukiz gero, bidezkoak ziren diru-laguntzak eskatu ziezazkiola Udalari.

Beraz, informazio hori igorri zitzaion herritarrari, eta hark adierazi zigun Gizarte Larrialdiko Laguntza batzuk onartzeko zain zegoela, eta diru-laguntza horiek AMVISArekin zituen zorrak ordaintzeko helburu zehatza zutela. Nolanahi ere, informazio hori AMVISARI jakinarazi ziotenean, haiek adierazi ziguten Udaleko Gizarte Gaietako Sailarekin harremanetan jarri ondoren, herritarrak ez zuela eskatu AMVISArekin zituen zorrak ordaintzeko zegokion gizarte-larrialdiko laguntza, eta informazio hori Udaleko gizarte-langileak berak berretsi zigun.

Horrenbestez, uste dugu bai Udalaren aldetik eta bai AMVISAREN aldetik ere oinarri batzuk jarri zituztela arazoa konpontzeko, baina Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, azkenean ezin izan zuten arazoa konpondu.

03.8.2 ENSANCHE 21

A) BITARTEKARITZA

ERREG. ZK.: 1991/14 HIGIEZINAK HONDATUTA, BARNEKALE BERRIAN.

Herritar batek azaldu zigun ezen, hainbat bider salatu ondoren Gasteizko Udalaren jabetzakoak diren Barnekale Berriko 21. eta 23.eko higiezinaren egoera, baina, erakunde horrek ez duenez inongo konpromisorik hartu arazoa konpontze aldera, berriro ere horixe bera salatu beharrean zegoela. Kexarekin batera, hainbat argazki aurkeztu zituen, non higiezinaren hondamena ikus baitaiteke, eta atzemandako arazo horiei konponbidea eman zekiela eskatu zuen.

2014ko martxoaren 4an ebazpen bat jakinarazi genion, zeinen bitartez jakinarazten baikenion 21 Zabalgunek zeuden eraikinak ordeztuko obrak egiteko asmoa zuela, eta, horretarako, udal sozietatearen gutun batean esaten zenez, beharrezko ziren izapideak egiten ari zirela, eraikinetan zeuden gainerako jabetzak erosteko, gaur egun dauden eraikinak ordeztuko proiektua egiteko eta abar.

Nolanahi ere, lehenengo ebazpen haren ondoren, hilabeteak igaro ziren eta obrak egin jabe jarraitzen zuen, antza 21 Zabalgunea azken urteotan igarotzen ari den ziurgabetasun-egoeraren ondorioz. Horregatik, kasua berriro irekitzea erabaki genuen.

2014ko ekitaldiko oroitidazkiaren aurkezpenean, agerian jarri genuen kasu hau Gasteizko Udalaren aurrean, eta, bilkura hartan bertan, publikoki hartu zuen konpromisoa Hirigintzako zinegotzi ordezkariak sozietatearen administrazio-kontseilu berria eratu bezain laster, hurrengo bilkuran tratatuko zela Barnekale Berriko 21-23ko eraikina eraistearen inguruko gaia. Erabakia hartu zen, eta 2015eko azaroan eraitsi zen eraikina.

ERREG. ZK.: 2120/14 OBRA HIGIEZINEAN.

Hedegile kalean kokatutako lokal baten jabeak kexa bat aurkeztu zuen, bere lokala kokatuta zegoen bebarruak beste hirurekin partekatzen duen hodian egindako obra batzuegatik diru-zenbateko batzuk

eskatzen zizkiotelako, nahiz eta ez zuen horiei buruzko inolako albisterik jaso alde z aurretik. Ez zegoen ados erreklamaturako diru-zenbatekoarekin, bat ez zetorrelako bere jabetzako higiezinaren partaidetza-kuotarekin, hura zati berdinetan banatu baitzen bizilagunen artean, eta beti bere partaidetza-ehunekoaren arabera ordaindu zutelako; formekin ere ez zegoen ados, zuzenean enpresak erreklamatzeko zuelako, erkidegoak erreklamatu ordez.

Aurreko guztiagatik, erkidego baten barruko lokal baten jabe gisa jaso zuten tratua berri eman nahi zuten, bertako etxebizitza gehienak Ensanche 21enak zirelarik, eta eskatzen zuen sozietate horrek kudeatu zezala hodian egindako obrak eragindako zenbatekoen kobrantza.

Erreklamazio hori kontuan izanik, higiezin horiei buruzko informazioa eskatu genion Ensanche 21 enpresari, eta erantzun ziguten etxebizitza horrek, beste bebarru batzuekin batera, Etxebizitzetarako Exekuzio Unitate Publiko bat (UEPR-2) osatzen zuela, eta hori garatzea Udalaren ardura zela, nahiz eta oraingoz ez zuen ezertxo ere egin.

Egindako obregatik erreklamatzeko zuen zenbatekoari dagokionez, adierazi ziguten bilera bat egin zutela eragindako bebarru guztiarekin, eta bertan erabaki zutela enpresa kontratistak banaka-banaka fakturatu ziezaiola jabe bakoitzari. Akten kopia eskatu genituen hartutako erabakiak egiaztatzeko, eta aldi berean, erreklamaziogilearen jabetzako lokalari zegokion partaidetza-kuotaren gaia azaldu genien. Ensanche 21 sozietateko teknikariek ez zuten ezagutzen herritar horri zegokion ehunekoa, eta beraz, lokalaren eskriturak eskaini genizkien eta erreklamaziogilearen lokalari zegokion zenbatekoa berriro kalkulatzeari ekin zioten, hasiera batean hari zegokiola esan zieten baina txikiagoa.

Horren ondoren, egindako kudeaketak kontuan izanik, iruditu zitzaigun erantzun egokia eman geniola herritarren kexari eta dosierra itxi genuen.

ERREG. ZK.: 2214/15 OLARIZU BERRITZEKO PLANAREN ONDORIOZ ORDEZKO ETXEBIZITZA EMATEA. ATZERAPENA KONTRATUA SINATZEKO UNEAN.

Pertsona hori duela bi urte bertaratu zen gure bulegora, bere etorkizunagatik kezkatuta eta aholku bila, hipoteka-mailegua sinatuta zuen banku entitateak ez ziolako uzten Olarizuko etxebizitza zaharretan bere titulartasunekoa zen etxebizitza auzo berriko etxebizitza batengatik trukatzeko. Udalak abiarazitako berritze planetik eta 21 Zabalgunetik eratorri zen aipatu trukea. Denbora hori igaro ondoren, bankuak, azkenean, 2014an hipotekaren subrogazioa onartu zuela baieztatuz itzuli zen, eta, 2015ean, etxebizitza aldaketa hitzartu zuela 21 Zabalgunea sozietatearekin. Olarizu etorbidean esleitu diote pisua, bere ohiko etxebizitzaren aurrean, baina kexu da etxebizitzaren eskritura eginda egon beharko litzatekeelako eta 21 Zabalgunea sozietateak erantzuten ez dielako, eta kontua etenda dagoela esan dielako. Bakarrik bizi da etxepe osoan, horrek dakartzan segurtasun arazo guztiarekin. Harremanetan jarri ginen 21 Zabalgunea

sozietatearekin, eta Sozietateko Administrazio Kontseiluko presidentetza berria izendatu arte itxaroten ari zirela jakinarazi zigun, aipatu sinadura burutzeko xedez, baina, nolanahi ere, egitasmoak aurrera jarraitzen zuela, oztoporik gabe. Horrelaxe jakinarazi genion interesdunari. Handik hilabetera, 21 Zabalgunea sozietateko presidentetza berria izendatuta zegoela, kexagilearen bisita jaso genuen, eta pozez adierazi zigun kontratua sinatu zutela.

03.8.3 TUVISA

A) GOMENDIOA

ERREG. ZK.: 2003/14 BAT TXARTELA. HOBARI GABEZIA TRANBIAREKIN EGINDAKO GARRAIO ALDAKETETAN.

Herritar batek erreklamazioa aurkeztu du, izan ere, % 65etik beherako desgaitasuna duenez, TUVISAK 0,11 euroko tarifa murriztua aplikatzen dio "BAT Berezi" txartelean. Alabaina, tranbian ez du inolako hobaririk gozatzen, % 65etik beherako desgaitasun maila duelako, eta, horren ondorioz, txartelak ez du garraio aldaketa bat bera ere kontuan hartzen. Hau da, hiriko autobusetik tranbiarako aldaketa egiten duenean, gainerako erabiltzaileek bezala 0,73 € ordaindu beharrean (txartel garestienaren kostua), 0,84 € ordaintzen ditu (TUVISAKo 0,11 € gehi tranbiako 0,73 €), hots, "BAT Orokorra" erabiltzen duen desgaitasunik gabeko erabiltzaileak baino gehiago. Hori, bere ustez, diskriminatzailea da.

INDARREAN DAGOEN TARIFAREN ARAUDIA

TUVISAn, "BAT Berezi" txartelarekin, hobarirako eskubidea dute bai % 65eko desgaitasuna edo hortik gorakoa duten pertsonak, bai % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna duten pertsonak, lokomozio-aparatuari eragiten badio horrek; Euskotrenek, ordea, lehenengo multzoko pertsonak bakarrik ematen die "BAT Berezi" txartela eskuratzeko eskubidea.

Normalean, ontzi aldaketek % 45eko hobaria edukitzen dute, operadore bakoitzeko bidaien kostuaren gehiketaren gainean aplikatu beharrekoa; hots, pertsona batek garraio aldaketa egiten badu autobus baten eta tranbia baten artean, edo alderantziz, bi ibilbideen gehiketaren % 55 kobratuko zaio guztira. Arazoa zera da, "BAT Berezi" txartelak ez duela ontzi aldaketa kontuan hartzen kasu batean ere.

GOGOETAK

Euskotrenek "BAT Berezi" txartelei garraio aldaketarik ez aitortzeak bereziki egiten die kalte, kexagileak bezala, % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna dutenei.

% 65eko edo hortik gorako desgaitasuna duen erabiltzaileak bi konpainiek aitortzen duten "BAT berezi" txartela duenez, 0,39 € ordainduko ditu garraio aldaketetan. 0,11 € TUVISAko autobusagatik eta 0,28 € tranbiagatik.

% 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna duten erabiltzaileek, berriz, 0,84 € ordainduko dituzte guztira: 0,11 € TUVISAko autobusagatik eta 0,73 € tranbiagatik. Hau da, kaltetuta daude, "BAT Berezi" eta "BAT Orokorra" txartelen titularrekin alderatuta.

Gure ustez, % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna dutenentzat TUVISAk ezarritako hobariaren xedearen aurkakoa da hori. Hobaria errentaren gehienezko muga batzuk betetzearen mende dago, era berean; izan ere, aipatu onuraren izaera juridikoa aztertuz gero, "ekintza positiboko neurri" deiturikoetan dagoela ondorioztatzen da, hau da, biztanlerian bereziki arbuiaututako edo tradizionalki baztertutako sektore edo talde jakin bati zuzendutako sustapen neurrien artean dagoela, talde horien desabantailak ezabatzeko eta konpentsatzeko xedez. Eta neurri horiek beren xedearekin koherenteak izan daitezten, abantaila garbia izan behar dira hartzaileentzat, eta ez lituzkete baldintzak jarri beharko, funtsean bilatzen diren abantaileri modu ezkorrean eragingo badiete.

Egun dauden hobariak (desgaitasunagatik, familia ugaria izateagatik, 65 urtetik gorakoa izateagatik eta abar) ez daukate zerikusirik beste tarifa modalitate batzuekin, azken horiek garraio publikoaren erabilerearen intentsitatea bakarrik baloratzen dute-eta (BAT Orokorra, BAT 30D...), izan ere, ez dira ekintza positiboko neurriak, eta modalitate baten edo beste baten alde egiten duen erabiltzaileak onura edo kaltea edukiko du, egiten dituen erabilerei hobekien egokitzen zaiona aukeratu duen ala ez. Dena dela, ekintza positiboko neurria jaso duen taldea ez litzateke "BAT Orokorra" txartela duten erabiltzaileak baino egoera okerragoan egon beharko, itxuraz mesede egin nahi zaien horiek kaltetuko lirateke-eta.

Era berean, garraioa aldatzeagatik hobaria ezin hobeto uztartu daiteke desgaitasunagatik hobariarekin, arrazoi ezberdinei erantzuten baitiete. Alde batetik, desgaitasuna duten pertsonen aldeko ekintza positiboko neurria egongo litzateke, eta, bestetik, garraio aldaketa egiteko hobaria egongo litzateke, garraio publikoaren erabilera sustatzeko xedea duena, garraio mota ezberdinak konbinatuz.

Egungo araudia, % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna duten erabiltzaileei ekar dakiekeen kalte ekonomikoaz gain, diskriminazio kasua izan liteke, bereizkeria justifikatuko lukeen arrazoizko oinarririk gabekoa.

Irtenbidea ez dago TUVISAren mende soilik, Euskotrenen borondatearen mende ere badagoelako, eta, Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen eskumenak udal administrazioari eta horren enpresa publikoei mugatzen zaizkien neurrian, TUVISA sozietateari baino ezin gatzazkio zuzendu, horrek Euskotreni akordioa eska diezaion, arazoari amaiera ekartzeko asmoz.

Aurrekoagatik, honako GOMENDIOA luzatuko dugu:

1. Gasteizko Udalak edo TUVISAk Gasteizko hiri garraioan aplikatu beharreko hobariei buruzko irizpideak bateratzea eska diezaiola Euskotreni, bi konpainiek aitor diezaieten hobaria % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasuna duten pertsoneri.
2. Akordio hori lortuko ez balitz, bai TUVISAk, bai Euskotrenek, beharrezko bitarteko teknikoak hitzartu eta jar ditzatela, % 33aren eta % 64aren arteko desgaitasunagatik "BAT Berezi" txartelaren titularrei bi konpainien artean egindako garraio aldaketak aitortzea bermatze aldera, "BAT Orokorra" txartelaren erabiltzaileen baldintza beretan gutxienez (bi txartelen gehiketaren % 45eko hobaria).

-GOMENDIO EZ ONARTUA.-

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2172/15 KALTEAK IBILGAILU BATEAN, MOLINUEVO PARKINEKO ITOGINEK ERAGINDA. ONDARE-ERANTZUKIZUNA.

Pertsona batek alokatuta dauka, 2012tik, TUVISAk kudeatzen duen Molinuevo parkineko aparkaleku bat. Bada, kexa aurkeztu zuen, itogin batengatik autoko margoa hondatu zitzaiolako. TUVISAko aseguruari jarri zion erreklamazioa. Horri erantzunez adierazi zioten egituraren ondoriozkoa dela itogina eta, beraz, udalari zegokiola. Azkenean, bere aseguruaren bidez konpondu zuen, eta zegokion frankizia ordaindu zuen. Horregatik guztiagatik, frankizia gisa abonatu behar izan zituen 280 euroak itzultzeko eskatu zuen pertsona horrek, izan ere, xede horretarako izapidetu zen ondare-erantzukizuneko dosierrak ebazpena atera zuen, eta, horren bidez, atzera bota zen ondare-erantzukizuneko eskaera.

AURREKARIAK

Udaleko jabari publikoko eraikina da Molinuevo parkean kokatuta dagoen lurrazpiko aparkalekua, eta TUVISA enpresari dagokio berau ustiatzea, Gasteizko Udaleko osoko bilkurak 2002ko otsailean onartu zuen kudeaketa aginduaren arabera. Aipatu akordioko baldintzen arabera, aparkalekuko lekuen erabilera lagapenetik edo alokairutik eratorritako diru-sarreraren % 3 abonatu dio udalak TUVISA enpresari, eta aparkalekuen erabileraren lagapenari esker jasotako diru-sarreraren % 97 sartu beharko dio

enpresa kudeatzaileak udaleko diruzaintzari, dagokion BEZarekin. Gainera, aparkalekuetako eta horren instalazioetako arrisku oro estaliko duen aseguru poliza sinatzeko betebeharra ezarri dio TUVISARI, eta Gasteizko Udala izango da horren onuraduna. Bestalde, ibilgailuek eduki ditzaketan istripu eta kalte arriskuak eta zerbitzuaren funtzionamenduaren ondoriozko erantzukizun zibila estaliko dituen aseguru poliza sinatu beharko du, udalarentzako erabateko bermekin.

ONDARE-ERANTZUKIZUNARI BURUZ

Administrazio araudiaren arabera, norbanako batek, bere ondasun eta eskubideetan kaltea jasaten duenean zerbitzu publiko baten funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz, zerbitzu hori ematen duen administrazioaren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko du, eragindako kalteak ezinbestearen ondorio direnean izan ezik. Administrazioaren erantzukizuna zuzena da, hau da, ez da eskatzen administrazioak edo horren langileek erruzko moduan edo era axolagabean jokatu izana; nahikoa da norbanakoak kalte hori jasateko betebeharrak juridikorik ez edukitzea, eta kausa-ondorio harremana egotea zerbitzu publikoaren eta eragindako kalteen artean.

Epailleek eta auzitegiek ondare-erantzukizuneko oinarritzako aurreikuspen horiek interpretatu eta garatu izan dituzte, baina, nolana ere, aldeek behar bezala frogatu behar dituzte inguruabar horiek guztiak.

Frogatu beharraren kargari dagokionez, honakoa baieztatuz laburtu genezake kontua: arrazoibideak oinarritzeko datu edo egitateak frogatu behar ditu aldeetako bakoitzak.

Horrela, erreklamazioa jarri duenari dagokio honako alderdiak frogatzea, administrazioa ados ez badago:

- egitatea gertatu egin zela
- kaltea eragin ziotela,
- ez zuela kaltea jasateko betebeharririk,
- kalteen balioa
- administrazioak emandako zerbitzu publikoaren eta eragindako kalteen artean kausa-ondorio harremana dagoela (lotura kausala).

Administrazioak, bestalde, honakoa frogatzeko betebeharra dauka:

- emandako zerbitzuaren kalitatea sozialki *zerbitzuen kalitatearen estandartzat* jotzen denaren parekoa izan zela
- kalitate maila hori bera errespetatu zela hirugarrenek eragindako arrisku egoerak saihesteko unean eta hirugarren horiek eragindako ondorio kaltegarriak konpontzeko orduan.

AIPATU PRINTZIOAK KASU HONI APLIKATZEA

Ondare-erantzukizuneko dosierra amaiarazi zuen ebazpenean, itoginen eta filtrazioen kausak argi ez daudela ondorioztatu da, eta badirudi aparkalekuan itoginak eta filtrazioak egoteko azken arrazoia ez jakiteak galaraziko lukeela erantzukizuna udalari egozte.

Horrela bada, ez dira zalantzan jarri ez egitateak (ibilgailu gainera jariatzen diren itoginak), ez kalteak berak (kalteak ibilgailuan), ez itoginen eta margoan egondako kalteen arteko harremana, ez kalte horien gaineko balorazioa, izan ere, erantzulea udala dela jarri da zalantzan, eta hori guztia itoginen jatorria ezagutzen ez delako oinarriaren gainean.

Bulego honek ez du bat egiten balorazio horrekin, ebazpenak baieztatu egin baitu ezbeharra gertatzeko inguruabarrak ez daudela modu fede-emailean egiaztatuta, eta, bitartean, Espazio Publiko eta Ingurumen Zerbitzua kategorikoa da kausa zehazteko orduan:

*"Lurrazpiko urak egotea egitate natural eta ohikoa da, bai eta euri-urak zoladura eta substratu (lur) jakin batzuen bidez filtratzea ere, hortaz, **lurrazpiko garaje eta eraikuntzetan balizko filtrazioak egotea horiek iragazgaitz bihurtzeko eraikuntza hondatu izanari edo berau akastuna izateari egotz dakiok...**"*

TUVISAren aseguratzaileak emandako adituaren txostenak bat egin du ondorio horrekin:

*"Filtrazioa mugatua eta unean-unekoa ez dela ondorioztatu da, hau da, **estalkia iragazgaitz bihurtzeko eraikuntzaren arazoa dela, eta garaje gainean lorategiz hornituta dagoen guneko euri-ura eta ureztatze-ura filtratzea ahalbidetzen duela horrek**, hormigoizko forjatuan pilatuz hori, bildutako ura garaje barrura isurtzea ahalbidetzen duten arrakalak aurkitzen dituen arte".*

Izan ere, obrak egikaritu dituen enpresak burututako konponketa-lanak jaso dira dosierrean, udalak 2004an eta 2006an eskatutakoak horiek, garajeko hainbat aparkalekutan hautemandako hezetasun eta filtrazioengatik. Besteren artean, 93., 94., 95. eta 96. aparkalekuetan. Azken hori kexagilearen ondokoa da, 97.a baita berea.

Bada, enpresa eraikitzaileak, zentzuzkoa denez, egitateak "duela 10 urte baino gehiago egindako obraren egikaritzeari ez dagozkion arrazoiei" egotzi nahi dizkien arren, norabide horretara garamatzate zantzu guztiek.

Edonola ere, ordea, itoginetako uraren jatorriak ez du axola, izan ere, eraikitako eraikineko jabea da aipatu eraikina iragazgaitasun egoeran edukitzeko arduraduna, bai lur arraseko eraikin arrunt bateko fatxada izan, bai lurrazpiko eraikina izan. Zentzu horretan, jurisprudenzia ugari bildu dugu. Horren arabera, lurrazpiko garajea eraikitzeak berau iragazgaitz bihurtzea eskatzen du, eta aipatu eraikineko jabearen erantzukizuna da higiezina iragazgaitz edukitzea. Bestelako kontua da hirugarren baten egintzaren ondorioz haustea edo kaltetzea iragazgaitasuna, edo irazgaitasuna jarri zuen enpresak lana behar bezala egin ez izana. Kasu horretan, eraikineko jabeak hirugarren horri eskatu ahal izango dio aipatu irazgaitasuna konpontzeko beharrezko obren kostua; baina, higiezinaren egoera txarraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalteei dagokienez, jabea izango da erantzule zuzena.

Aztertutako kasuan, filtrazioen kausaren gaineko zalantzak adieraztera mugatu da udala (horren zerbitzu teknikoak biribiltasunez mintzatu badira ere), eta une batean ere ez du egiaztatu, bere betebeharra izaki, emandako zerbitzuaren kalitatea sozialki zerbitzuen kalitatearen estandartzat jotzen denaren parekoa izan denik, edo eskura eduki dituen neurri guztiak hartu dituenik hirugarrenek eragindako arrisku egoerak saihesteko edo ondorio kaltegarriak saihesteko edo konpontzeko orduan.

Era berean, kasu honetan ez dago udalaren erantzukizuna baztertzea ahalbidetzen duen froga fedemailerik, eta, zalantzarik gabe, aipatu aparkalekuan aparkatzen zuen ibilgailuko jabeak ez dauka bere ibilgailua garajeko itoginek kaltetzeko betebeharririk.

Modu berean, ez da ezer esan TUVISAren balizko erantzukizunari buruzko administrazio-ebazpenaren gainean. Gure ustean, ezin zaio TUVISARI egotzi aipatu erantzukizuna, kudeaketa aginduak ez baitzuen jaso eraikinaren mantentze- edo kontserbazio-lanak egiteko betebeharra, udalaren titulartasunekoa izaten jarraitzen baitu horrek.

Beste erantzule posibleei dagokienez (enpresa eraikitzailea, aseguruak eta abar), udalak, behar bezala arrazoituta, erantzukizuna egotz ziezaiekeen. Hala ere, ez da inolako hirugarrenik adierazi kalteen balizko erantzule moduan. Beraz, udala bakarrik geratu da erantzule gisara, albo batera utzi gabe gerora hirugarrenen aurrean zuzendu dezakeenik erreklamazioa.

Azkenik, herri-administrazioek edozein unetan beren egintza kaltegarriak errebokatzeko duten aukera hartu du kontuan 30/1992 Legeak, betiere, errebokatzeko hori legeek baimendu gabeko salbuespena edo lekupena ez bada; hau da, berdintasun printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada.

Aurrekoetatik, honako GOMENDIOA luzatuko dugu:

280 euroko kalte-ordain eskaera gaitzetsi duen 2015eko otsailaren 4ko dekretua baliogabetu dadila, eta, horren ordeztuz, kexagileari aipatu kalte-ordaina eskuratzeko eskabidea aitortuko dion beste bat idatz dadila, bazter utzi gabe, gerora, udalak beste erreklamazio bat zuzendu ahal izatea bere ustez eraikineko itoginen eta filtrazioen erantzule diren hirugarrenen aurrean.

-GOMENDIO EZ ONARTUA.-

[Gomendioaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

B) ORIENTAZIOA

ERREG. ZK.: 2172/15. TUVISA. ZERBITZUAK OKERRERA EGIN IZANA LINEA BERRIEKIN.

Hiriko autobusen erabiltzaile batek linea zirkularren plangintzarekiko ezinegona adierazi du, ordutegia erregulatzeko geralekua baitu Bulevarrean, eta, horren ondorioz, atzeratu egiten baita Judimendi auzoko bere bizilekutik Txagorritxura edo autobus geltokira joan behar izaten duenean. Gaineratu duenez, autobus geltokian alboetan babesgarririk ez duen markesina bat dago, eta geltokian bertan itxarotedenbora kontsultatzeko aukera egon beharko litzatekeela azaldu du.

TUVISAk bulego honi bidalitako erantzun-idazkian, alde batetik, ordutegia erregulatzeko geralekuen zeregina azaldu da, eta TUVISAko linea zirkularretan erregulazio denborak murrizteko teknika berriak ezartzea aztertzen ari direla adierazi da, aipatu eragozpenak saiheste aldera.

Autobus geltoki barrutik hiriko autobusetarako itxarote-denbora ikusteko aukerari dagokionean, autobus geltokia lanean ari dela adierazi da, autobusak TUVISAko geralekuetara iristeko benetako denborak erakutsi dituzten barruko monitoreek, eta proba fasean daudela.

Markesinari buruz, irisgarritasun araudia betetzeak alboak ixtea baldintzatzen duela azaldu da, eta horixe gertatu dela Latinoamerika biribilgunean ere, biribilgunetik hurbilen dagoen albo ireki behar izan baitzen zehrabide berria sartu zenean.

Emandako informazioarekin behar besteko orientabidea eman genuela pentsatuz, dosierra itxi genuen.

C) EZESPENA

ERREG. ZK.: 2185/15 TUVISA. HOBARIAK.

Herritar bat gure bulegora etorri zen, BAT txartela bere epemugara iritsitakoan berritzera joan zenean, ez ziotelako utzi aurrez zeukan modalitate berean egiten, hots, BAT Berezi txartela. Ez du ulertzen 65 urte baino gehiago dituelako, eta lehen zeukan minusbaliotasun berberarekin eta aitortutako mendekotasun-puntu berberekin jarraitzen duelako. Horrez gain adierazi zuen hiri barruko autobusaren ohiko erabiltzailea dela, sarritan bidaiak egiten dituela eta medikuarengana ere joaten dela, eta horrexegatik hilean diru asko dela berarentzat, pentsioduna delako. Horregatik eskatzen zuen TUVISAk argitu dezala eskubidez zer hobari dagozkion berari.

Erreklamazio horren ondorioz, informazioa eskatu genion TUVISA enpresari, eta azaldu ziguten gaur egun zer baldintza bete behar diren billete hobaridun bat erabili ahal izateko, baina edonola ere, 15.975,32 eurotik beherako diru-sarrerak eduki behar direla (2014. urterako bidaiaren hiri barruko garraio-zerbitzu publikorako tarifak onesten dituen eta egun indarrean dagoen Euskadiko Prezioen Batzordearen azken ebazpenak ezartzen duen moduan), Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (Tuvisa) enpresak aurkeztu bezala.

Horrek aldaketa bat dakar aurreko egoerarekin alderatuta, ordu arte ez baitzitzaien gehieneko errenta-mugarik ezartzen 65 urtetik gorako pertsoneri edo % 33 eta % 66 arteko mendekotasuna duten pertsoneri, hobaria jasotzeko eskubidea onartzeko.

Horrenbestez, egun indarrean dauden tarifen arabera, erreklamaziogileak urteko diru-sarreraren muga gainditu egiten duenez gero, ezinezkoa du billete hobaridunaren bitartez hiri barruko autobusean bidaiatzeko eskubidea ematen dion BAT Berezi txartela eskatzea eta, horrenbestez, ezin da onartu herritarraren erreklamazioa.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

ERREG. ZK.: 2224/15 ARBOLADIA. ADARRAK ERORTZEKO ARRISKUA.

Pertsona batek kexa jarri du. Bertan, Betoñuko Atea kaleko autobus geralekua enpresa batetik hurbil dagoela adierazi du, eta, horren ondorioz, kamioi handiak ibiltzen direla inguruan, auto-ilara handiak sortuz, eta autobusa geralekura gerturatzea galaraziz. Horregatik, autobus geralekuaren kokapena aldatzeko aukera azter zedila eskatu zuen, markesina pixka bat aurreratuz.

Azaldutako arazoari buruzko informazioa eskatu genion TUVISARI. Erantzun-txostenean adierazi zigun, ordura arte, ez zituztela azaldutako arazoak erregistratu, eta baztertu egiten zutela geralekuan aldaketak egiteko ideia. Argudio gisara adierazi zuen, gidariei galdetu ondoren, egoera hori ez dela ohikoa izaten eta geralekuak ez duela arazorik ematen. Era berean aipatu zuen kokapen aldaketak kirol instalazioetarako sarbideari eragingo liokeela, eta horri ematen diola zerbitzu aipatu geralekuak.

Aurrekoagatik, uste dugu TUVISAK irizpide teknikoetan eta arrazoizko kudeaketan oinarritu duela bere erabakia. Beraz, kasu honetan, ezin diezaiokegu balioespen-ebazpenik igorri eskaerari.

[Ebazpenaren testu osoa \(gaztelaniaz\)](#)

03.9 BESTELAKO ENPRESAK ETA ERAKUNDEAK

A) IDAZKI LAGUNDUA

ERREG. ZK.: 2244/15 DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA. PRESTAZIOA ESKATZEKO BETEKIZUNAK.

Pertsona batek gure laguntza eskatu du Lanbideren aurkako idazkia idazteko, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskatu du, eta, eman aurretik, amak sinatutako testamentua inpugnatzeko eskatu dio, horren arabera jarauntsirik gabe geratzen baitzen, itxuraz, eskubide ekonomiko guztiak baliarazi dituela erakusteko xedez.

Aipatu errekerimendua atzera botatzea eskatzeko erabilitako argudioen artean, honakoa dago: ez dela borondatezko ukapena, hirugarren baten erabakia baizik, eta eskatzaileak eskatu dizkioten dokumentu eta ziurtagiri guztiak aurkeztu dituela.

04

KONTSULTAK

Oroitidazki honek hartzen duen ekitaldian, guztira 49 kontsulta egin dira. Aurten, deigarria gertatzen da egin diren 49 kontsultetatik 11, hots, % 20 baino gehiago, gai beraren ingurukoak izan direla: irisgarritasun-obrek eta igogailua zero kotara jaistekoek eragindako lokalak. Kasu horietan, estatutuak aztertu ditugu, eta zein aukera posible zeuden (desjabetzea beharrezkoa zen ala ez, lokalentzako aurrekontu bereizia eta abar). Era askotako edukiak izan dituzte: zenbaitetan beste erakunde batzuen eskumenei buruzkoak dira, edo udalean erreklamazioa aurkeztu aurretik jotzen du herritarrek Sindikoarengana; beste batzuetan udal administrazioaren funtzionamenduari buruzko zalantzak dira... Horrenbestez, gure zeregina aholku ematea izan ohi da, eta interesduna bere erreklamazioa bideratzeko egokien den lekura bidaltzea.

Egiten diren unean bertan erantzuten zaie kontsultei, edo, beranduenez, hurrengo egunean. Horietako asko Sindikoaren Bulegoan lehendik ebatzita dauden dosierren ingurukoak dira, eta, horrenbestez, ez da dossier berririk irekitzen, eduki berarekin, baizik eta gai horretan ateratako ondorioei buruzko informazioa ematen erreklamatzaileri.

Beste batzuetan, bulegoko langileek jakin badakitelarik aldeztu aurretik kexa ezetsi egingo dela, hala ebazten da kontsulta, deia edo bisita egiten den unean bertan; izan ere, uste baitugu herritarrei ez diegula funtsik gabeko itxaropenik sortu behar.

Kontsuluten parte bat erreklamazio bihurtu ohi da azkenik. Izan ere, maiz udalean eskabidea aurkeztu aurretik jo ohi dute herritarrek bulegora, eta, halakoetan, erreklamatazileari azaltzen diogu lehenik eta behin udalari aurkeztu behar diola erreklamazioa, eta, baldin eta hark bere eskaria asetzen ez badu, orduan jo behar dutela Sindikoarengana, kexa aurkeztera, eta, orduan bai, dosierra irekiko dela.

Azken batean, kontsultak dira kexa batzuk beren xumetasunagatik dosier bat irekitzeko bide ematen ez dutenak, baina hala ere erregistratzen ditugunak. Hona hemen 2015ean ebatzitako kontsuluten zerrenda:

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA
3392	Aparkatze-isuna Isuna murrizketarekin ordaintzeko aukera baliatzeko epeari buruzko informazioa eskatzen du. Alegazioak aurkeztu dituzenez, dagoeneko ezinezkoa da.	2015/01/12
3393	Lanpostuaren balorazioa: Su Itzaltze eta Salbamenduko Eskualdeko Unitatea. Orientazioa nahi du, bere lanpostuko arriskuei buruzko balorazio-txosten bat —bere etorkizuneko edoskitze-aldia kontuan izango duena— eskatzearen egokitasunaz. Aurrekaririk ez dagoenez, zaila da balorazioa egitea.	2015/01/14
3394	Gardelegiko zaborteziaren ohiko erabiltzaile batek hainbat kontu planteatzen ditu, horren kudeaketaren inguruan: tasak gehiegizkoak iruditzen zaizkio, aldaketak hondakinak botatzeko prozeduretan... Hondakinak udalaren tratamendu lantegietan hustu eta tratatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren eta Zaborteziaren Araudiaren kopiak eman zitzaizkion, eta Ingurumen Sailera jotzea gomendatu, oraindik ez baitu inolako zuzemenik egin Udalean.	2015/01/27
3395	Aldi baterako egoitza-baimena eta besteren kontura lan egitekoa ukatzeko erabakiaren kontrako errekursoak ezetsi izanaren inguruko orientazioa.	2015/01/27
3396	Sindikoak esku har dezala eskatzen du erabiltzaileak, mugikortasun murriztuko pertsonen laguntzeko zerbitzua ibilbide guztietara zabaldu dadin, 0 kilometrotik. Azkenik, laguntza ematen zaion pertsonak bere egoera egiaztatu beharko duela erabaki da, eta laguntza 36 ordu lehenago eskatu.	2015/01/23
3397	Udalaren ondarearen gaineko erantzukizuna erreklamatzeko orientazioa eskatzen du, harlauzak egoera txarrean zeudelako erori baitzen Micaela Portilla kalean. 2149/15 dosierarekin dauka zerikusia. Izan ere, leku horretan bidezaintza-kamerak jarrita dituen erakundeari grabazioak eskatzeko idazkia idazteko laguntza eskatu zigularik ireki genuen hura.	2015/02/12
3398	Berdintasun Zerbitzutik kontsulta egin digute, emakumezko suhiltzaile batek bere lanpostua amatasunagatiko edoskitze-aldira egokitzeko orduan izandako arazo berri jaso ondoren (ikus 3393 kontsulta)	2015/11/24
3399	Lehiaketa publiko batetik kanpo geratutako enpresa bat kexu ageri da dosierak eskuratzen utzi ez zaiolako, beharrezkoa izanik kontratazioaren alorreko errekurso berezia prestatzeko.	2015/02/19
3400	Balorazioa eskatzen du, trafikoaren arloko dosier zigortzaile baten inguruan Arartekoari aurkeztu nahi dion idazki bat dela eta.	2015/02/20
3401	Bizi denaren ondoko eraikin batean hutsik dagoen etxearen okupazioaren inguruko informazioa eskatzen du. Udaltzaingoak sarrerako atea soldatu badu ere, kezka ageri du, uste baitu teilatuan barrena sartzeko aukera dagoela.	2015/04/08
3402	Judimendiko kantxa batean boleibolean aritzeko marrak margotu ziren,	2015/04/15

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA
	baina ez saskibaloikoak. Orobat adierazten dute gazte nagusiago batzuk egon ohi direla bertan, eta jolastea galarazten dietela. Marrak margotu daitezela eskatzen dute, eta beste nonbait jolasten utz diezaietela; esaterako, ikastetxean.	
3403	Jakinarazten digu IT txartela eskuratzeko azterketa egitera joan zela bi hilabeteko haurrarekin, KZgune batera, beste udalerrri batetik etorrira, eta eseri orduko adierazi ziotela adingabeek debekatuta dutela sartzea. Gela utzi behar izan zuen, eta ezin izan zuen azterketa egin. Gizarte-etxeko arduradunekin hitz egin ondoren, utzi zioten egiten, barkamena eskatu ondoren.	2015/04/21
3404	Mehatxuak. "Ayudas más justas" kanpainan, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko legegintzako herri-ekimenena sinatzeari uko egin ziolako.	2015/03/30
3405	Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zituen herritar bate kontsulta egin digu, Vitalquiler etxebizitza bat eskuratu ondoren bigarrena galdu izanaz.	2015/05/14
3406	Orientazioa eskatzen du bahitura-eginbide batzuen jakinarazpenak direla eta. Eranskinetan bahituta eta premiamendu-dosierra bideratu zain dauden ordainagiriaren zerrendak ematen dira, eta kopuruak ez zaizkio koadratzen.	2015/05/26
3407	Hortzerako gizarte larrialdiko laguntza eskatu ondoren —aurkitu zuen aurrekonturik merkeena aurkeztu zuen—, gizarte-langileak esan dio % 80 bakarrik estaliko diotela. Harrituta dago, ezagutzen baititu % 100 eman izan den kasurik.	2015/06/11
3408	Seme-alabak etxetik gertuko ikastetxean eskolatzea. Arartekoaren erantzunaren zain dagoenez, itxaron beharra dauka, hark zer esaten duen.	2015/06/05
3409	Argibideak eskatzen ditu, ordaindua duen zor bat dela eta ALHAOn bahitura-eginbidea argitaratu ondoren.	2015/06/19
3410	Etxean, prostituzioa dela eta, eragozpenik sortuz gero Udalak eskumenik duen kontsulta egin du.	2015/06/20
3411	Ondare-erantzukizuna. Duela urte bete izandako erorikoaren ondorioz aurkeztutako erreklamazioaz galde egiten du. Hori izapidetzen ari zen zerbitzuari kontsulta egin diogu dosierra zertan den. Dossier bat ekarriko zuen gerora (2233/15 erreg. zk.), prozeduran alegazioak idazteko laguntza eskatu zigarrik.	2015/07/07
3412	Orientazioa eskatzen dute, hortz-klinika bati erreklamazioa aurkezteko aukeraren eta tratamendua finantzatzeko sinatutako kredituaren inguruan. Kontsumitzaile en Informaziorako Udal Bulegora eta Orientazio Juridikorako Zerbitzura jotzea aholkatu diogu.	2015/07/08
3413	Orientazioa, Ertzaintzak zer eskumen duen udalerrian salaketa jartzeko, bigarren ilaran aparkatzeagatik. Borondatezko salaketa gisa izapidetzen dira, eskumenik ez duenez.	2015/07/13
3414	Gizarte Larrialdiko Laguntza. Arazoak, berritzeko epeekin, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan jasotzen duen tratuarekin.	2015/07/15
3415	Jabetza horizontalaren erregimenari buruzko informazioa. Jabetza Horizontalaren Legearen testua eman diogu, baita Bizilaguneko kontaktua ere, kontsultarik egin behar badu ere. Jabeen erkidegoaren estatutuak eskuratzeko gomendatu diogu.	2015/07/21
3416	Udalaren aurrean salatu ondoren ez irekitzeko lizentziarik ez jarduera-	2015/07/22

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA
	lizentziarik ez duen negozio bat, zeinek gainera udal laguntzak jaso baititu eta ez baita erabiltzen ari eman zitzaizkion helbururako, orientazioa nahi du, dosierra ikusi ahal izateko.	
3417	Ondare-erantzukizunaren arloko prozedura bati buruzko orientazioa, Aihotz plazatik Gaztetzera igotzeko eskaileretan erori ondoren. Zehazki, proposatutako lekukoa bertaratzeko obligazioa dagoen ala ez, eta eskailera-mailen egoeraz.	2015/07/31
3418	Justizia Ministerioan aurkezteko erreklamazioa idaztea, espainiar nazionalitate eskatzeko prozeduran eskatutako dokumentazioa bai aurkeztua zuela justifikatzeko.	2015/08/11
3419	Ibilgailuak bide publikoan saltzeari buruzko ordenantza urratzeagatik abiarazitako dossier zigortzailearen ebazpena jaso ondoren —baina berraztertzeke errekurtsioa aurkezteko epea igaro aurretik— egindako kontsulta. Administrazioarekiko auzi-bidera jotzeko orientabidea eman diogu, eta borondatezko aldian ez ordaintzearen ondorioak azaldu.	2015/08/14
3420	Jabeen erkidego batek jakin nahi du baden nolabaiteko diru-laguntzarik segurtasun-kamerak jartzeko zona komunetan. Beren higiezinako etxebizitza batean prostituzioan jardun izanaren ondorioz sortu zen proposamen hori, halakoak ekiditego eta frogak jasotzeko.	2015/08/24
3421	Egoera txarrean dagoen etxebizitzako maizterra. Egiaztatu genuen ez dagoela Udalaren inongo errekerimendurik higiezin horren inguruan, eta bide judizialean argitu beharko lukeen arazoa dela jakinarazi genion, harreman pribatua baita.	2015/09/11
3422	OHZren likidazioa. Zalantzak, hobaria aplikatzeari dagokionez. Egiaztatu da zuzena dela, eta ez dela hobaria aplikatzen bi ezkontideen diru-sarrereren baturak gehieneko errenta-maila gainditzen duelako.	2015/09/14
3423	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/09/29
3424	Prentsa-oharra: "Kaleratzerik gabeko udalerrria". Udalbatzak onetsitako mozioari buruzko informazioa eskatzen dute. Datuak eskuratzen saiatu gara, baina hain berria izanik, oraindik ez dago martxan.	2015/09/29
3425	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/13
3426	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/13
3427	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/15
3428	Zabor-tasaren likidazioa. % 50eko hobaria aplikatzea jarduerarik, argirik eta urik gabeko lokalari.	2015/10/15
3429	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/15
3430	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/15
3431	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/10/20
3432	Zamalanetarako eremu bat San Antonio kalean, obra-dukiontzia jartzeko.	2015/10/26
3433	Ertzaintzaren oposizioak. Akademia ez gainditu izana.	2015/10/27
3434	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/09/23

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA
	jabea.	
3435	Funtzio Publikoa. Adingabe bat zaintzeko lan-utzialdiaren ondoren lanera itzultzea, eta istripuaren ondoren lanera itzultzean izandako arazoak	2015/10/23
3436	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/12/01
3437	Bahitura, autoa segururik gabe eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa igaro gabe aparkatutako edukitzeagatik jarritako 1500 euroko hiru isun ez ordaintzearen ondorioz sortutako zorra zela eta. Ertzaintzak egindako salaketak zirenez, Arartekoaren eskumenekoa da.	2015/12/02
3438	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/12/22
3439	Irisgarritasun-obrek —igogailua 0 kotara jaitea— eragindako lokalaren jabea.	2015/12/22
3440	Bizilagunen arteko gatazka. Orientazioa, etxeko ohiko jarduerak enbarazu egiten dion auzokidearen jarreraren aurrean nola jokatu.	2015/12/22

05

IZAPIDETZEN ARI GAREN DOSIERRAK

Oroitidazkiak hartzen duen aldian irekitako zenbait dosier itxi gabe daude oraindik, oroitidazki hau bukatzeko orduan. Dosier horiek ez ixtearen arrazoiak ugariak dira: eragindako sailei eskatu dizkiegun txostenak jaso zain gaudelako gehienetean, edo guk geuk hobeto aztertu zain edo erabiltzaileek dokumentazio berria noiz ekarriko.

Oraindik itxi gabe dauden dosier horien zerrenda ematen dugu ondoren:

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA	SAILA	AZKEN JARDUERA
66	Higiezinak egoera txarrean. Alde Zaharra.	2015/04/20	OGASUNA	Aztertzeko zain
67	Bitartekaritza, lokal batean igogailua 0 kotara jaisteko egindako obrak zirela eta	2015/09/15	HIRIGINTZA	Beste jardueraren bat
70	Ekarpenak, 2016ko ordenantza fiskalak zirela eta	2015/10/13	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
71	TUVISAren irisgarritasunari buruzko txostena	2015/10/29	BESTE ENPRESA BATZUK	Beste jardueraren bat

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA	SAILA	AZKEN JARDUERA
2130	Zaratak eta enbarazua, Zapatari kaleko taberna batean	2015/01/08	INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Sailaren erantzunaren zain
2150	OHZren ordainagiri bakarra, hainbat jaberentzat	2015/02/17	OGASUNA	Sailaren erantzunaren zain
2153	Dosier zigortzaileak. Udaltzaingoa eta Ingurumena	2015/02/17	HERRITARREN SEGURTASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2157	Animaliak edukitzeari buruzko ordenantza. Txakurrak.	2015/02/25	INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Sailaren erantzunaren zain
2158	Aparkatze-isuna eta garabiak autoa eramatea	2015/03/03	OGASUNA	Erabiltzaileari prozesuaren berri ematea
2160	21 Zabalgunea. Eraberritu beharreko eraikineko lonja	2015/03/03	Beste enpresa batzuk	Sindikoaren erantzunaren zain
2163	Etxebizitza. Bizigarritasuna. Udalaren higiezina.	2015/03/03	HIRIGINTZA	Erabiltzailearen informazioa jasotzea
2165	TUVISA. Linea berrien zerbitzuak okerrera egin izan	2015/11/03	BESTE ENPRESA BATZUK	Sindikoaren erantzunaren zain
2166	Obra lizentzia. Araudia ez betetzea	2015/03/11	HIRIGINTZA	Sail edo zerbitzuaren informazioa jasotzea
2168	AMVISA. Zenbateko handiko faktura.	2015/03/11	BESTE ENPRESA BATZUK	Sail edo zerbitzuaren informazioa jasotzea
2171	TUVISA. Zerbitzurik gabe Alde Zaharrea	2015/03/18	BESTE ENPRESA BATZUK	Sindikoaren erantzunaren zain
2177	Isuna, bigarren ilaran aparkatzeagatik	2015/03/31	OGASUNA	Aztertzeko zain
2181	Zabor-tasa. Jarduera duen etxebizitza.	2015/04/08	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2182	Isuna. Bigarren ilaran aparkatzea.	2015/04/08	OGASUNA	Sailaren erantzunaren zain
2184	Aparkaleku eskasia, Zaramagan	2015/04/14	INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Sindikoaren erantzunaren zain
2197	Irisgarritasunik eza, Astronomoen zonaldeko pasabide batean	2015/05/12	UDAL ERAIKINETAKO MANTENTZE SAILA	Sailaren erantzunaren zain

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA	SAILA	AZKEN JARDUERA
2203	Igogailua 0 kotan. Eragindako lokala.	2015/06/02	HIRIGINTZA	Beste jardueraren bat
2208	Sakangunea jartzea, Lermandan	2015/06/09	INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Sail edo zerbitzuaren informazioa jasotzea
2209	Harlauza hautsiak, Mendizorrotzean.	2015/06/16	KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA	Ebazpena
2211	Zaratak, Hor Dago tabernan	2015/06/16	INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Sindikoaren erantzunaren zain
2212	Kalteak etxebizitzan, supermerkatuko obregatik	2015/06/16	HIRIGINTZA	Sailaren erantzunaren zain
2225	Gainbalioa	2015/07/15	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2236	Trafikoa. Arazoak, San Bizente Pauleko kalean.	2015/09/09	INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA	Sailaren erantzunaren zain
2242	Orientazioa, auzokideen arteko gatazkan	2015/09/23	INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA	Sindikoaren erantzunaren zain
2246	Gizarte-laguntzak	2015/10/08	GIZARTE GAIAK, ADINEKOAK ENPLEGUA	Bilera edo elkarrizketa sail edo zerbitzuarekin
2250	Isuna. Zebra-bidea ez errespetatzea.	2015/10/19	HERRITARREN SEGURTASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2253	Bizikletak. Zonak mugatzea eta ordenantza betetzea	2015/10/20	HERRITARREN SEGURTASUNA	Beste jarduera batzuk
2254	Gainbalioa	2015/10/22	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2255	OHZren ordainagiri bakarra, bi jaberentzat	2015/10/27	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2256	Gainbalioa	2015/10/27	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2257	Arazoak kolektorean, tranbiaren obregatik	2015/10/27	BESTE ENPRESA BATZUK	Erabiltzailearen informazioa jasotzea
2259	Zaratak, terrazetan. Ordenantza ez betetzea.	2015/11/03	INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA	Sindikoaren erantzunaren zain
2260	Isuna, kotxean salmenta-kartela jartzeagatik	2015/11/03	OGASUNA	Erabiltzaileari prozesuaren berri ematea
2261	Isuna. Drogak antzemateko proba egiteari uko egitea	2015/11/03	HERRITARREN SEGURTASUNA	Erabiltzailearen erantzunaren zain
2262	Isuna. Drogak	2015/11/03	HERRITARREN	Erabiltzailearen erantzunaren zain

ERREG. ZK.	GAIA	SARRERA EGUNA	SAILA	AZKEN JARDUERA
	antzemateko proba egiteari uko egitea		SEGURTASUNA	
2263	Birgaitzeko lizentzia	2015/11/10	HIRIGINTZA	Sailaren erantzunaren zain
2266	Isuna. Zirkulazio-bidean aparkatzea	2015/11/13	OGASUNA	Sailaren erantzunaren zain
2268	Mahaitxoak, lizentziarik gabe	2015/11/17	INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA	Sailaren erantzunaren zain
2269	Isuna. TAO.	2015/11/17	OGASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2270	21 Zabalgunea. Eraitsi eta berriro eraikitako eraikinera sartzea	2015/11/20	BESTE ENPRESA BATZUK	Sindikoaren erantzunaren zain
2275	Lokala ixtea, zaratengatik. Auzokoaren salaketa. Kalte-ordaina.	2015/12/01	INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA	Bilera edo elkarrizketa sail edo zerbitzuarekin
2281	Itoginak, Zaldiaran plazako parkingean	2015/12/09	BESTE ENPRESA BATZUK	Sindikoaren erantzunaren zain
2283	Irisgarritasun Kontseilua	2015/12/09	PARTAIDETZA ETA GARDENTASUNA	Elkarrizketa, erabiltzailearekin
2284	AMVISA. Ordainagiri okerra, egin ez den kontsumoagatik.	2015/12/15	BESTE ENPRESA BATZUK	Sindikoaren erantzunaren zain
2287	TUVISA. Zaratak eragozpenak sortzea Autobusen egoera	2015/12/15	BESTE ENPRESA BATZUK	Bilera edo elkarrizketa sail edo zerbitzuarekin
2288	Haurtzaro udal eskola. Katamarka gela.	2015/12/15	KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA	Sindikoaren erantzunaren zain
2289	Txakur arriskutsuak. Ordenantza ez betetzea.	2015/12/22	HERRITARREN SEGURTASUNA	Sindikoaren erantzunaren zain
2290	Isuna. Semaforoa gorri, argazki-kamerarekin	2015/12/22	HERRITARREN SEGURTASUNA	Erabiltzailearen erantzunaren zain

